



**Eskolako liburutegian
nola ikasi eta ikertu
Erabiltzaileak prestatzen**

M.^a JESÚS ILLESCAS

4 **Blitz** sorta berdea

.....

**Eskolako liburutegian
nola ikasi eta ikertu
Erabiltzaileak prestatzen**

ARGITARATZAILEA
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

EGILEA
M^o Jesús Illescas

BILDUMAREN ARDURADUNA
Curriculum Diseinu eta Garapenerako U.T.

DISEINUA
Asis Bastida

INPRIMAKETA
Castuera, Industrias Gráficas, S.A.

D.L. NA - 3.076/2003

ISBN 84 - 235 - 2467 - 1



**Eskolako liburutegian
nola ikasi eta ikertu**
Erabiltzaileak prestatzen

M.^a JESÚS ILLESCAS

AURKEZPENA

Blitz, liburutegiko sagua sorta horia berriz agertzen da liburuaren munduan zenbaki berri honekin: Nola ikasi eta ikertu eskolako liburutegian. Erabiltzaileak prestatzen.

Bilduma honen xedea da arlo guztietako irakasleei aholku ematea beren ikasleek egoki erabil ditzaten eskola liburutegiko informazio iturri guztiak.

Eskolako liburutegira jo behar du ikasleak ikasgelan ikasitakoak zabaltzeko, eta bai curriculumeko edozein gairen inguruan bere kasa ikasi eta ikertzeko ere. Hartarako, noski, liburutegiak ongi hornitua behar du denetariko materialez eta nazioarteko arauen arabera behar bezala antolatua.

Baina ikasle guztiak ez dira gauza izaten irispidean dituzten dokumentuak trebeki erabiltzeko. Horregatik, irakatsi behar zaie gure neska-mutilei liburutegi bat nola dagoen antolatuta, katalogoak nola erabili eta dekumentu mota desberdinak nola egoki usatu.

Irakasleek ohitura handia dute ikasleei gai jakin baten gainean ikerketa lanak egin ditzatela agintzeko; ikasleek, tamalez, askotan teknika bakarra baliatzen dute horretarako: zatiak nolanahi kopiatu liburu batetik zein bestetik. Eta Internet agertu delarik, ebaki-eta-erantsi teknika hori are errazago egin da eta alarma hartzeko moduan orokortu da.

Orain aurkezten dugun obra honen helburua da ikasleei irakastea nola itxuratu behar diren ikerketa lanak, informazio iturriak behar bezala erabiliz. Gainera, liburutegien munduan erabiltzailen prestakuntza deitzen zaionaren manual egokia da.

Luis Campoy Zueco
HEZKUNTZA KONTSEILARIA

7	Sarrera
9	1. EZ ZAITEZ LIBURUTEGIAN GALDU
10	1. Ba al zenekien?
11	2. Zure institutuko liburutegia ongi ezagutzen al duzu?
20	3. Nola erabili liburutegia ikerketa lan bat egiteko
20	4. Ez ahaztu
21	5. Osa ezazu dakizuna interneten bidez
21	6. Zer ikasi duzu?
23	2. DOKUMENTU MOTAK ETA FORMAK
24	1. Ba al zenekien?
24	2. Dokumentu klase desberdin batzuk
34	3. Nola erabili dokumentu bakoitza ikerketa lan bat egiteko
34	4. Ez ahaztu
35	5. Osa ezazu dakizuna interneten bidez
35	6. Zer ikasi duzu?
37	3. NOLA BILATU INFORMAZIOA LIBURUTEGIETAN (I)
38	1. Ba al zenekien?
38	2. Ba al dakizu zer den liburutegi baten katalogoa?
50	3. Ez ahaztu
50	4. Osa ezazu dakizuna interneten bidez
51	5. Zer ikasi duzu?

53 **4. NOLA BILATU INFORMAZIOA LIBURUTEGIETAN (II)**

- 54 1. **Ba al zenekien?**
54 2. **Nola kontsultatzen da katalogo informatizatu bat?**
69 3. **Nola erabili katalogoak lan bat egiteko**
69 4. **Osa ezazu dakizuna interneten bidez**
69 5. **Ez ahaztu**
70 6. **Zer ikasi duzu?**

71 **5. NOLA ATERA HIZTEGIEI ETEKINIK HANDIENA**

- 72 1. **Ba al zenekien?**
73 2. **Zer da hiztegi bat?**
85 3. **Nola erabili hiztegia lan bat egiteko**
85 4. **Osa ezazu dakizuna interneten bidez**
85 5. **Ez ahaztu**
85 6. **Zer ikasi duzu?**

87 **6. NOLA ATERA ENTZIKLOPEDIIEI ETEKINIK HANDIENA**

- 88 1. **Ba al zenekien?**
88 2. **Zer da entziklopedia bat?**
97 3. **Nola erabili entziklopediak lan bat egiteko**
99 4. **Osa ezazu dakizuna interneten bidez**
99 5. **Ez ahaztu**
99 6. **Zer ikasi duzu?**

101 **7. AURKIBIDEAK, SUMARIOAK ETA BESTE TRESNA LAGUNGARRIAK**

- 102 1. **Ba al zenekien?**
102 2. **Zer tresna lagungarri daude liburu batean?**
116 3. **Nola erabili tresna lagungarriak lan bat egiteko**
117 4. **Ez ahaztu**
117 5. **Zer ikasi duzu?**

119 **8. LAN BAT EGITEKO JARRAIBIDEAK**

123 **JARDUEREN EBAZBIDEA**

143 Bibliografia

SARRERA

Ondoren aurkezten diren unitate didaktikoek liburutegiei eta liburutegietako dokumentuei buruzko hainbat informazio oinarrizko ematen dituzte; konparazio batera:

- Liburutegiak zer diren, nola dauden antolaturik eta nola jarduten duten.
- Hainbat dokumentu klasek zer egitura duten.
- Liburutegietako katalogoetan informazioa nola bilatu, dela eskuz dela automatikoki.
- Kontsultarako obrak nola erabili.
- Liburu-etako tresna osagarriak nola erabili.
- Aurreko guztia nola aplikatu lan pertsonal baten itxuratze prozesuari.

Unitate bakoitzak honako atalak ditu:

- **Ba al zenekien?** Atal honetan kasuko gaiari buruzko jakingaiak edo gertaera historikoki ematen dira.
- **Edukiak** zein bere epigrafean garatzen dira.
- Kontzeptu azalpenekin batera, hainbat **jarduera** ere sartzten dira kontzeptu haiek praktikan jartzeko. Batzuetan jarduera horiek eskolako liburutegian edo liburutegi publikoetan dauden dokumentu eta tresnekin egin behar dira.
- **Nola erabili... lan bat egiteko** delako atalean zenbait kontseilu ematen dira ikasleek ikasitakoa lan bat egiteko aplikatzeko.
- **Osa ezazu dakizuna Interneten bidez** delako atalean, kasuko gaiei buruzko sareko helbideak ematen dira (daudenean).
- **Ez ahaztu** atalak zenbait ideia oinarrizko gogorarazten ditu.
- **Zer ikasi duzu?** atalak galderak egiten ditu nor bere burua ebaluatzeko.

Azken Unitatean banan-banan esplikatzen dira ikerketa lan bat egiteko faseak, gainerako unitate didaktikoetatik zeinetara jo adieraziz, ikasle-irakasleek egoera errealean errazago erabil ditzaten ikasitako prozedurak, prozesuko fase guztiak pasatuz.

Material honek abiaburu soila izan nahi du. Irakasleak bere ekarpenez aberastu edo zabaldu dezake. Zilegi du materiala aldatzea ere, nahi badu, bere ikasleen eta bere ikastetxearen arabera moldatzeko. Zilegi du, halaber, ikasketa-egoera errealean aplikatzea, hala nola ikerketa lanak egitea, hortxe hartuko baitute esangura zehatza hemen lantzen diren edukiek.

.....



EZ ZAITEZ
LIBURUTEGIAN GALDU




I. Ba al zenekien?

Antzina, liburutegiak agertu ziren arte, idazkiak tenpluetan eta erregeen jauregietan gordetzen ziren. Liburutegirik zaharrenak Asirian eta Babilonian sortu ziren, K.a.ko 500. urte inguruan. Haiei esker iritsi zaizkigu Antzinateko dokumentu eta gertaera asko.

Liburutegi haiek, gaur ditugunez bestelakoak izaten ziren. Ez zuen edonork zilegi haie-tan sartzea eta ez zen dokumenturik inoiz ere ateratzen handik. Julio Cesarrek sortu zituen lehenbiziko liburutegi publikoak Erroman, baina XIX. mendera arte ez ziren gehiegi garatu. Europako lehenbiziko mailegu-liburutegia XVIII. mendean sortu zen, Edinburgon (Eskozia).

Gaurko liburutegien helburu nagusia herritarren artean jakintza zabaltzea izaten da; hartarako, kontsultarako aretoa, etxerako mailegua, Internet bidezko katalogo-konsul-tak eta antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Unitate honetan liburutegiak gaur egun nolakoak diren eta zer zerbitzu ematen dituz-ten aztertuko dugu.



2. Zure institutuko liburutegia ongi ezagutzen duzu?

.....

Eskolako edo institutuko liburutegiak anitz liburu eskaintzen dizkizu, irakurtzekoak nahiz kontsultatzekoak, eta bai aldizkariak, bideoak, diskoak eta abar ere. Horien guztien helburua da zuk gehiago eta hobeki ikastea eta baitaere gustura egon eta dibertitzea.


Liburutegiko dokumentuetan makina bat gairen inguruko informazioa aurkituko duzu: kirola, historia, musika, afizioak, artea, bidaiak eta abar. Liburu horiei esker aukera duzu ezagutzen ez dituzun herriekin amets egiteko, abentura miragarriak bizitzeko, pertsonaia liluragarriak ezagutzeko eta behin ere imajinatu gabeko gauzak ikasteko.

Unitate honetan liburutegiak hobeki ezagutzen lagundu nahi dizugu, behar dituzun aldiror erabiltzera bultzatzeko.


2.1 ■ Liburutegi bateko eremuak

Liburutegi batean eremu diferente batzuk egoten dira, honela banatuak:


- **Harrera.** Hemen liburuzainak irakurleei informazioa eman eta kasu egiten die dokumentu mailegatuak etxera eraman edo itzuli nahi dituztenean.
- **Apalategien eremua.** Hemen liburuak egoten dira, gaien arabera antolatuta. Apalategietan errotulu batzuk ikusiko dituzu, altxari bakoitzeko liburuen gaiak aditzera emateko. Zenbait liburutegitan bideoak, CD-ROMak eta Compact-discak jartzeko toki bat ere egoten da.
- **Lan eremua.** Kontsultak egiteko, ikasteko, eta zerbait idatzi edo apuntatu behar duzunerako.
- **Irakurketa eremua.** Zure intereseko aldizkariak edo liburuak irakurriz dibertitzeko tokiak. Zenbait liburutegitan eremu hau eta lan eremua bat bera dira.
- **Hemeroteka.** Hemen liburutegiak jasotzen dituen aldizkariak eta egunkariak egoten dira.
- **Ordenadoreen eremua.** Dokumentu elektronikoak (CD-ROMak, Compact-discak eta abar) kontsultatzeko edo Interneten sartzeko.
- **Katalogoen eremua.** Eskuzko katalogoak izan daitezke edo ordenadoreak, katalogoa automatikoki kontsultatu ahal izateko.
- **Nobedadeen erakustokia.** Hemen liburutegira iritsi diren azken liburuak egoten dira ikusgai.




BAKARKA LAN
EGITEKO EDO
IRAKURTZEKO
EREMUA



MULTIMEDIA ETA
INTERNETERAKO
EREMUA



EROSO
IRAKURTZEKO
EREMUA



ELKARREKIN
LAN EGITEKO
EREMUA

SARRERA
t

Iragarki
ohola

LIBURUTEGI
BATEKO
EREMUAK

Hemeroteka

Nobedadeen
erakustokia. Gaika

Harrera

IKUSUNTZUNEZ-
KOEN EREMUA

JARDUERAK

- 1) Liburutegiko zoko-mokoak ezagutzeko, egin ezazu orri koadrikulatu batean zure ikastetxeko liburutegiaren planoak, eta esan aipatu eremu horietatik zeintzuk dauden zure liburutegian. Liburutegian plano bat badago, handik kopiatzea daukazu.
- 2) Ondoren bi zutabe dituzu. Lehenbizikoan, liburutegi bateko eremu desberdinak ageri dira, eta bigarrean, bertan egin daitezkeen jarduera batzuk. Pixka bat pentsatu eta lot ezazu eremu bakoitza bertan egin daitezkeen jarduerarekin.

Lan eremua	Liburutegiaren gaineko informazio eskatu
Katalogoen eremua	<i>Elhuyar</i> aldizkariaren azken alea bilatu
Hemeroteka	Entziklopedia bat kontsultatu
Harrera	CD-ROM bat irakurri
Ordenadoreen eremua	Ikusi zer liburu ikusgai dauden eta mailegatuta eraman
Nobedadeen erakustokia	Liburu bat badagoen begiratu
Irakurtze eremua	Dokumentu inprimatu bat irakurri

- 3) Buelta bat eman zure liburutegian eta honako datuok osa itzazu:
 - ▶ ¿Ba al dago nobedadeen erakustokirik? Bai Ez
 - ▶ Baldin badago, idatz itzazu hango hiru titulu.
 - ▶ Hemeroteka eremurik ba al dago? Bai Ez
 - ▶ Baldin badago, hiru egunkari nahiz aldizkariren izenak idatzi
 - ▶ Irakurketa eremurik ba al dago? Bai Ez
 - ▶ Zertan bereizten da lan eremutik?
 - ▶ Ordenadoreen eremurik ba al dago? Bai Ez
 - ▶ Ba al dakizu non dagoen liburutegiko katalogoa? Bai Ez

2.2 ■ Nola daude antolaturik liburuak liburutegi batean?

Apalategien eremua aipatu dugunean, esan dugu liburutegietako liburuak gai arabera sailkatu egoten direla. Hau da: gai berari buruzko liburu guztiak apalategi berean egoten dira.

Liburutegi askotan liburuak hamar taldetan sailkatzen dira. Sailkapen horri Sailkapen Hamartar Unibertsala deitzen zaio (CDU). Denek jakiteko hamar gai horiek zein diren, kartelak edo horma-irudiak jartzen dira liburutegiko apalategi bakoitzean, adibidez, Blitz-en kartel hauek. Kartel bakoitzak zenbaki bat du eta bere gaiari dagokion testua.



0 Gai orokorrak Histegiak. Entziklopediak. Biltzurak 001 METEORAK 004 INFORMATIKA 01 BILGUTURAK KATALOGEAK 08 POLIGRAFIAK TALDE LANAK. 09 EGITURAREN SIKLOAK 004 MATERIAL GRAFIKOAK 003A URUSIAK, PLOKAK, PAPAIAK 00 NAHASTURAK	1 Filosofia. Psikologia 101 FILOSOFIAREN HISTORIA 109 PSIKOLOGIA 17 MORALA, ETIKA	2 Erligiak. Teologia	3 Gizarte zientziak Demografia, Estatistika, Soziologia, Politika, Ekonomia, Zuzenbidea, Administrazioa, Hezkuntza, Turismoa, Fehiturak, etab. 31 DEMOGRAFIA 32 SOZIOLOGIA 33 POLITIKA 34 EKONOMIA 344 KONSTITUZIOAKO HEZKUNTZA 37 HEZKUNTZA 37.03 ZUZENBIDE BAKARRAKOAK OROKORREN 37.031 BALIO HEZKUNTZA 37.17 OROKOR HEZKUNTZA, SEXU HEZKUNTZA
Nafarroa 3 (486.14) GIZARTE ZIENTZIAK 03 ISOLOGIA, TURKOMA, DHTURAK, FOLKLOREA, ETAB.) HEZKUNTZA 37 (486.14) FOLKLOREA 7 (486.14) ARTZA 08 (486.14) FOTOGRAFIAK 01 (486.14) GEOGRAFIA 01 (486.14) HISTORIA 302 (486.14) NATUR ZIENTZIAK, INGURUMENA		5 Zientzia zehatzak eta natur Natur zientziak, Matematika, Fisika, Kimika, Mekanika, Lurraren zientziak, Biologia, Ekologia, Geologia, etab. 102 NATUR ZIENTZIAK 104 INGURUMENAREN ZIENTZIAK, INGURUMEN HEZKUNTZA 11 MATEMATIKA 15 GEOLOGIA 15 LURRAREN ZIENTZIAK 13 MEKANIKA 17 BIOLOGIA 18 BOTANIKA 19 ZOOLOGIA	
Fikziozko literatura N ELEBERRIA P GUREAK F ANTZEZLANAK K KORTXAK L KAZETERRAKO LITERATURA (BATX, BAT DENGU, KALENDARIO)		6 Zientzia aplikatuak Medikuntza, Ingeniaritza, Teknologia, Ekonomia, Industria, Informazioa, Erakuntza, etab. 61.3 GIZA GORPUTZA 61 INGENIARITZA 63.1 TEKNOLOGIA OROKORREN 63.11 TELEKOMUNIKAZIOA, IRUDIA, SONTUA	
9 Geografia. Biografiak. Historia 008 ESUALDE MONOGRAFIAK 01 GEOGRAFIA 012 (30) ESPANIARAKO GEOGRAFIA 029 BIOGRAFIAK 03 HISTORIA 032 ZIBILIZAZIOEN HISTORIA 03 HISTORIOGRAFIA 91 (887) "01" MUNDUAKO ANTZINAREN HISTORIA 91 (887) "02" MUNDUAKO ANTZINAREN HISTORIA 91 (887) "131" MUNDUAKO HISTORIA MODERNOA 91 (887) "132" MUNDUAKO HISTORIA MODERNOA 94 (887) EUROPARAKO HISTORIA 94 (887) ESPANIARAKO HISTORIA 94 (887) "131" ESPANIARAKO HISTORIA MODERNOA ETA GARAIOA		8 Hizkuntzalaritza. Literatura. Filologia 81 HIZKUNTZA OROKORREN 81.1 (11) INGELERA 81.1 (2) ALERMANA 81.1 (24) LATINA 81.1 (25) FRANTZESA 81.1 (34) GAZTELANIA 81.1 (40) GREKERA KLASIKOA 81.1 (81) EUSKARA 81.1 (90) LITERATURA OROKORREN 82.1 LITERATURA INGELERAZ 82.1 (33) LITERATURA FRANTZESERAZ 82.1 (34) LITERATURA GAZTELANERAZ 82.1 (81) LITERATURA EUSKARAZ	7 Arteak. Musika. Jokoak. Kirolak. Ikuskizunak 7 (39) ARTAREN HISTORIA 74 PLASTIKA HEZKUNTZA 74 MARIJAZI ET DISEINUA 77 FOTOGRAFIA 78 KINEMATOGRAFOKO BALIABIDEAK 78 MUSIKA 79 (43) ZOKU TALDEAK 79 GORPUTZE HEZKUNTZA 79 KIROLAK SOINETA
<p style="text-align: center;">CDU</p> <p style="text-align: center;">SALKAPEN HAMARTARRAREN ONIBERTSALA</p>			

CDU honek hamar kategoriatan banatzen du jakiuidea, eta hamar horiek gero beste batzuetan, jakiuidea adar askoko arbola balitz bezala. Gai orokorrak 0-tik 9-ra arteko zifra batez numeratzen dira eta haien azpialdeak bi zifrarekin. Eta horrela aurre-ago ere.

JARDUERAK

- 1) Begiratu CDU kartela, gai bakoitzaren azpialdeak ageri dituenak.

Ohar zaitez gaiak orokorrenetik partikularreneraingo zatitzen direla. Adibidez, zientzien barrenean zientzia hutsak ditugu (matematika, fisika, kimika, biologia eta abar).

- 2) Orain, begiratu ongi eta, aurreko CDU kartelaren laguntzarekin, idatz ezazu zein gai dagozkien zenbaki hauei:
 - ▶ 59
 - ▶ 840.....
 - ▶ 60
 - ▶ 29
 - ▶ 38
 - ▶ 77
 - ▶ 81
 - ▶ 79
 - ▶ 74
 - ▶ 52
 - ▶ 37
 - ▶ 03
 - ▶ 68
 - ▶ 15

- 3) *Sailkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan* liburuxka hartu (Blitz liburutegiko sagua bildumakoa) eta bertan begiratuta apunta ezazu zein zenbakitan aurkituko zenituzkeen, zure ustez, honako gauzak egiteko behar zenituzkeen liburuak:
 - ▶ Argazkigintzari buruz zerbait ikasi.
 - ▶ Eskubaloian jokatzeko arauak ikasi.....
 - ▶ Madame Curieren biografia ikasi.....
 - ▶ Orkestra bat nola osatzen den ikasi.....
 - ▶ Txiste liburu bat bilatu.....
 - ▶ Xakean ikasi.....
 - ▶ Poesiazko liburu bat irakurri.....
 - ▶ Eguraldia nola aurreikusten den ikasi.....
 - ▶ Hegoamerikako historiari buruzko gauzak ikasi.....
 - ▶ Komiki bat irakurri.....
 - ▶ Ipar Poloaren esplorazioari buruzko gauzak ikasi.....

2.3 ■ Beste sailkabide batzuk

INTERESGUNEEN ARABERA

Irakurleek liburuak errazago aurki ditzaten, *Sailkapen Hamartar Unibertsala* ikasi beharrik gabe, zenbait liburutegitan jendeak maizenik eskatzen dituen gaiak hartu eta haien arabera sailkatzen dute beren liburuaren parte bat. Horrela, beren sailkabide propioa eratzten dute, beste liburutegietan ez bezalako. Irakurleek jakiteko nola dauden sailkatuta dokumentuak, errotuluak jartzen dira, aukeratu diren gaiekin.

.....

GENEROEN ETA ADINEN ARABERA

Liburutegi publikoek, Nafarroakoek, kasu, CDUkoa ez bezalako sailkabidea erabiltzen dute fikzio liburuatarako, hau da, egile baten imajinazioaren fruitu direnetarako, hala nola ipuinak, nobelak, poesia eta abar. Lau ataletan sailkatzen dituzte horiek, genero literarioen arabera eta bakoitzari letra bat jartzen diote:

- N Nobelak
- P Poesia
- T Teatroak, tebeoak eta komikiak

Gainera, liburutegian gazte eta haurrentzat dagoen zatian, liburuak adinen arabera sailkatzen dira, letrak, zenbakiak eta koloreak erabiliz:

- 11 urdina 7 urte arte
- 12 gorria 8atik 10 urtera bitarte
- 13 berdea 10etik 13 urtera bitarte
- 1N horia 13 urtetik gora

Nafarroako zenbait liburutegitan euskarazko liburuak etiketa gorriaz bereizten dira.

ARGITARATZE DATAREN ARABERA

Adibidez, aldizkari eta egunkarietarako erabiltzen da sailkabide hau. Titulu bereko aldizkari guztiak elkarrekin egoten dira, zaharrenetik berrienera ordenaturik.

JARDUERAK

- 1) Azter ezazu ondorengo sailkabidea, liburutegi batek bere premietarako egina:
 - Abentura fantastikoak
 - Aisia
 - Alegiak
 - Animaliak
 - Barre egiteko
 - Biografiak
 - Familia, adiskideak eta eskola
 - Gaurko gaiak
 - Informatika
 - Ipuinak
 - Jokoak eta kirolak
 - Kantak eta dantzak
 - Korapiloa
 - Teatroa
 - Zientzia fikzioa

- ▶ Nola daude ordenaturik gai hauek? Ba al dute barrenko ordena hierarkikorik?
.....
 - ▶ Konpara itzazu gai horiek CDUkoekin. Zure ustez zein liburutegitan aurkituko zenituzke gauzak errazago? CDUaren arabera edo maizenik eskatzen diren gaien arabera?
 - ▶ Esplika ezazu zergatik.....
- 2) Pentsa ezazu zein gai erabiliko zenituzkeen zeure liburutegi pertsonala antolatze-ko. Horretarako, lehenbizi pentsatu behar duzu zer liburu dituzun eta zer gai dituzten. Adibidez: informatikako liburu asko badituzu, gaietako bat hori izango da. Horrez gain zientzia fikzioko nobela asko badituzu, hori izan liteke beste gai bat.
.....
.....
- Ordena itzazu aukeratu dituzun gaiak alfabetoaren arabera, aurreko ariketako adibi-dean bezala.
.....
.....
.....
- 3) . Pentsa ezazu gazte eta haurren ataleko liburuzaina zarela. Irakurleek oso maiz galdetzen dizute fikzioko liburuak nola bilatzen diren. Genero eta adinen arabera sailkabidez esplikatuz duguna irakurrita, erantzun itzazu haien galderak:
- ▶ Zer letratan aurkituko dut Bernardo Atxagaren poema liburu bat?
 - ▶ Zer letratan daude Asterixen komikiak?
 - ▶ Zer koloretan daude 13 urtekoentzako liburuak?
 - ▶ Non daude sailkaturik teatro liburuak?
 - ▶ Zer koloretan aurkituko dut 3 urteko ahizparentzako liburua?

2.4 ■ Zer eskaintzen dizute liburutegiek?

Liburutegiek beste zerbitzu interesgarri asko eskaintzen dizkizute:

- Lasai irakurri edo ikasteko eremu bat.
 - Edozer gairen gaineko lanak egiteko askotariko dokumentuak.
 - Liburu, aldizkari, CD, DVD eta abar mailegatzeko aukera
 - Bilatzen dituzun liburuen gaineko informazioa
 - Musika entzuteko aukera
 - DVDak ikusteko aukera
 - Interneten sartzeko bidea.
 - Jarduerak (liburutegia nola erabili ikasteko jarduerak, erakusketak, kontalariak, liburu-ruen bidezko jokoak eta jostetak).
-

Liburutegi bakoitzak bere zerbitzu bereziak ditu, baina zerbitzu asko liburutegi guztietan ematen dira.

JARDUERAK

- 1) Launaka jarrita, osa ezazue ondorengo taula hau, erantzuna baiezkoa denean dago-kion laukian gurutze bat eginaz:

	1	2	3	4	OSOTARA
Gutxienez hilean behin joaten al zara liburutegira?					
Gustatzen zaizkizun liburu edo aldizkariak irakurtzera joaten al zara?					
Ikastera joaten al zara?					
Lanak egiteko behar dituzun dokumentuak kontsultatzen joaten zara?					
Etixerako maileguak hartzen al dituzu?					
Parte hartzen al duzu liburutegiak antolatzen dituen jardueretan?					

- Batu itzazu talde desberdinetako datuak eta komenta itzazu emaitzak. Ongi al dakizue liburutegiak zer eskaintzen duen? Aprobetxatzen al dituzue liburutegiak eskaintzen dituen aukera guztiak? Ona litzateke gehiago aprobetxatzea?

2.5 ■ Ba al dakizu liburutegietan zer arau izaten diren?

Liburutegi batek ongi funtzionatuko badu, arauak behar dira, dokumentuak nola erabili eta erabiltzaileak nola portatu behar duten finkatzeko. Hona hemen liburutegietan maiz indarrean dauden arau batzuk:

- Liburutegian isiltasuna egongo da. Telefono mobilak deskonektatu behar dira.
- Liburuak zaindu behar dira, urratu edo zikindu gabe.
- Garrantzi handia du liburuak ongi ordenatuta egoteak; horregatik, irakurri ondoren, hartarako propio jarritako mahaian utzi behar dira. Liburuzainak jarriko ditu berriz beren tokian.
- Etixerako maileguak luzeenez hamabost egun irauten du. Epe hori pasatuta itzuli egin behar da liburu edo mailegua gehienez beste hamabost egunetarako berritu.
- Entziklopediak eta hiztegiak ezin dira etxera eraman.

Garrantzi handia du denek parte hartzea eta laguntzea liburutegiak hobeki funtzionatzeko, arauak begiratzuz eta sujerentziak eginez.

.....

JARDUERAK

- 1) Ba al dakizu zein diren zure liburutegiko arauak? Hiru arau aipatu.
 - ▶
 - ▶
 - ▶

- 2) Ideiaren bat gogoratzen al zaizu zure eskola edo institutuko liburutegiak hobeki funtzionatzeko? Idatz ezazu orri batean eta bota orria sujerentzien buzoian edo zure irakasleari eman.

3. Nola erabili liburutegia ikerketa lan bat egiteko

Oso zaila da lan bat liburutegi batetik pasatu gabe egitea. Liburutegian denetariko dokumentuak aurkituko dituzu, makina bat informaziorekin, dituzun dudak argitzeko eta bai lehendik dakizuna osatzeko testuak ere.

Kontseilu bat: Liburutegira joaten zarenean, eraman ezazu fitxa bat datu hauek anotatzeko:

- Lanaren gaia (titulua eta azpititua):
- Gaiarekin lotura duten hitzak, katalogoan bilatzeko erabiliko dituzunak:
- Zer informazio klase behar duzun, egin beharreko lanaren arabera (definizioak, datu puntualak, iritzi desberdinak, ilustrazioak eta abar).
- Interesgarriak izan daitezkeen tituluak, egilea eta signatura (3. unitatean esplikatzen da signatura zer den).

4. Ez ahaztu

- Ikasle guztiek ezagutu eta erabili behar dituzte liburutegiak.
 - Liburutegi baten antolamendua eta eskaintzen dituen zerbitzuak ongi ikasten badituzu, hobeki aprobetxatuko duzu liburutegia.
 - Liburuzainek lagunduko dizute liburutegia ezagutzen eta behar dituzun dokumentuak aurkitzen ere bai.
-

5. Osa ezazu dakizuna interneten bidez

.....


Liburutegi askok interneten bidez eskaintzen dute informazioa eta zerbitzuak. Jakinmina sortzen bazaizu, begiratu helbide hauetan:

- Espainiako Biblioteka Nazionala: <http://www.bne.es>
- Liburutegi Publikoak: <http://www.mcu.es/bpe/info.html>
- Koldo Mitxelena kulturguneko liburutegia: <http://www.gipuzkoa.net/kultura/katalogoa>
- Azkue biblioteka: <http://www.euskaltzaindia.net/azkue>

6. Zer ikasi duzu?

.....

- ▶ Liburutegiei buruz ez nekizkien gauzak ikasi ditut.
Bai Ez
- ▶ Hemendik aurrera, nik uste, hobeki orientatuko naiz liburutegietan.
Bai Ez
- ▶ Orain hobeki ezagutzen dut nire ikastetxeko edo auzoko liburutegia.
Bai Ez
- ▶ Orain iruditzen zait liburutegiek gauza interesgarriak ematen ahal dizkidatela.
Bai Ez



2

DOKUMENTU MOTAK
ETA FORMAK



1. Ba al zenekien?


Liburutegia esaten dugunean, jakina, liburuak edukitzen ditugu gogoan baina liburutegi batean, egia esan, askotariko dokumentuak egoten dira, batzuk inprimatuak eta beste batzuk ikus-entzunezkoak, elektronikoak eta abar. Ba al dakizu Espainiako Biblioteca Nacional-ean sartzen diren dokumentuetatik %10 baizik ez direla liburuak? Gainerako %90 denetariko dokumentuak dira: egunkariak, kartelak, mapak, kromoak, partiturak, bideoak, argazkiak, marrazkiak, multimedia materiala, ordenadoreko programak, liburrakak, diskoak eta abar.

Unitate honetan dokumentu klase desberdin batzuk aztertuko ditugu, eta zer egitura duten eta nola identifikatzen ahal diren ikusi.

2. Dokumentu klase desberdin batzuk

2.1 ■ Liburuak

Antzinetatik hona material mota asko erabili izan dira liburuak idazteko: harria, buztin taulak, papiroa eta abar. Gurean antzeko lehenbiziko liburuak erromatarrek egin zituzten: zurezko oholtxo errektangularretan idatziak zeuden, albo batean larru hedeez loturik, karpeta baten antzera. Forma hori ez zen aldatu inprenta asmatu zenean ere, nahiz eta enkoaderatzeko beste teknika batzuk eta idazteko beste material batzuk erabili, hala nola pergaminoa eta papera. Berriki liburu mota berria agertu da: liburu elektronikoa, zeinak ez baitu paperik erabiltzen nahiz eta lehengo forma errektangularra duen.



1.

1. Buztinezko taulatxoak
2. Erromatarren taulatxo argizariztatuak
3. Papiroa





2.

LIBURUA KANPOTIK

Liburu baten kanpoaldea nolakoa den begiratzan baduzu, hiru parte dituela ikusiko duzu, diferenteak baina osagarriak: bizkarra, aurreko azala eta atzeko azala.

Bizkarrean eta aurreko azalean liburu hori identifikatzen duten oinarrizko datuak ageri dira:



- **Egilea:** Testua idatzi duen pertsona.
- **Titulua:** Egileak liburu identifikatzeko aukeratu duen esaldia edo hitza da. Tituluak lehenbiziko ideia bat ematen du, lausoa bada ere, liburuaren gaiaren gainean.
- **Argitaletxea:** liburu argitaratu duen enpresa da.
- **Bilduma:** liburu zer bildumakoa den. Bilduma obra sail bat da, banakakoak, baina denentzat bilduma-titulu bera, hurrenez hurrengo numerazioa eta formato ezaugarri batzuk komun dituztenak. Liburu guztiak ez dira bilduma batekoak, baina asko bai.


Atzeko azalak liburu edukiaren laburpen txiki bat edukitzen du, liburuaren lehenbiziko ideia bat ematen diguna, interesgarria zaigun ala ez ikusi ahal izateko.

JARDUERAK

- 1) Eskura duzun liburu batean, begira ezazu zer den aurreko azala, zer den bizkarra eta zer den atzeko azala. Kopia itzazu bizkarrean eta aurreko azalean ageri diren datuak.
 - ▶ BIZKARRA
 - ▶ AURREKO AZALA.....
- 2) ATZEKO AZALAREN testua irakurri. Zein da liburuaren gaia?
 - ▶

LIBURU BAT BARNETIK

Liburu baten barnean lehenbizi portada dago. Bertan, azaleko datuak berriz agertu eta beste batzuk erantsen dira, hala nola ilustratzailea eta itzultzailea, adibidez. Portadako datuak osoagoak dira azalekoak baino. Portadaren atzealdean (kontraportadan), zein urtetan eta tokitan argitaratu den agertzen da, zenbatgarren edizioa den eta abar.



Horrez gain, liburuaren barnealdean sumarioa edo aurkibide orokorra egoten da, aurkibide alfabetikoa, sarrera, liburuaren testua eta bukaera.

JARDUERAK

- 1) 1 eta 2. ariketetako liburu bera erabiliz, apunta itzazu portadan bai baina azalean ageri ez diren datuak.
 - ▶
 - ▶
- 2) Kontraportada begiratu eta anota itzazu honako datuok:
 - ▶ Zein urtetan argitaratu zen
 - ▶ Non argitaratu zen
 - ▶ Zenbatgarren edizioa den
- 3) Liburu batzuk barrendik begiratu eta honako elementu hauek non diren ikusi:
 - ▶ Sumarioa edo aurkibide orokorra ▶ Liburuaren testua
 - ▶ Aurkibide alfabetikoa ▶ Bukaera
 - ▶ Sarrera
- 4) Lehen ikusi dugun bezala, aurreko azala eta atzekoa liburuaren kanpoaldean daude eta hango datuak elkarren osagarri dira. Ondoren, hiru libururen aurreko eta atzeko azalak ageri dira; bakoitza dagokionarekin lotu behar duzu:

AURREKO AZALAK

1.	2.	3.
<i>Hegoaldeko Itsasoaren Bila.</i>	<i>Ingeniaritza lanak</i>	Piero Ventura
Germán Vázquez	Philip Wilkinson	<i>Jantziak</i>
SM	SM	Everest

ATZEKO AZALAK

- A) Zertaz egin ziren lehenbiziko jantziak? Noiz hasi zen gizakia larrua lantzen? Zer kolorekoak izaten ziren erromatarren zapatak? Moda, hotzetik edo hautsetatik babesteko premiatik sortu zen hasiera batean baina aurki asko imajinazioari bide emateko eremu egokia izan zen, bizitzaren agertokian itxura berria erakusteko aitzakia.
- B) Cristóbal Colón Amerikara iritsi zenean, Asiako kosta jo zuela uste izan zuen. Uste makur horrek luze iraun zuen: Vasco Nuñez de Balboak Pazifikoa aurkitu eta horrela lur hura beste kontinente bat, Asia ez beste bat, zela demostratu arte. Nuñezen deskubrimenduaren ondotik Erdialdeko Amerikaren konkista etorri zen. Egileak liburu honetan kontatzen digu nola konkistatu zen Erdialdeko Amerika, geldi-geldiro, ia 200 urtez, harik eta Taiasal, azken maia hiri librea errenditu zen arte.

Egilea, Germán Vázquez, Amerikako Antropologian eta Historian espezialista da. Anitz liburu eta artikulua argitaratu ditu Amerikako kulturen eta konkistaren gainean.

- C) Nola irauin dezakete zutik etxe-orratz izugarri garai horiek? Nola eraikitzen da petrolio plataforma bat itsasoaren erdian? Nola zulatu zen Mantxako kanalaren itsaspeko tunela?

Bilduma honetan, horiek nola gertatu ziren ikasiko duzu, eta gauzak barrendik nola diren, nola diharduten edo nola eraikitzen diren, maketa tridimentsionalen argazkiak lagun, eta informazio argi eta zehatzarekin.

2.2 ■ Egunkariak

Egunkaria, gaur ezagutzen dugun bezala, Ingalaterran sortu zen, XVIII. mendean. Lehenbiziko egunkaria *Daily Courrant* izan zen (1702). Hala ere, Antzinateko Erroman, horretan jarritako panelen bidez zabaltzen ziren Inperioan gertatzen ziren gauza inportanteak. Erdi Aroan berri-salerosleak agertu ziren, portuetan *Abisua*k saltzen aritzen zirenak, hau da, eskuz idatzitako orri batzuk, ez titulu ez sinadurarik ez zutenak.

Espanian, XVIII. mendean hasi ziren argitaratzen lehenbiziko berri-paper hamabosteroakoak edo hilerokoak. "Papeles Periódicos" izena izaten zuten. Hortik heldu zaie gaur gaztelaniaz duten izena. Liburudendetan edo kaleko postuetan saltzen ziren eta itsuek edo kazeta saltzaileek oihuka iragartzen zituzten. *El Diario Noticioso, Curioso, Erudito, Comercial y Político* (1758ko otsailaren 1ean) izan zen Espainiako lehenbiziko egunkaria. Euskaraz, berriz, 1937an hasi ziren euskarazko egunkari bat, *Eguna* izenekoak, sortzeko lehenbiziko saioak.

EGUNKARIA KANPOTIK

Egunkari bateko lehenbiziko orrialdea portada edo lehen plama da, eta azkena, berriz, kontraportada. Bietan egunkariaren gaineko datu orokorrak egoten dira: izenburua, editorea, editorearen helbidea, eta abar. Egunkari batzuek argazki handia edukitzen dute portadan; beste batzuek, berriz, testua, gainerako orrialdeetan bezala.

EGUNKARIA BARRENDIK

Egunkariak testu eta grafikoen bidezko informazioa edukitzen du. Egunkariko testuak berrien arabera antolaturik egoten dira. Berri bakoitzak titulu bat edukitzen du aurrenik, informazio osoa esaldi batean laburbiltzen duena. Berri batzuek sarreratxo bat ere izaten dute, informazioa lerroalde bat edo bitan laburbiltzen duena, eta ondoren testu osoa etortzen da.

.....

Egunkariak atal bat baino gehiago izaten ditu: Nazionala, Nazioartekoa, Gizartea, Lokala, Ikuskizunak, Ekonomia, Telebista eta abar.

Titularra

Berriaren testua

kultura

DEIALDIAK

Euskal Kantu Txapelketan izena emateko epea larunbatean ixten da

Aurtengoak, XI. edizioak alegia, partehartzearena izan nahi du

M.S. ARANA

Urteak urtera, gero eta espontaneia gihagoen da ezabaren Euskal Kantuaren Elkarteak antolatzen duen Euskal Kantu Txapelketa. 1986. urtean egia zen lehen edizioa, orduz geroztik, bostan da, urte ugari pasa da, baina, horretan batera, edota edizio ugari pasa izanarri ehor, emal kantak berrikaratu da ia erabat galduta ezkan esparrua. Kantari on ugari igo da txapelketa honen itzara, eta horietako zenbait kantuzan jarrizten dira, modu profesionalean orain (berri Txapelketa Gorka Urbau, Salazarriak, Iñaki Letiza, Goizategiko Higo Goiborrea, ...).

Txapelketan heldu baino urte bat lehenetara, antolatzaileen esanetan, egoera berria berrikon moduko zuzen "1985. urtean, nafarroko hainbat elkarri gertu zuten ezan izenka. Aita Doroitxak edota Resurreccion Maria Añitxak XX. mende hasieran hasi behar izan bido kantuztegiak hantze berrak ziren, berazik gantek hortik ezabaren bat berrikeri ez zuten ezagutzen eta, are larriago zena, heldu galduta zegoen baina goren sen oharra, kantuztearen laguntzaren, berriko kantak, kantuztegiak".

Guzak berria, 8an Iruleko Zaldiko Madiko Kultur Elkarteak, Elizondoko Barandaren Bilbatarrak eta Leizako Aurrera elkarteak antolatzen zuten lehenengo txapelketa.

17 urte pasata
1987, 1989, 1991, 1995, 1997,



V. IZKODIA 1995. urteko txapelketan parte hartu zuen talde bat.

1999, 2000, 2001 eta 2002 garren urteetan ere, burutu izan dira Euskal Kantu Txapelketak Nafarroan. Lehenengo edizioan ezarri behar berberak mantendu izan dira urte hauetan gantzen txapelketak. "Euskal kantuztegiak zabaldu eta erakustarantz, kantuztegi zaldetara puztu eta kantari berriak plazaeratu".

Norri hantze baten berri dira hurbur hasita, baina lan handia dago oraindik egiteko. Maita izate

Gero eta garrantzi gehiago ematen zaio argungo musikarekin uztartze lanari

gorte eberridin auzotako kantuztegi igo dira ezabotzeko oholo hantzean nahar. Edonahi ere, antolatzailek dioten berria, "zuzen zuzen er da txapelketa bera, berriki eta kantuztegi biltzea eta kantuztegi inguruko festa egitea", izan ere urte ekonomiko zuzenki ez biltzea. Hala ere magi artu diren hantze jantzen jantzen dute, zuzenki lagunduz, hantzeak berri, txapelketa edota zuzenki ekipoak ez zuten okutu izate.

XI. EDIZIOA

Aurtengo edizioan, ohidien bitartean, 15 urteko erabak edoretan har dezake parte, kantari amateuak berri ere. Bakarka, biltzen edo taldean (1 eta 10 lagun artekoak). Kantu zahar eta berriak eman daitezke, herrietan eran. Arreta berezia mercedak dute kantuztegi amateuak bitzak edota melodiak, sormenak. Espalmentuak kantuztegi izanen dute delonua, bitzak, abestia, trebeziak, interpretazioak, kantuztegi ekarpena, sabeladak. Kantuztegi ahal berriko musika laguntza eraman ahal izanen du, baina beste ez zuten gantuztegi kantuztegi biltzeko da. Bostetik, partehartzaileak mailaren garrantzia dute eta, auzotako auzotako partehartzaileko maila berri bat egite dute. Maila hantzean auzotako, txapelketan finalera irizti izana izango da irizteko nagusia. Taldean partehartzaile biltzeko ere ezabali dute antolatzailek, "Euskal Kantu biltzeko eta auzotako dagoen auzotako edozeintakoa irudizten zaigu eta". Auzotaren kan bantuztegi da lehen kanpuztegi, Etxarriko Kultur Etxean baina oraindik izena eman daiteke kantuztegi edozein (48541817) edota nafarroko edozein irizte ezabotzeko. Berrak, musikatzailek asparraren nahi izan dute berrak berrak XI. edizio kan Nafarroako Gobernuko Herkuntza Departamentuan, Nafarroako Iñaki Korta eta auzotako auzotako laguntzaik gabe ezin ote buruz.

JARDUERAK

- 1) Egunkari bat barrendik begiratu eta aurki ezazu non diren arestian aipatu ditugun elementuak.
- 2) Egunkari baten aurkibidean, bila ezazu zer berri edo zer atal dauden egunkarian.
- 3) Irakurri zenbait titulu.
- 4) Egunkariko artikulua bat ebaki, orri batean erantsi, eta esan zer den titulua, zer den sarreratxoa eta zer testua. Irakur ezazu.
- 5) Norbaitek proposatu du Institutuan paretako egunkari bat egitea, hau da, paretako ohol batean egunkarietatik ebakitako berri sail bat jartzea. Begiratu egunkari inprimatu bateko atalak eta pentsa ezazu zer atal proposatuko zenituzkeen paretako egunkari horretarako.

▶

2.3 ■ Dokumentu elektronikoak

Ordenadoreak garatuz joan diren heinean dokumentu mota berriak ere agertu dira, pantailaren bidez irakurri, ikusi eta aditzen direnak. Horietako batzuk, ukitu daitezkeen objektuen itxuran iristen zaizkigu, hala nola CD-ROMak; Beste batzuk, web orrialdeak kasu, soilik sare telefonikoetan dabilzan dokumentuak dira eta ezin har daitezke esku artean.

Gaur egun, lehen forma inprimatua besterik ez zuten dokumentu asko aurkitzen ditugu bertsio elektronikoan. Adibidez, hiztegiak eta entziklopediak, egunkariak eta aldizkariak, telefono zerrendak, kale-aurkitegiak eta abar.

CD-ROMAK KANPOTIK


CD-ROM direlako siglek Compact Disc Read Only Memory esan nahi dute (soilik irakurtzeko den disko trinkoa). CD-ROMa 12 cm.ko diametroa duen diskoa da, eskuarki plastiko kaja batean aurkeztua, identifikazio datuak karatula ilustratu batean inprimatuta edukitzen dituena. Datu horiek ez dira beti berak, baina maizenik hauek behintzat izaten dira:

- Titulua
- Egilea
- Argitaletxea
- Argitaratu den urtea
- Zuzendari artistikoa
- Zuzendari teknikoa




Karatulan, diskoaren edukiari buruzko informazio zerbait ere egoten da, eta bai diskoak zer baldintza tekniko dituen eta nola instalatu eta erabili behar den ere azaltzen.

Datu horietako batzuk diskoan bertan inprimatuta ageri dira.



.....

CD-ROMAK BARRENDIK



CD-ROMaren barrerean zenbait artxibo informaticoko egoten dira, askotariko informazioa grabaturik daukatenak: testuak, argazkiak, soinua, bideoak eta abar. Adibidez, CD-ROM batean 250.000 orrialdeko testua graba daiteke. Informazioa aurkezteko bide bat baino gehiago erabiltzen dituztenez gero, dokumentu hauei *multimedia* esaten zaie. Dokumentu hauek irakurtzeko, behar adinako gaitasuna duen ordenadore bat behar dugu eta "nabigadorea" esaten zaion programa berezia ere bai.

CD-ROM baten edukian barrena mugitzeko edo informazio batetik bestera pasatzeko, tekla-ohola edo sagua erabili behar dugu, ikono bat edo beste bat sakatuz edo ireki nahi dugun testuaren gainean klik eginaz, ordenadoreari zer nahi dugun adierazteko.

JARDUERAK

- 1) CD-ROM bat hartu liburutegitik eta ondorengo datu hauek osatu karatula kontsultatuz:
 - ▶ Titulua
 - ▶ Egilea
 - ▶ Argitaletxea
 - ▶ Argitaratzearen urtea
 - ▶ Zer ordenadore behar den hura irakurtzeko
 - ▶ Karatula irakurri eta esan zein den CD-ROMaren gaia

- 2) Esan zer esan nahi duten honako ikono hauek:



- 3) CD-ROM hau ordenadorean begiratu eta konproba ezazu ea karatulako informazioa behar adinako den CD-ROMaren edukiaz jabetzeko. Idatzi zer ikusi duzun eta zer iruditzen zaizun.

▶

▶

2.4 ■ Web orrialdeak

Web orrialde bat arxibo informatiko bat da. Testua edukitzen du, Internetez hedatzeneko moduko formato berezi batean eta, horrez gain, grafikoak, irudiak, soinua eta bideoa ere eduki ditzake. Web hitza ingelesezkoa da eta "amaraura" esan nahi du, armiarma-sarea alegia, eta sare informatikoen bidez elkarri lotutako orrialde pila baten irudia ematen du.

Web orrialdeak ez daude numeratuta eta orrialde esaten bazaie ere ez dira liburuetako orrialdeen tamainakoak, askozaz luzeagoak baizik batzuetan. Ez dira orriak banaka pasatuz irakurtzen, testuan gora eta behera mugituz baizik. Orrialde guztietan honako elementu hauek behintzat egoten dira:



- **URL:** orrialdearen helbidea.
- **Izenburua:** : orrialdearen titulua izaten du, zenbait ilustrazio eta abar.
- **Gorputza:** testua, ilustrazioak eta abar izaten ditu.
- **Oina:** orrialde arduradunaren datuak, azken eguneratzearen data, posta elektronikoko helbidea eta antzeko beste datu batzuk izaten ditu.
- **Loturak edo hiperloturak:** azpimarratuta dauden zenbait irudi edo hitz dira, koloredunak, web orrialde hori beste orrialde batzuekin lotzen dituztenak. Lotura baten gainean klik egiten duzunean, nabigadoreak automatikoki hiperlotura horren orrialdea bilatzen du eta zure pantailan agerrarazten.
- **Markoak:** Web orrialde batzuek eremu bat baino gehiago izaten dituzte, markoak esaten zaienak; bakoitzean informazio beregainekoak egoten dira eta batetik bestera pasatzeko aukera ematen dute.

.....

JARDUERAK


- 1) Ondorengo web orrialde honetan, esan zein den titulua, eta orrialdearen ardurduna, URL, gorputza eta loturaren bat seinalatu.



Alegiazko orrialdea, liburu honetako jarduera egiteko propio sortua

- 2) Konpara itzazu egunkari baten bertsio inprimatua eta bertsio elektronikoa. Hartarako, egunkariaren ale bat hartu eta sar zaitez Interneten egun bereko eta egunkari beraren bertsio elektronikoan. Begiratu honako xehetasunak:
 - ▶ Berri nagusia bera al da? Bai Ez
 - ▶ Bigarren mailako berriak berak al dira? Bai Ez
 - ▶ Aurkibidea bera al da bietan? Bai Ez
 - ▶ Zer ordutan eguneratua dago azken aldiz bertsio elektronikoa?
 - ▶ Ba al da azken orduko berriren bat bertsio elektronikoan, inprimatuan ageri ez dena? Bai Ez Zein?
 - ▶ Zure ustez, zein bertsio irakurtzen da errazago?
 - ▶ Zeinek eskaintzen ditu aukera eta zerbitzu gehiago?

- 3) Irakurri honako iritziz hauek dokumentu inprimatuaren eta dokumentu elektronikoen on-gaitzen gainean. Ondoren, diskuti ezazu zure lagunekin gai beraren gainean:
 - ▶ Nire ustez liburuak praktikoagoak dira, edonon irakur ditzakezulako, inongo aparaturik erabili gabe.
 - ▶ Nik, berriz, nahiago ditut dokumentu elektronikoak, soinua eta irudi bizidunak edukitzen baitituzte. Telebistaren antzekoak dira.
 - ▶ Niri iruditzen zait unean unean zer behar duzun, horren arabera izango dela bata ala bestea hobe. Batzuetan liburu bat izan da hoberena eta beste batzuetan Interneteko dokumentu bat. Biek dituzte abantailak.
- 4) Osa ezazu ondorengo eskema, unitate honetan ikasi dituzun dokumentu mota desberdinen gainean.



.....

3. Nola erabili dokumentu bakoitza ikerketa lanak egiteko

.....

Dokumentu mota bakoitzak bere gisako informazioa ematen du, eta zer behar dugun eta zer baliabide ditugun, horren arabera hartuko dugu bat edo bestea. Adibidez, datozen egunetan zer eguraldi izanen den jakin nahi baduzu, egunkariak edo Internet kontsultatu beharko dituzu, horiek informazio eguneratua emanen baitizute. Baina Egipto zaharrek bizimoduari buruzko jakingaiak behar badituzu, berriz, hobeko da liburuak eta entziklopediak kontsultatu.

Kasu, ordea! Lanak egiteko dokumentu mota bat ala bestea erabili, beti-beti aipatu behar duzu nondik hartu dituzun informazioak, hitzez hitzeko aipamenak eta abar. Ikertzaile guztiek erabiltzen dituzte beste norbaiten ezaupenak sakontzen segitzeko, baina argi esan behar da norengandik hartzen diren ideiak, esaldiak, eta abar. Zer dokumentu mota den, halako datuak aipatuko dira:

■ Liburu edo CD-ROM bat bada:

Egilearen deitura, izenaren inisiala(k): *Titulua*. Non argitaratua, argitaletxea, argitaratze urtea.

- Adibidez: Pearson, Anne: *Zer dakigu Grekoen gainean?* Madril, SM, 1998.

■ Aldizkari edo egunkari bateko artikulua bada:

Egilearen deitura, izenaren inisiala(k): "Artikuluaren Titulua", *Aldizkariaren titulua*, argitaratzearen urtea, aldizkari zenbakia, artikulua lehen orrialdeko zenbakia-azken orrialdeko zenbakia.

- Adibidez: "Pinguinoa", *Okapi*, 2002, 6, 24-25.

Aurreko adibideko artikuluan ez zen egilearen izenik ageri eta horregatik datu guztiak aipatzen dira hori ezik. Hori gertatzen bada, edo dokumentuak hiru egile baino gehiago baditu, egilearen izena ez beste datu guztiak aipatu behar dituzu.

■ Web orrialde bat bada:

Helbidea edo URL eta zer datatan kontsultatu zenuen.

- Adibidea: <http://www.muyinteresante.es> (2002-10-5ean kontsultatua)

4. Ez ahaztu

-
- Liburutegi batean askotariko dokumentuak aurkitzen dira, ez liburuak bakarrik.
 - Dokumentu bakoitzak egitura diferentea du, ongi erabiltzekotan jakin beharrekoa.
 - Garai bakoitzean unean uneko ezagupen teknikoak aprobetxatzen dituzten dokumentuak agertzen dira.
 - Lan bat egiteko dokumentu bateko informazioa erabiltzen duzun bakoitzean, lanaren bukaeran aipatu behar dituzu.
-

5. Osa ezazu dakizuna internetez

.....

- Liburuen gaineko jakingai guztiak:

<http://www.portaldellibro.com>

- Prentsaren historia laburra:

<http://www.quadraquinta.org/documentos-teoricos/cuaderno-de-apuntes/brevehistoriaprensa.html>

- Euskal literatur aldizkarien gordailua (Ibiñagabeitia proiektua):

<http://www.armiarma.com/andima/info.html>

- Aspaldiko egunkarien galeria:

<http://www.quadraquinta.org/materiales-didacticos/cuaderno-de-ejercicios/periodicos-antiguos/galeria/galeriadepublicos.html>

- Bertsio elektronikoko egunkariak:

<http://www.berria.info/azala.php>

<http://www.elpais.es>

<http://www.elmundo.es>

<http://www.zabalik.com>

- Aldizkari elektronikoak:

<http://www.habe.org>

<http://www.aprendejugando.com>

<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/>

<http://www.libroadicto.com>

<http://www.argia.com>

<http://www.zabalik.com>

6. Zer ikasi duzu?

.....

- ▶ Liburutegiek zenbat dokumentu mota eskaintzen dituzten ikasi dut.

Bai Ez


- ▶ Dokumentu mota batzuen oinarritzko datuak zein diren antz ematen ikasi dut.

Bai Ez

- ▶ Nire lanetan erabiltzen ditudan iturriak aipatzen ikasi dut.

Bai Ez

.....



3

NOLA BILATU INFORMAZIOA
LIBURUTEGIETAN (I)



1. Ba al zenekien?

Liburuzainen ardura da liburutegian gordeta dauden dokumentuak edonork ahalik eta azkarren aurkitu ahal izateko lan egitea. Lan horren parte bat pistak ematea da dokumentu bat beste dokumentu guztien artean aurkitu ahal izateko.

Unitate honetan ulertuko dugu liburuzainek utzitako pista horiek nola erabili behar diren dokumentuak aurkitzeko.

2. Ba al dakizu zer den liburutegi baten katalogoa?

Katalogoa fitxa sail bat da, zeinetan liburuzainek liburutegian sartzen den dokumentu bakoitzaren datu nagusiak anotatzen dituzten. Fitxa bakoitza dokumentuaren "nortasun agiria" edo izango da, datu hauek hornitua:

- Egilearen izen-deiturak
- Titulua
- Argitaratzearen tokia, urtea eta argitaletxea
- Ezaugarri fisikoak (orrialdeak, ilustrazioak, iraupena ikus-entzunezko dokumentua bada eta abar).
- Bilduma
- Nota bibliografikoak
- ISBNa, hau da, liburu bakoitzaren identifikazio zenbaki eksklusiboa.
- Gaia


Hona hemen eskuzko katalogazio fitxa baten eredu bat:

75 Antoine, Véronique
VER Picasso: egun bat bere estudioan/Testua, Véronique Antoine;
pic itzulpena, Juantxo Urdiruz. –Iruña: Igela, 1992. –55 orr. [3] h. :
il. kol. ; 25 cm. – (Pintoreen baratzea, 5)
ISBN 84-207-4763-7
I. Picasso

Fitxa bakoitzean informazio asko jasotzen da toki gutxian eta datu mota bakoitzak bere bere tokia izaten du; adibidez, titulua beti toki berean idazten da eta gauza bera gertatzen da gainerako datuekin. Hortaz, fitxaren egitura hori berdina da edozein dokumenturentzat eta datu bat fitxan non dagoen ikustea aski da jakiteko zer den.

2.1 ■ Eskuzko katalogoa eta katalogo informatizatua

Dokumentu guztien fitxak alfabetoaren arabera ordenatzen dira eta horrela sortzen da katalogoa. Katalogoak liburutegi batean nahi dugun dokumentua badagoen ala ez jakiteko balio du. Liburutegi publiko gehienetan kajoiekiko altxari batzuk ikusiko dituzu, barrenean fitxen kopiak dauzkatenak, hiru modutara antolatua:



Kartulinazko fitxak dituen katalogo hau eskuzko katalogoa da, eskuen bidez antolatu eta erabili egiten delako: fitxak kajoietan ordenatzen hasi eta fitxak bilatzeko momenturaino, eskuz pasatzen baitira, banan banan.

Gaur egun, ordea, dokumentuen datuak ordenadore batean sar daitezke, eta eskuzko katalogoak gutxinaka desagertu eta haien ordez katalogo informatizatuak jartzen ari dira gero eta toki gehiagotan. Ikastetxe eta institutuetaiko liburutegietan liburutegia informatizatzeke programa bat erabili ohi da: ABIES.

.....

Datuak eremu deritzen gune batzuetan idazten dira. Datu mota adina eremu daude. Fitxa guztiak ordenadoreko disko gogorrean artxibatzen dira eta kontsultak pantailaren bidez egiten dira.

Aldatu dokumentua

Datu nagusiak | Datu gehigariak | Alearen datuak

Dokumentu-mota Argitalpen-urtea

Egilea

Beste egile batzuk

Titulua

Tituluaren gainerakoa

Portadaren gainerakoa

Kokapen-lekua Argitalpen-urtea

Argitalpen-urtea Argitalpen-zk


Bilduma Zerbakia

Onartu Utzi Laguntza

Gaur egun katalogo informatizatuak erabiltzen badira ere, litekeena da zenbait liburutegitan eskuzko katalogoak erabili behar izatea, maiz aski ordenadorean ez baita egoten data batetik aurrera sartutako dokumentuak besterik; horregatik eskuzko katalogoa oraindik ere beharrezkoa da lehenago sartutako dokumentuak bilatzeko.


2.2 ■ Liburu bakoitzak bere tokia eta toki bakoitzak bere liburua

Liburuak katalogatzeaz gain, liburuazainek etiketa bat eransten diete kanpotik. Bertan liburuaren signatura idatzita dago. Signatura hori zenbaki eta letrazko kode bat da, delako dokumentua non dagoen adierazten duena. Signatura katalogoko datuetan ere ageri da, dokumentu bakoitzaren fitxan. Begiratu ongi liburuazain baten lana ilustratzen duen marrazki hau:



Liburuak ordenatzeko ez ezik, signaturak liburuak bilatzeko ere balio du. Signatura batek honako elementuak izaten ditu:

- Saillapen Hamartar Unibertsalaren zenbakia.
- Egilearen deiturako lehenbiziko hiru letrak, maiuskuletan;
- Tituluko lehenbiziko hiru letrak, liburua erdarazkoa bada artikulua kontatu gabe, minuskuletan.



BAR dira Alberto Barandiaranaren deiturako lehenbiziko hiru letrak;
gai, tituluko (*Gaizkileen Faktoria*) lehen hitzeko (*Gaizkileen*) lehenbiziko hiru hitzak dira.

LAL Fernando Lalanaaren deiturako lehenbiziko hiru letrak;
Sec *Secreto-ren* lehenbiziko hiru letrak dira, tituluko (*El secreto de la arboleda*) lehen hitza baita, artikulua (*el*) kontatu gabe.
 Zenbakiak, Saillapen Hamartar Unibertsalaren arabera liburuak duen gaia adierazten dute. Kasu honetan, 82-36 zenbakia Narrazio Fantastikoei dagokie.



Fikziozko liburuak generoen arabera sailkatzen dituzten liburutegietan, signaturak honako osagaiak izaten ditu:

- Liburuaren generoari dagokion letra.
- Egilearen deiturako lehenbiziko hiru letrak, maiuskuletan.
- Tituluko lehenbiziko hiru letrak, artikulua kontatu gabe, minuskuletan.

Aurreko bi adibideetan, signatura N-BAR-gai eta N-LAL-sec izango litzateke, biak nobelak baitira.




Apalategietan liburuak sailkapen zenbakiaren edo generoaren arabera (zein sailkabide den) ordenatzen dira aurrena. Ondoren, zenbaki edo genero bakoitzaren barnean, alfabetoaren arabera ordenatzen dira, egilearen lehenbiziko hiru letrak kontuan hartuta. Egile beraren liburuak tituluko hiru letren arabera ordenatzen dira.



JARDUERAK

- 1) Begiratu eskuzko katalogo batetik hartu dugun fitxa hau. Piero Venturaren *Janzkiak* liburuari dagokio. Fitxa honetan datu bakoitza zeri dagokion seinalatu dugu.



- 2) Idatz ezazu fitxa honen inguruan datu bakoitza zeri dagokion, aurreko adibidea eredu hartuta.

50 Pollock, Steve
POL Ekologia /Steve Pollock ; Mikel Iriarte Zilbetik euskaratua
eko . —Madrid: Altea, cop. 1994. —64 orr. : il. kol.; 28 cm.—
(Zientzia ikusgai Altea; 10)
ISBN 84-372-4545-1
1. Ekologia 2. Ekosistemak 3. Energia

- 3) Esan ezazu zein den signatura fitxa hauetan:
- 4) Apalategietatik bi liburu hartu eta honako datu hauek nota itzazu::

1. LIBURUA	2. LIBURUA
▶ Egilea	▶ Egilea
▶ Titulua	▶ Titulua
▶ Signatura.....	▶ Signatura
▶ Zenbatgarren apalean dagoen.....	▶ Zenbatgarren apalean dagoen.....
▶ Signatura zenbakia eta dagoen apalaren zenbakia bat bera dira? Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	

- 5) Maiuskuletan idatzi honako egile hauen deiturretako lehenbiziko hiru letrak:
 - ▶ Bernardo Atxaga
 - ▶ Elvira Lindo
 - ▶ Itxaro Borda
 - ▶ Alejandra Vallejo-Nájera
 - ▶ Joan Manuel Gisbert
 - ▶ Jon Mirande Aipasorho
 - ▶ Astrid Lindgren

- 6) Minuskulan idatzi titulu bakoitzeko lehenbiziko hiru letrak, artikulua kontuan hartu gabe liburua erdarazkoa bada:
 - ▶ *La historia de los grandes inventos*
 - ▶ *Euskal Musika*
 - ▶ *Sukaldaritzako hastapenak*.....
 - ▶ *El mundo de Sofía*.....
 - ▶ *Inork ikusi al ditu guraizeak?*.....
 - ▶ *La tienda de las palabras*.....
 - ▶ *Al borde del Nilo, los egipcios*.....
 - ▶ *Morfeo Padilla, soñador de sueños ajenos* ..
 - ▶ *Zeru horiek*

- 7) Begiratu adibide hauek; Terry Jennings-en *Kimika Erraza*, eta Didier Pélaprat-en *El hombre y su cuerpo* obretatik hartu ditugu. Ondoren ageri diren testuak osatu gabe daude. Osa itzazu:

54
JEN
kim

61
PEL
hom

7.1) Kimika erraza Terry Jennings-ena

JEN honako egile honen deiturako lehen hiru letrak dira:

kim honako hitz honen lehen hiru letrak dira, tituluko lehen hitza baita (.....)

54 zenbakia honako gai honi dagokio:


7.2) El hombre y su cuerpo, Didier Pélapratena

PEL honako egile honen deiturako lehen hiru letrak dira:

hom honako hitz honen lehen hiru letrak dira.....,, tituluko lehen hitza baita (.....),

61 zenbakia honako gai honi dagokio:

– 8) Lot itzazu honako signatura hauek dagokien liburuarekin:



A

B

C

D

1

2

3

4


N
DIC
ita

N
PYL
lib

N
STE
alt

N
VER
mun

– 9) Apal honetan liburu batzuk ez daude bere lekuan. Begiratu signaturak eta marka ezazu gorritz zein diren gaizki daudenak:



.....

ESKOLAKO LIBURUTEGIAN NOLA IKASI ETA IKERTU. ERABILTZAILEAK PRESTATZEN
3. Nola bilatu informazioa liburutegietan(1)

- 10) Ausartuko al zara honako liburu hauen signatura osatzen? Errazago izateko, bakoitzaren CDU zenbakia jarri dugu:
 - ▶ *Heriotza Mendebaldean eta Euskal Herrian*. Murgil taldea. 393
 - ▶ *La conquista del aire*. María Martinell. 629
 - ▶ *Akuarioko arrainak*. David Ford. 597
 - ▶ *Balenontziak*. Pedro Quesada. 629
 - ▶ *Animalien kamuflajea*. Anita Ganeri. 59
 - ▶ *El cielo y el espacio*. Pierre Kohler. 52
 - ▶ *Kulturaren enigmak*. Marvin Harris. 39
 - ▶ *Enviado especial al Polo Sur*. Luis Pancorbo. 07

- 11) Numera los siguientes títulos pensando en el orden en que estarían colocados en la balda:
 - ▶ *Arrainak*. Alwyne Wheeler
 - ▶*Arrain harrigarriak*. Mary Ling
 - ▶*Akuarioko arrainak*. David Ford
 - ▶*Arrainen mundu liluragarria*. Efrén Quintanilla
 - ▶*Itsasertzak*. Sue Swallow
 - ▶ *Marrazoak*. Jane Walker
 - ▶*Arrainen bizitza*. Maurice Burton
 - ▶ *Arraina*. Sabine Krawczyk

2.3 ■ Nola kontsultatzen da eskuzko katalogo bat?

Liburutegi batean dokumentu baten bila zabiltzanean, egoera bat baino gehiagotan aurkitzen ahal duzu zeure burua:

- Ez zabilta dokumentu jakin baten bila; besterik gabe zerbait irakurri nahi duzu eta apalen artean paseoan zabilta, arreta deitzen dizuten liburuak gainetik begiratu. Kasu honetan ez duzu katalogoa kontsultatu beharrik.
- Dokumentu jakin baten bila zabilta eta egilearen izena edo titulua badakizkizu. Datu horiek erabili beharko dituzu kasuko katalogoetan bilatzeko (egilea baldin badakizu, egileen katalogoan, eta titulua badakizu, tituluaren katalogoan).
- Gai baten gaineko dokumentuen bila zabilta baina dokumentu jakinik ezagutu gabe. Zure interesekoak izan daitezkeen dokumentu batzuen datuak eskuratu beharrean zaude. Gaien arabera bilatu beharko duzu.


2.4 ■ Gaien araberako kontsulta

Katalogoak kontsultatzea oso gauza erraza izan daiteke, dokumentu jakin bat bilatzen dugunean, edo korapilatsu xamarra beste batzuetan, adibidez gaien araberako kontsulta egiten dugunean.

Bai eskuzko katalogoan eta bai informatizatuan, hitz solte gutxi batzuen bidez ematen da aditzera zer gai duten dokumentuek; hitz horiei deskriptore, hitz gako edo gai deritze. Gai bati buruzko dokumentuen bila zabiltzanean, aurrena buru-lan pixka bat egin beharko duzu gai hori bi-hiru substantiboren bidez laburbiltzeko, deskriptore horiek beti izen arruntak edo izen bereziak baitira, behin ere ez aditzak edo adjektiboak. Adibidez: ibaien kutsadurari buruzko dokumentuak eskuratu nahi badituzu, hitz gakoak **kutsadura** eta **ibaiak** izanen dira edo, erdarazko liburuak bilatu nahi badituzu, **contaminación** eta **ríos**. Zure laneko titulua adibidez, *Kutsatzea ala erreziklatzea? Guztion konpromisoa* izanen bada, bilatzeko erabili beharko dituzun substantiboak **erreziklaje** eta **kutsadura** izanen dira edo, erdaraz, **reciclaje** eta **contaminación**.

Ez baitakigu liburuzainak zein deskriptore erabili dituen katalogatzean, saio eta proba batzuk egin beharko ditugu asmatu arte. Batzuetan esangura bereko hitzekin egin beharko dugu proba (sinonimoekin), eta beste batzuetan orokorragoko hitzekin, zure ideia zabaltzeko, edo, alderantziz, zehatzagoko hitzekin gaia konkretatzeko. Horretarako hiztegiak oso lagungarriak izango dituzu.

Gaien araberako eskuzko katalogo batek, deskriptore edo hitz gakoaren orden alfabetikoaren arabera sailkatzen ditu obrak. Deskriptore horiek fitxaren goialdean idatzita ageri dira. Bilaketa mota hau aski nekoso da, askotan gai bat baino gehiago baitago bilatzen duzunarekin lotua.



Hitz bat bilatzen ari zarela, batzuetan hitz horretan *ikus* mezua (erdaraz *ver*) dauzkan fitxa bat aurkituko duzu: horrek esan nahi du gai hori adierazteko beste hitz orokorra-go bat hautatu dutela edo esangura bereko beste hitz bat (sinonimoa).

- **Orkestra sinfonikoa**
Ikus Orkestra
- **Txotxongilo antzerkia**
Ikus Txotxongiloak
- **Inurriak**
Ikus Intsektuak

JARDUERAK

- 1) Pentsa ezazu zer esku-katalogotan bilatuko zenituzkeen honako liburu hauek eta idatz itzazu dagokion zutabeen kontsulta egiteko erabiliko zenituzkeen hitzak:

Bila zabilzan dokumentua	Egilea	Titulua	Gaia
Miguel Delibesen liburu bat			
<i>Eraztunen jauna</i> filmak oinarri duen liburua			
Zakurrei buruzko liburu bat			
Xabier Lizardiren poema liburu bat			
Mendizaletasunari buruzko liburu bat			
Herri musikari buruzko liburu bat			
Arturo Pérez-Reverteren <i>Alatriste kapitainaren abenturak</i> saileko liburu bat			
<i>Behi baten memoriak</i> liburua			

- 2) Orain, egin ezazu ariketa bera beste dokumentu klase batzuekin: diskoak, bideoak, CD-ROMak, aldizkari artikulua, eta abar.

Bila zabiltzan dokumentua	Egilea	Titulua	Gaia
Estopa-ren kasete bat			
<i>Galaxietako Gerra</i> filmaren bideoa			
Aldizkari artikulua bat morsen gainean			
Antartidari buruzko bideo bat			
Matematika CD-ROM bat			
Mozarten compact-disc bat			
<i>Spiderman</i> DVDA			
Basoei buruzko CD-ROM bat			
Icebergei buruzko aldizkari artikulua bat			

- 3) Iraul itzazu ondorengo gai hauek beren hitz gakoetara. Bi zutabe ematen dizkizugu: lehenbizikoan gaiak daude, esaldietan emanak, eta bigarrenean dagokien hitz gakoetan emanak. Gai bakoitza dagokion hitzekin lotu.

Gaiak

Etxebizitzak historian barrena izan duen bilakaera
 Edateko uraren eskatea Afrikan
 Haurren eritasun kutsakorrak
 Elurretan egiten diren kirolak
 Amerika latinoko herri musika

Hitz gakoak

Eritasunak, haurrak.
 Musika, Amerika latina
 Etxebizitza, historia.
 Ura, Afrika.
 Kirolak, elurra

- 4) Irakur itzazu institutu bateko ikasleek egin dituzten lanak. Zer hitz gako erabili zituzten, zure ustez, dokumentuak liburutegiko katalogoan bilatzeko? Idatz itzazu zein bere gaiaren ondoan:

- ▶ Martera joaterik ba al da?
- ▶ Diruaren jatorria
- ▶ Faraonen garaian Egipton bizitzea
- ▶ Joko Olinpikoen historia
- ▶ Nola egiten dira medikamentuak?
- ▶ Eraikin bat nola altxatu: obra baten etapak
- ▶ Hegazkinak nola asmatu ziren
- ▶ Europa trenez kurritzea

.....

- 5) Ainarak honako gai hauei buruzko dokumentuak bilatu nahi izan ditu katalogoan, baina gutxi batzuk baizik ez ditu aurkitu. Irakasleak esan dio hain hitz zehatzekin bilatu beharrean, hobe duela horiek denak gai orokorrago batean sartu eta hura erabiliz kontsulta berriro egin. Lagunduko al diozu delako hitz orokorra bilatzen, hitz multzo bakoitza bilduko lukeena?:
 - ▶ Enara, txantxangorria, birigarroa, txolarrea, urretxindorra, karnaba:
 - ▶ Amona, aita, alaba, ama, semea, aitona:
 - ▶ Laranja, limoia, pomeloa, lima, mandarina:.....
 - ▶ Etxea, pisua, apartamentua, estudioa, txaleta:.....
 - ▶ Dominoa, damak, xakea, kartak, partxisa:
 - ▶ Ikusmena, entzumena, ukimena, gustua, usna:.....

- 6) Unai Paularen alderantzizko problema du: liburutegiko katalogoa kontsultatu du, ondoren ageri diren hitzen arabera, baina dokumentu gehiegi aurkitu ditu, eta zein hartu ez dakiela gelditu da. Irakasleak esan dio gaia gehiago zehaztu behar duela, eta horretarako gai orokor bakoitzaren barreneko hitzak hartu behar dituela; horrela gai zehatzagoa hautatuko du bere ikerketarako. Lagunduko al diozu horretan?:
 - ▶ Elikagaiak:
 - ▶ Kirolak:
 - ▶ Erljioak:.....
 - ▶ Intsektuak:.....
 - ▶ Komunikabideak:

3. Ez ahaztu

- Liburuzain lanaren helburua da liburutegiko dokumentuak errazago kontsultatzen laguntzea. Hartarako egiten dituzte katalogoak eta signatura bat jartzen diote dokumentu bakoitzari.
- Katalogoak erabiltzen jakinez gero, behar dituzun dokumentuak aurkituko dituzu.
- Gaien araberako kontsulta uste baino zailagoa da eta garrantzi handia du ongi aukeratzek zer hitz erabili bilaketan.

4. Osa ezazu dakizuna internetez

Koldo Mitxelena liburutegi birtualean bilaketa bat egin dezakezu egileen katalogoan, titulu katalogoan eta gaien katalogoan, haren pantaila liburutegi bateko fitxategiaren antzera antolatuta baitago.

<http://www.gipuzkoa.net/kultura/km/euskaraz>

5. Zer ikasi duzu?

.....

- ▶ Ulertu dut zer diren liburutegi bateko katalogoak Bai Ez
- ▶ Ikasi dut signatura zer den eta nola erabili behar den. Bai Ez
- ▶ Ikasi dut liburutegiko esku-katalogoa nola erabili. Bai Ez
- ▶ Ikasi dut dokumentuko gaiaren araberrako kontsultak egiten. Bai Ez



4

NOLA BILATU
INFORMAZIOA LIBURUTEGIETAN (II)



1. Ba al zenekien?

Katalogo informatizatuek anitz elementu komun dituzte eskuzko katalogoekin baina oso modu diferentean erabiltzen dira.

Unitate honetan katalogo informatizatuak nola erabili ikasiko dugu.

2. Nola kontsultaten da katalogo informatizatu bat?

Dokumentu bat katalogo informatizatu batean bilatzen duzunean, adibidez *Abies*-eko katalogoan, eskuzko katalogo batean bila zabiltzanean bezalako egoerak topatuko dituzu. Diferentzia zera da: orain, eskuzko fitxategietan bilatu beharrean, bilaketan erabiltzen ari zaren datua dagokion eremuan tekleatu, eta ordenadoreak berak konparatuko duela datua artxibaturik dauzkan fitxa guztiekin, eta datu hori daukatenak hautatuko:

- Egilea nor den badakizu, haren deitura tekleatuko duzu EGILEA delako eremuan.
- Titulua badakizu, TITULUA delako eremuan tekleatu.
- Gai jakin baten gaineko dokumentu bat bilatzen baduzu, gaia tekleatuko duzu DESKRIPTOREA delako eremuan.

2.1 ■ Abies-eko kontsulta sinplea

Abies programak bi kontsulta mota egiteko bide ematen du: *kontsulta sinplea* eta *kontsulta aurreratu*. Lehenbizikoa errazagoa da. Begiratu zer pantaila agertzen den kontsulta sinplea hautatzen dugunean:

The screenshot shows a window titled "Kontsulta" with a search form. The form includes a text input for "Barra-kodea / ISBN", a dropdown menu for "Dokumentu-mota" (set to "Denak"), a table for "Legezko gordailua" with columns "Probitzia", "Kodea", and "Urtea", and several text input fields for "Egilea", "Titulua", "Argitalebea", "Deskribatzailea", and "Bilduma". There is also a text input for "Edozein eremutako bilaketa". At the bottom, there is a checked checkbox "Bilaketa zehatza" and four buttons: "Garbitu dena", "Onartu", "Utzi", and "Laguntza".

Ikusten duzunez, pantaila honetan eremu bakoitzeko izenaren ondoan lauki zuriak daude, dakigun datua bertan idatzi ahal izateko. DOKUMENTU MOTARI dagokion laukiak gezi bat dauka eskuinaldean:



Gezi horrek esan nahi du eremu horrekin batera zerrenda edo aurkibide bat datorrela, kontsultan erabili behar dugun datu zehatza aurkitzen laguntzeko. Gezia sakatzean, zabaltzen da lista, guk behar den terminoa aukeratzeko. Eremu honek hainbat dokumentu mota aukeran ematen dizkigu: liburua, bideoa, soinu-zko grabazioa, aldizkari artikulua, ordenadoreko artxiboa, eta abar. Dokumentu mota jakinik bilatzen ez baduzu, "denak" aukera utzi beharko duzu, besterik agindu ezean aukera hori agertzen baita.

Pantailan ageri diren aukeretakoa bat "bilatu edozein eremutan" aukera da, hau da, datua zein eremutan bilatu behar den adierazi gabe. Aukera hau, Kontsulta aurreratuan ere eskura egoten dena, erosoia izan daiteke, ez baitugu pentsatu behar zein eremutan egin kontsulta, baina emaitza ez da batere zehatza izaten, zeren tekleatu dugun datua daukaten dokumentu guzti-guztiak agertuko dira, zein eremutan dagoen (Egilea, Titulua, Deskriptorea edo beste eremuak) bereizi gabe, eta banan-banan begiratu beharko ditugu guztiak nahi duguna aukeratzeko.

Pantailaren behealdean "Bilaketa Zehatza" laukia ageri da, eta aukera hori aktibatu edo desaktibatuzeko lauki bat. Aktibatuta dagoenean, nahitaezkoa da dokumentuek zeharo bat egitea kontsulta egitean tekleatu ditugun datuekin. Adibidez: *Etxe* deitura duen egile baten liburuak bilatzen baditugu, halako deituradun egilea dutenak baizik ez dizkigu aterako. Baina *Bilaketa Zehatza* delakoa desaktibatuz gero, orduan hasieran *etxe-* daukaten beste egileak ere aterako dizkigu, hala nola *Etxeberri*, *Etzegarai*, *Etzenoz*, *Etxebeltz*, *Etxebarne*, eta abar.

2.2 ■ Abies-eko kontsulta aurreratua

Kontsulta aurreratuak eremu gehiago ditu bilatzeko, eta gainera aukera ematen digu datu bat baino gehiago uztartzeko, adibidez bi deskriptore lotzeko, eskuzko katalogoetan edo kontsulta sinplean ez bezala.

Ikusten duzunez, aukera honetan eremu asko laukiaren eskuinetara dagoen gezia saktuta irekitzen den aurkibide bati lotuta daude. Ordenadoreak bere aurkibide horietan ageri den gauza baizik ez du aurkituko; horregatik garrantzi handia du hitz horiek ongi idazteak, edozein ortografi akatsek emaitza aldatuko baitu.

.....

Kontsulta ✕

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota

Barra-kodea / ISBN Legezko gordailu

Edozein eremutako bilaketa

Egilea
 Titulua
 Argitaletxea Y Urtea
 UDC Y Y
 Deskribatzaileak Y
 Aplikazioa Y
 Bilduma
 Hizkuntza

Bilaketa zehatza

JARDUERAK

- 1) Begiratu zer diferentzia dauden Abies-eko Kontsulta sinplearen eta Kontsulta aurrerratuaren pantailen artean (aurreko orrialdeetan ageri dira pantaila horiek), eta marka itzazu gorriz.
- 2) Konpara itzazu bilaketa edozein eremutan ala eremu jakin batean egin ondorengo emaitzak. Hartarako, egin itzazu honako bilaketa hauek liburutegiko katalogo informatizatuan:
 - ▶ Alberti bilatu edozein eremutan. Apunta ezazu zenbat dokumentu aurkitu diren.....
 - ▶ Orain Bilatu Alberti EGILEA delako eremuan. Apunta ezazu zenbat dokumentu aurkitu diren..... Aurreko emaitzarekin alderik bai? Bai Ez
 - ▶ Gauza bera egin ezazu ekologia edozein eremutan bilatuz. Apunta ezazu zenbat dokumentu aurkitu diren.....
 - ▶ Orain bila ezazu ekologia DESKRIPTOREA delako eremuan. Aurreko emaitzarekin alderik bai? Bai Ez
 - ▶ Zer ikusi duzu?

- 3) Gauza bera egin ezazu beste egile edo gaiekin.
- 4) Presta itzazu ondorengo kontsultak. Pentsa ezazu zer hitz erabiliko zenituzkeen bilatzeko eta zein eremutan idatziko zenituzkeen. Apunta ezazu, halaber, zer dokumentu mota aukeratu beharko zenukeen.

Zer bilatu nahi duzun	Zer hitzen bidez bilatu	Eremua	Dokumentu Mota
Ugaztunen gaineko liburu bat			
<i>Behi euskaldun baten memoriak</i> liburua			
Ea katalogoan bideorik dagoen			
Velázquez-en gaineko CD-ROM bat			
Agruparte argitaletxeko diskoak			
SM Saber liburu bilduma			
Liburutegian esku-lanei buruz dauden liburuak			
Noa-ren disko bat			
Patziku Perurenaren poema liburu bat			
Euskal Herriko antzinako irudiak			

- 5) Ireki ezazu Abies programa, *Katalogoa* hautatu eta gero *Kontsulta sinplea*. Egin itzazu aurreko kontsultak. Konproba ezazu zer diferentzia dagoen kontsulta bera *Bilaketa zehatza* aukera aktibatuta ala aktibatuta gabe egiten denean.


2.3 ■ Nola egin kontsulta datu bat baino gehiago batera erabiliz?

Katalogo informatizatuan kontsulta egiteko, datuak modu bat baino gehiagotara erabil daitezke; eskuzkoetan, ordea, ez. Dokumentu bat bilatu nahi dugunean, segur aski ideia bat baino gehiago edukiko ditugu buruan. Adibidez: egilea eta titulua, elkarrekin lotutako bi gai, egile bat eta argitaratze urtea, eta abar. Oso maiz konbinazio hauek ere gertatzen dira: *dokumentu mota* eta *titulua*, edo *dokumentu mota* eta *gaila*.

.....

Horregatik, Abies programak *Kontsulta aurreratua* delako aukera ematen du, bilatze irizpide bat baino gehiago batera erabillita aldi bakarrean bilaketa konplexua egiteko.

Kontsulta mota hau egiteko, lotu nahi ditugun datuak dagokien eremuetan tekleetuko ditugu eta horrez gain nola lotu nahi ditugun ere aukeratuko. Hori ordenadoreari adierazteko, haren hizkuntza erabili behar dugu, oso hizkuntza mugatua baita. Begiratu ondorengo pantaila honetan: tekla batzuk badaude, (Y), (O), (NO) diotenak. Horiek dira ordenadoreak ulertzen dituen hitz bakarrak ideiak lotu eta behar diren dokumentuak hautatzeko.



Kontsulta [X]

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota

Barra-kodea / ISBN Legezko gordailu

Edozein eremutako bilaketa

<input type="checkbox"/> Y	Egilea	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Titulua	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Argitaletxea	<input type="text"/> <input type="text" value="NO"/> Urtea <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	UDC	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/> <input type="checkbox"/> NO <input type="text"/> <input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> Y	Deskribatzaileak	<input type="text"/> 0 <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> NO	Aplikazioa	<input type="text"/> 0 <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> NO	Bilduma	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> NO	Hizkuntza	<input type="text"/>

Bilaketa zehatza

Abieseko kontsulta aurreratuaren pantaila

Bi lokailuok eta ukaziozko adberbioak operadore funtzioa dute hemen, ordenadoreari adierazten baitiote zer egin behar duen haien bidez lotutako datuekin. Operadore bakoitzak agindu bana ematen dio. Operadore batetik bestera pasatzeko, aski da tekla sakatzeko guk nahi duguna agertu arte. Begiratu nola erabiltzen diren:

Y lokailuak esaten dio ordenadoreari zuk nahi dituzun dokumentuak lokailu horren bidez lotutako datu guztiak izan behar dituztela. Eta horrek, beraz, murriztu egiten ditu emaitzak, emaitza horiek adierazi dizkiozun baldintza guztiak bete behar baituzte. Adibidez: jakin nahi duzu ea liburutegian zure gustuko egile baten libururik badagoen. Horretarako, lotu behar dituzun datuak hauek dira: dokumentu mota (liburua) eta egilearen izena. Honela aginduko zenioke hori ordenadoreari:

Dokumentu motan LIBURUA jarriko dut eta egilean, berriz, MATUTE, ANA MARÍA idatziko. Bien artean Y operadoreak jarriko dut, bi baldintzak bete behar direla adierazteko.



Kontsulta

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota

Barra-kodea / ISBN Legezko gordailu

Edozein eremutako bilaketa

Y Egilea

Y Titulua

Y Argitaletxea Y Urtea

Y UDC Y Y

Y Deskribatzaileak Y

Y Aplikazioa Y

Y Bilduma

Y Hickuntza

Bilaketa zehatza

Aurreko adibidean bi baldintza jarri dizkiozu ordenadoreari, eta emango dizkizun emaitzek bi-biak bete behar dituzte.

.....

lokailuak ordenadoreari esaten dio dokumentuek gutxienez ematen dizkiozun datuetako bat izan behar dutela. Adibidez: zerbait gogoratzen duzu aspaldi gomendatu zizuten liburu baten izenaz, baina bi egileren artean duda egiten duzu. Nola esango zenioke ordenadoreari?


Egilea: haietako baten deitura *O Titulua:* gogoratzen duzun zatia

Emaitza, aipatu duzun egile horren liburu batzuk izanen dira, eta titulu horretako bat edo beste, ongi jarri baduzu. Konprobatu ahal izango duzu dokumentu horien artean zuk nahi duzuna badagoen.

O horrek, beraz, daitezkeen emaitzak ugaltzen ditu, alternatiba bat baino gehiago ematen baitiztu.

Ez naiz oroitzen zer datu zituen Marinak esan zidan liburuak. Egileak Savater edo Sapater edo halako izenen bat zuen, uste dut, eta tituluaren etika aipatzen zen.

Proba egingen dut, ba. SAVATER idatziko dut egilean eta ETIKA tituluaren. O batekin lotuko ditut, eta horrela Savater horrek idatzi duen guztia eta tituluaren etika duen guztia aterako zait eta Marinak esan zidana agertzen bada, oroituko naiz. Bestela Sapater jarrita proba egingen dut.



Kontsulta

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota **liburua**

Barra-kodea / ISBN Legezko gordailu

Edozein eremutako bilaketa

Egilea Titulua

Savater

Etika

Y Argitalerria Y Urtea

Y UDC Y Y

Y Deskribatzaileak Y

Y Aplikazioa Y

Y Bilduma

Y Hizkuntza

Bilaketa zehatza

NO lokailuak ordenadoreari esaten dio datu hori daukaten dokumentuak ez hartzeko.

*Elvira
Lindoren
libururen bat irakurri
nahi nuke, baina Manolito
Gafotasen libururik ez,
horiek denak irakurri
baitituz.*



*Bilatuko dut, ba, ea
beste titulurik dagoen.
LINDO, ELVIRA jarriko dut
egilean eta tituluan Manolito
gafotas, baina NO operadorea
aurretik duela.*



Kontsulta

Ale-ek. / Erregistro-ek. Dokumentu-mota

Barna-kodea / ISBN Legezko gordailu

Edozein eremutako bilaketa

<input checked="" type="checkbox"/> Y	Egilea	Lindo, Elvira
<input checked="" type="checkbox"/> NO	Titulua	Manolito gafotas
<input checked="" type="checkbox"/> Y	Argitaletxea	<input type="text"/> Uritea <input type="text"/>
<input checked="" type="checkbox"/> Y	UDC	<input type="text"/> <input type="text"/>
<input checked="" type="checkbox"/> Y	Deskribatzaileak	<input type="text"/> <input type="text"/>
<input checked="" type="checkbox"/> Y	Aplikazioa	<input type="text"/> <input type="text"/>
<input checked="" type="checkbox"/> Y	Bikiduna	<input type="text"/>
<input checked="" type="checkbox"/> Y	Hizkuntza	<input type="text"/>

Bilaketa zehatza

.....

Operadore bat baino gehiago batera erabiltzea ere badago. Begiratu ondorengo adibi-deak:

- Xabier Lizardiren liburu baten bila zabiltza; titulua *Biotz-begietan* da. Zer aginduko zenioke ordenadoreari?

Dokumentu mota: liburu *Y Egilea:* Lizardi, Xabier *Y Titulua:* Biotz-begietan

*Lizardiren
Biotz-begietan
liburu bilatzeko,
dokumentu motan LIBURUA
jarriko dut, egilean LIZARDI
eta Tituluan BIOTZ-
BEGIETAN.*



Kontsulta

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota

Bara-kodea / ISBN Legezko gordak.

Edozein eremutako bilaketa

<input type="checkbox"/> Y	Egilea	Becquer
<input type="checkbox"/> Y	Titulua	Rimas y Leyendas
<input type="checkbox"/> Y	Argitaletxea	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/> Urtea <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	UDC	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Deskribatzaileak	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Aplikazioa	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Bilduma	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Hizkuntza	<input type="text"/>

Bilaketa zehatza

- Jakin nahi duzu liburutegian Steven Spielberg-en bideorik badagoen, baina *Jurassic Park* ez, hori lehendik etxean baitaukazu. Nola esan hori ordenadoreari?

Dokumentu mota: bideo *Y Egilea:* Spielberg, Steven *NO Titulua:* Jurassic Park.

*SPIELBERGen
bideo guztiak nahi
ditut, JURASSIC
PARK ezik, hori lehendik
baitaukat. Ea
liburutegian bat edo
bat baden.*



Kontsulta

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota

Bara-kodea / ISBN Legezko gordak.

Edozein eremutako bilaketa

<input type="checkbox"/> Y	Egilea	Spielberg
<input checked="" type="checkbox"/> NO	Titulua	Jurassic Parck
<input type="checkbox"/> Y	Argitaletxea	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/> Urtea <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	UDC	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Deskribatzaileak	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Aplikazioa	<input type="text"/> <input type="checkbox"/> Y <input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Bilduma	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Y	Hizkuntza	<input type="text"/>

Bilaketa zehatza

- Rock musika edo musika zeltazko diskoak aurkitu nahi dituzu. Nola esan hori orde- nadoreari?

Dokumentu mota: soinuuzko grabazioa *Deskriptorea:* Rock musika *Deskriptorea:* Musika zelta

*ROCK MUSIK*Ari buruzko liburu bat mailegatu nahi dut. Bueno, *MUSIKA ZELT*Ari buruzko bat ere bilatuko dut. Bietako bat aski izanen dut. O operadorea erabiliko dut.



2.4 ■ Gaien araberako kontsulta Abies-en

Abies programan gaien araberako kontsulta bat egiteko, hitz gakoa tekleatu behar dugu *Deskriptorea* delako eremuan. Kontsulta Aurreratuaren aukeran, eremu honek aurkibi- de alfabetiko bat badu, zeinetik termino zehatza aukera dezakegun.

.....

Kontsultarako aukera honek bi deskriptore edo hitz gako lotzeko bidea ematen digu, oso gauza interesgarria. Gogoan hartu ez dela batere gauza bera hitz gako bat baino gehiago erabiltzea edo hitz gako konposatua erabiltzea. Adibidez: *mahaiko jokoak* eta *komunikazio bideak* hitz gako konposatuak dira, hau da, haien osagaiak bereizten baditugu, esangura aldatzen da.

Deskriptoreak Y, O, NO operadoreekin ere lotzen dira:

- Adibidez, Australian barrenako bidaiei buruzko dokumentuak bilatzen badituzu, honela jarri beharko duzu: **bidaiak Y Australia**.
- Abionetei nahiz helikopteroei buruzko dokumentuak bilatzen badituzu, honela jarri beharko duzu: **abionetak O helikopteroak**.
- Errezetak bilatzen badituzu, baina postreerik ez baduzu behar, orduan honela jarri beharko duzu: **errezetak NO postreak**.

Gainera, aukera dago deskriptoreak beste eremu batzuetako datuekin lotzeko, adibidez, gai jakin bati buruzko egile baten liburua:

JARDUERAK

- 1) Idatz ezazu zein deskriptore erabiliko zenituzkeen honako gai hauei buruzko dokumentuak aurkitzeko eta zein operadore erabiliko zenukeen ideia bakoitza ordenadoreari adierazteko:
 - ▶ Pintura, akuarela ezik
 - ▶ Nerabegaroko adiskidetasuna
 - ▶ Amerikako ibaiak
 - ▶ Magia edo karta jokoak
 - ▶ Ipuinak, herri ipuina ezik.
 - ▶ Europako sumendiak
 - ▶ Sukaldaritza frantseseko errezetak
 - ▶ Poesia edo teatro liburuak
 - ▶ Kostan barrenako txangoak
- 2) Abies programa ireki, katalogoa hautatu, kontsulta aurreratua hartu, eta aurreko ariketako bilaketak egin itzazu.
- 3) Pertsonaia bakoitza ordenadoreetako kontsulta gaiekin lotu, bakoitzak esaten duenaren arabera.

Tximeletei buruzko liburu baten bila nabil.



1

Kontsulta

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota **Video**

Barra-kodea / ISBN Legezko gordailu

Edozein eremutako bilaketa

Eglea

Titulua

Argitalebea Urtea

UDC Y Y

Deskribatzaileak **Antártida** **Ártico**

Aplikazioa Y

Belduma

Hizkuntza

Bilaketa zehatza

A

Shakiraren disko bat eraman nahi nuke.



2

Kontsulta

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota **Libro**

Barra-kodea / ISBN Legezko gordailu

Edozein eremutako bilaketa

Eglea

Titulua

Argitalebea Urtea

UDC Y Y

Deskribatzaileak **Mariposas** **México**

Aplikazioa Y

Belduma

Hizkuntza

Bilaketa zehatza

B

Antartika edo Artikoari buruzko bideoren bat ote daukate liburutegian?



3

Kontsulta

Ale-zk. / Erregistro-zk. Dokumentu-mota **Grabación sonora**

Barra-kodea / ISBN Legezko gordailu

Edozein eremutako bilaketa

Eglea **Shakira**

Titulua

Argitalebea Urtea

UDC Y Y

Deskribatzaileak Y

Aplikazioa Y

Belduma

Hizkuntza

Bilaketa zehatza

C

2.5 ■ Nola agertzen dira kontsultaren emaitzak?

Aurreko ariketak egitean, ikusiko zenuen noski nola kontsulta bat egiten deneko emaitza egile eta titulu zerrenda bat izaten den; zerrenda hori da zuk zure kontsultan tekleatu dituzun datuekin bat egiten duten dokumentuena. Pantailaren goialdean, aurkitu diren tituluaren kopurua ageri da; erdialdean, haien zerrenda; eta behealdean, hautatuta daukazun dokumentuaren zenbait datu.


The screenshot shows a window titled 'Kontsulta' with a search interface. At the top, it indicates 'Aurkituak' (Found) with three radio buttons: 'Katalogoa: 2' (selected), 'Abies-en gordailua: 1547', and 'Gordailu osagarria'. Below this, it says '1 nondik 2 erregistroak.' (1 of 2 records). A table displays the search results:

Titulua	Edizio-urtea
Ninoren Istorioa	1990
Eskua bete izar	1992

Below the table, there are three dropdown menus: 'Egilea' (Author) set to 'Balzola, Asun', 'Argitaletxea' (Publisher) set to 'Edelvives', and 'Dokumentu-mota' (Document type) set to 'Libro'. At the bottom, there are three buttons: 'Erregistroa aukeratu' (Select record), 'Bilaketa berria' (New search), and 'Itzen' (Cancel).

Liburu bakoitzaren fitxa osoa ikusteko, honela egin beharko duzu:

- *Erregistroa aukeratu* tekla sakatu, emaitzen leihoko behealdean ageri dena. Orduan leiho hori itxi eta berriz ikusiko duzu zerrenda. Hautatu zein dokumenturen datuak ikusi nahi dituzun eta ikusiko duzu nola datu nagusiak, signatura barne, pantailaren behealdean agertzen diren, taula gris batean. Datu horiekin erabakitzen baduzu interresgarria dela zuretzat, apunta ezazu signatura apalategietan bilatzeko.
- Dokumentu horren gainean datu gehiago nahi badituzu, *Xehetasunak* tekla sakatu. Hor ikusiko dituzu *Datu nagusiak*, *Datu osagarriak* eta *Aleari buruzko datuak*, pantailaren goialdean ageri diren pestainak hautatuz.
- Eta modu berean segi dezakezu zerrendan interesgarri zaizkizun dokumentuak hautatzen, datuak eta signatura ikusteko.



2.6 ■ Nola agertzen dira liburu baten datuak ordenadore batean?

Katalogo informatizatu batean dokumentuen datuak ikusteko hainbat modu aukera daitezke. Hona hemen interesgarrienak:

- Etiketekin: datu bakoitza, dagokion eremuaren barrenean aurkezten da. Formato hori azaltzen da beti Abies kontsultatzean.
- Fitxa bibliografikoaren itxuran, eskuzko katalogoen egitura berarekin. Formato horretan ikusteko, ISBD tekla sakatu behar da; dokumentuen Datu Xehiak delako leihoaren behealdean ageri dena.

.....

JARDUERAK

- 1) Begiratu *Abies* katalogotik atera ditugun fitxak. Bertan informazio bera modu bat baino gehiagotara aurkezten da. Fitxa batek eskuzko katalogoen antolamendu bera dauka, besteak ez. Lot itzazu marra batzuekin bi fitxetan bat egiten duten datuak.

Visualización con etiquetas:

The screenshot shows a window titled "Aldatu dokumentua" with a close button in the top right corner. Below the title bar is a tabbed interface with three tabs: "Datu nagusiak" (selected), "Datu gehigarriak", and "Alearen datuak". The main area contains a form with the following fields and values:

- Dokumentu-mota: Libro
- Argitalpen-urtea: 1994
- Egilea: Epalza, Aingeru
- Beste egile batzuk: Urmenete, A.
- Titulua: Lur zabaletan
- Tituluaren gainerakoa: (empty)
- Portadaren gainerakoa: (empty)
- Kokapen-lekua: Iruña
- Argitalpen-urtea: 1994
- Argitaletxea: Pamiela
- Argitalpen-zk: 3
- Bilduma: Tamaina ttikia
- Zenbakia: 23

At the bottom of the window, there are navigation buttons: "IberMarc", "ISBD", "Onartu", "Utzi", and "Laguntza".

Visualización en forma de ficha bibliográfica:

The screenshot shows the same "Aldatu dokumentua" window, but now displaying a bibliographic card. The "Datu nagusiak" tab is still selected. The card content is as follows:

ISBD fitxa

Epalza, Aingeru
Lur zabaletan. --3. --Iruña :Pamiela, 1994. --175 p. : 11. ;
19 cm. -- (Tamaina ttikia; 23) Indice
ISBN 84-7681-199-3

I. Urmenete, A.
82-33
891

The bottom navigation buttons are the same as in the previous screenshot.

- 2) Bila ezazu zer liburu dauden liburutegian txoriei buruz eta emaitzen zerrenda agertzen denean, kontsulta ezazu titulu batzuen fitxa, tituluak sakatuz. Pantailaren behealdean ISBD delako tekla bat ikusiko duzu. Saka ezazu eta begiratu nola azaltzen diren liburuaren datuak.
- 3) Bila itzazu zure intereseko gaiari buruzko liburuak. Begiratu datuak *Abies*-ek eskaintzen dituen formatu desberdinetan. Apunta itzazu batzuen signaturak.

3. Nola erabili katalogoak lan bat egiteko

Katalogoak ezinbestekoak dira egiten ari zaren lan baterako behar dituzun dokumentuak aurkitzeko. Irakasleak dokumentu jakin baten datuak eman ez badizkizu, gaiaren araberako bilaketa bat egin beharko duzu zure ikastetxeko katalogoan edo liburutegi publiko batekoan, kontsulta obra espezializatuak, liburuak edo bideo edo CD-ROMen bat ere bai.

Bilaketa hori egiteko, zure lanaren gaia adierazten duten hitz gako edo deskriptoreak erabili behar dituzu, 3 eta 4. unitateetan ikasi duzun bezala.

4. Osa ezazu dakizuna internetez

Egin kontsulta batzuk Sareko liburutegi baten katalogo batean. Adibidez:

- Biblioteca Nacional: <http://www.bne.es>
- Koldo Mitxelena kulturguneko liburutegia: <http://www.gipuzkoa.net/kultura/katalogoa/>
- Bibliotecas Públicas: <http://www.mcu.es/bpe/info.html>
- Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes: <http://www.cervantesvirtual.com/catalogo.shtml> (Kontsulta aurreratua hautatu)

5. Ez ahaztu

- Katalogo informatizatua ez da eskuzkoa bezala kontsultatzen, nahiz eta eskuzko katalogoak dakiguna baliagarria den.
- Katalogo informatizatuak bide ematen digute datuak lotzeko kontsultan. Hartarako, ordenadoreetako logikarekin pentsatzen ikasi behar dugu.
- Katalogo informatizatuarekin fitxak modu bat baino gehiagotara ikus ditzakegu.

6. Zer ikasi duzu?

- ▶ Ikasi dut katalogo informatizatua nola erabiltzen den. Bai Ez
- ▶ Ikasi dut nola lotu datu bat baino gehiago operadore logikoen bidez Bai Ez
- ▶ Ulertu dut zer modu dauden kontsulta baten emaitzak ikusteko. Bai Ez



5

NOLA ATERA HIZTEGIEI
ETEKINIK HANDIENA




I. Ba al zenekien?

.....

Idazketa asmatu zuten zibilizazioek sortu zituzten lehenbiziko hiztegiak: Mesopotamia eta Egipto. Hizkuntza diferenteko taldeen artean komunikatu ahal izateko erabiltzen zituzten.

Lehenbiziko haien ondotik, aunitz glosario, hiztegi, lexiko eta hitz aurkibide sortu ziren, gehienak latinezkoak edo latina eta beste hizkuntza baten artekoak. Euskaraz, Manuel Larramendi jesuitaren 1745eko *Diccionario Trilingüe* delakoa da lehenbiziko hiztegi inprimatua (*trilingüe* esaten zaio euskaraz, gaztelaniaz eta latinez dagoelako). Erdaraz, Covarrubiasek 1611n argitaratu zuen gaztelaniaren lehenbiziko hiztegia: *Tesoro de la Lengua Castellana* delakoa, Europako herri hizkuntzen hiztegieta lehenengoetakoa. Ondoren, hiztegi horiek eraldatuz joan ziren eta handik entziklopediak sortu ziren.



Unitate honetan, hiztegiek ematen dituzten aukerak erabiltzen ikasiko dugu. Haien gainean ikasiko dituzun gauza askok entziklopedietarako ere balioko dizute.

.....

2. Zer da hiztegi bat?

Hiztegia kontsultarako obra da, hau da, osorik irakurtzeko ez den obra, zatika baizik, datu jakin baten edo informazio zehatz baten bila gabiltzanean. Entziklopediak, urtekariak, katalogoak eta abar ere kontsultarako obrak dira.

Kontsultarako obrak besteak ez bezalakoak liburuak dira. Haietako askok alfabeto ordena erabiltzen dute beren informazioa antolatu eta aurkezteko.



2.1 ■ Hiztegi motak

Ondorengo eskema honetan ikus dezakezunez, hiztegi mota asko daude:

- **Hiztegi elebakarrak** (orotarikoak edo alderdiren batean espezializatuak: sinonimoak, dudak eta abar).
- **Hiztegi elebidunak.**
- **Gai batean espezializatutako hiztegiak** (literaturagileak, zinea, musika, botanika eta abar). Gai bakoitzeko kontzeptuak, alfabetoz ordenatuak izaten dituzte.
- **Hiztegi entziklopedikoak.** Hitzen definizioak ematen dituzte eta batzuetan definizio horiek, informazio entziklopediko zabalago batez osatzen da.
- Gaur egun, paperezko hiztegi inprimatuez gain **hiztegi elektronikoak** ere badaude (CD-ROMetan eta Interneten).

2.2 ■ Hiztegi elebakarrak

Hizkuntza baten hiztegiak hizkuntza horretako hitzen esangurari eta erabilerari buruzko obrak dira. Oso helburu desberdinetarako erabil daitezke: Hitzak hobeki ulertzeko, hitz berriak ikasteko, ortografia edo azentuazioari buruzko dudak argitzeko, hobeki idazteko, irakurtzen ari zarena ulertzeko, idazten duguna ulergarria izateko, ikertzeko eta bai jakin-min hutsagatik ere. Horregatik garrantzi handia du ongi erabiltzeak eta dituzten aukera guztiak ongi aprobetxatzeak.

Hiztegiak hizkuntza bateko hitzen zerrenda ordenatuak dira, hitz bakoitzaren ondotik definizioa eta bestelako informazioak dituztela (jatorria, gramatika kategoria, sinonimoak, antonimoak edo homonimoak, zer familiakoak diren eta abar).

JARDUERAK

- 1) Liburutegian, kontsultarako obrak 0 zenbakian egoten dira (Obra Orokorrak). Aurkitu non diren, begiratu obra horiek eta deskriba ezazu zer ikusten duzun (tamaina, forma, beste obserbazioak eta abar).
 - ▶
 -

- 2) Hiztegi batean, *hiztegi* hitzaren definizioa bila ezazu:
 - ▶ HIZTEGI
 -
 - ▶ Kontsulta horretan, ikasi al duzu lehendik ez zenekien ezer?
.....
 -

- 3) Liburutegian 0 zenbakian (Obra Orokorrak) hiztegi mota desberdinak bilatu eta apunta ezazu zer titulu dituzten:
 - ▶
 -


- 4) Lotu egoera bakoitza eta bera ebazteko egokiena den hiztegi mota:
 - 1. Lan baterako informazioa aurkitu behar
 - 2. Ortografiako dudak argitu
 - 3. Ingeleseko idazki bat ulertu
 - 4. Antzeko hitz bat bilatu testuan hitz bera ez errepikatzeko.
 - 5. Gai bati buruzko aipamen literario bat bilatu
 - A ▶ Ingelesa-euskara hiztegi elebiduna.
 - B ▶ Hizkuntzari buruzko hiztegia
 - C ▶ Aipamen literarioen hiztegia
 - D ▶ Hiztegi entziklopedikoa
 - E ▶ Sinonimoen hiztegia

2.3 ■ Nola erabiltzen da hiztegia?

Hiztegian definituta dagoen hitz bakoitza ate bat bezala da eta horregatik sarrera esaten zaio. Gogoratu sarrera bakoitza forma bakar batean ageri dela: izenak eta adjektiboak beti nor kasu mugagabeen ageri dira, hau da, artikulurik gabe (etxe, handi...); aditzak partizioan (hartu, hautsi, ikasi...).

Hiztegia ongi erabiltzeko, ordena alfabetikoa buruz ongi ikasita eduki behar duzu, hizzak irizpide horren arabera ordenatuta baitaude; beraz ordena alfabetikoa da aterik egokiena hiztegiara iristeko. Hiztegiak liburuki bat baino gehiago baditu, agudo erabaki beharko duzu zein liburukitan dagoen zuk bilatzen duzun hitza.

Hiztegiko orrialde bakoitzean sarrera asko daude, baina zuk batez ere haientako biri egin behar diezu kasu, lasterrago bilatzeko balio baitute. Hiztegi bat hartu eta begiratu haren orrialdeak:



Hitz gidaria orrialde bakoitian.




Orrialde honetako azken sarrera. Hitz gidaria bera da.




kristal 399

.....
ESKOLAKO LIBURUTEGIAN NOLA IKASI ETA IKERTU. ERABILTZAILEAK PRESTATZEN
5. Nola ateratzen da hiztegi etekin handiena

Hitz bat bilatzen hasten zarenean, horizontalki irakurtzen hasi behar duzu, orrialdeen goialdean ageri diren hitz-gidariak irakurri. Gogoratu halako hitzak bat edo bi izan daitezkeela orrialdeko:




Bila zabiltzan hitzaren orrialdera iritsi zarenean, orain goitik behera irakurri behar duzu, sarrerez sarrera, behar duzunera iritsi arte:



2.4 ■ Nola irakurri hiztegizko artikulua bat?

Begira dezagun zer parte dituen hiztegizko artikulua batek:

<i>Sarrera</i>	<i>Izena</i>	<i>Lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren definizioa</i>
<p>oin. iz. 1. Hankaren behe-muturreko zati artikulatua, animalia zutik dagoenean lurra ukitzen duena 2. Hainbat gauzatan, lurra ukitzen duen zatia. 3. Argazki edo irudi baten azpian jartzen den testu laburra. . 4. Luzera neurri zaharra, 30 bat cm balio duena.</p>		



2.5 ■ Irakur itzazu laburdurak eta zeinuak

Edozein hiztegitako lehenbiziko orrialdeetan, laburduren zerrenda egoten da, gero hiztegi artikulu batean laburdura horiek irakurtzean zer esan nahi duten ulertu dezagun. Laburduren informazio asko ematen dute inzialak erabiliz edo hitzak ahalik eta gehien laburtuz.

ERABILI DIREN IKURRAK ETA LABURDURAK

†:	Onartzen ez diren hitz aldaera eta adierak markatzen dituen ikurra (ik. sarreraren 1. atala).
A, B...	} Hiztegi sarreraren barnean zatiak, adierak, azpi adierak eta ñabardurak bereizteko ikurrak (ik. sarreraren 1. atala).
1., 2. ...	
a), b)...	
ll, •	
*. -, []	Lehen agerraldiei dagozkien ikurrak (ik. 3. atala).
* * *	
<i>Abs.:</i>	Erabilera absolutua (espero den osagarririk gabekoa).
<i>ad.:</i>	Aditza. (Adierazten diren aditz motei buruz, ik. 2. atala).
<i>adj.:</i>	Adjetiboa. (Ik. 2. atala).
<i>Adkor.:</i>	Erabilera adierazkorra.
<i>adlag.:</i>	Adizlaguna (ik. 2. atala).
<i>Anat.:</i>	Anatomiari dagokion hitz edo adiera.
<i>Ant.:</i>	Antonimoa (aurkako esanahiko hitza).
<i>Antzt.:</i>	Antzertiari dagokion hitz edo adiera.
<i>Arit.:</i>	Aritmetikari dagokion hitz edo adiera.
<i>Arrt.:</i>	Hitza edo erabilera arrunta (gizabidearen arauak gaitzesten dutena).
<i>Astr.:</i>	Astronomiari dagokion hitz edo adiera.
<i>at. m.:</i>	Atomo masa.
<i>at. z.:</i>	Atomo zenbakia.
<i>b.:</i>	Bukaera (gizaldi zenbaki baten ondoan; ik. 3. atala).
<i>Banatz.:</i>	Banatzailea.
<i>Beh.:</i>	Hiizkuntza mailaz behekoa den hitza (ik. 4. atala).

Euskal Hiztegia, Ibon Sarasola

.....

2.6 ■ Begiratu ilustrazioak

Hiztegietan hainbat ilustrazio, marrazki, esplikaziozko eskema, grafiko eta abar egoten dira, testuaren osagarri; laguntzen digute zenbait kontzeptu ulertzen. Informazio grafiko hori ere kontsultatu behar duzu, testuaren osagarri ona baita.



Isotopioa. *is. suts.* Hukuratu aliatuak, enagari talde baten forma edo sistema doberdinak azaltzen dituzten bi diatiko-eremu beretien dituen bera ikusla. **Isotopioa.** *is. suts.* Tamaia aliatu gabe gertatzen den nukleido-urkuntara.

Isomorfismoa. *is. s.* 1. Forma-aldarantza. 2. suts. Bi likidatzeak, edota, serieta, maila doberdineko bi egituraren arteko propietateak, modu bereko erlatu konbinatuzko azalaren dituzten (adib., morfem konbinazio legok eta sonorekin berdinak izanda lotuta) e-sonorekin. Bi egituraren arteko isomorfismoa duguela esaten da. 3. suts. Geopuz isomorfien izena. 4. suts. Homomorfismoa hitzetan, hots aldarantzirik aplikazio onartzen duena.

Isomorfismoa. *is. s.* Bena hait bertan, hantxi isomorfismoa erlatu bate loten. 2. suts. Kompositu kimiko doberdine izan arren, egitura molekular eta forma kristaliko berrak dituen gorpuzte ezberdin da.

Isomorfismoa. *is. s.* Legitza eta tuberkularen kontrako medikamentu gaitte eraginkorra dena.

Isomorfismoa. *is. s.* Italia eta Eskoziako ibia. Alperetan joko eta Tirorenko gultuen inbuzatzen da. 138 km.

Isopne. *is. s.* Iper hitza, hitzalea.

Isopne. *is. s.* Cevra jakin batzen puzituta bera den gurutak hitzen dituen hitza.

Isopne. *is. s.* Pentakoren isomorfismo, karboho tenetario bat duena.

Isopne. *is. s.* Isot. Oho edo hitza gurutak berdin dituztena. 2. s. eta isot. Melakrokoen salakizko zerbait kuzantze ezberdin da. Geopuz erlatu duen eta berakio hitzengatik arguzten buruari lotuta dute. Bere baitan kuzantze hitzen dituen hitzak onartzen duen.

Isopne. *is. s.* Kautsa adu berotze lotzen den hitzak berbera arguzten $[CH_2=C(CH_3)-CH_2]$ hitzak berbera onartzen duen erlatu da eta puzituztat hitza aintzatik hitzen da.

Isotopioa. *is. suts.* Hukuratu aliatuak, enagari talde baten forma edo sistema doberdinak azaltzen dituzten bi diatiko-eremu beretien dituen bera ikusla. **Isotopioa.** *is. suts.* Tamaia aliatu gabe gertatzen den nukleido-urkuntara.

Isomorfismoa. *is. s.* 1. Forma-aldarantza. 2. suts. Bi likidatzeak, edota, serieta, maila doberdineko bi egituraren arteko propietateak, modu bereko erlatu konbinatuzko azalaren dituzten (adib., morfem konbinazio legok eta sonorekin berdinak izanda lotuta) e-sonorekin. Bi egituraren arteko isomorfismoa duguela esaten da. 3. suts. Geopuz isomorfien izena. 4. suts. Homomorfismoa hitzetan, hots aldarantzirik aplikazio onartzen duena.

Isomorfismoa. *is. s.* Bena hait bertan, hantxi isomorfismoa erlatu bate loten. 2. suts. Kompositu kimiko doberdine izan arren, egitura molekular eta forma kristaliko berrak dituen gorpuzte ezberdin da.

Isomorfismoa. *is. s.* Legitza eta tuberkularen kontrako medikamentu gaitte eraginkorra dena.

Isomorfismoa. *is. s.* Italia eta Eskoziako ibia. Alperetan joko eta Tirorenko gultuen inbuzatzen da. 138 km.

Isopne. *is. s.* Iper hitza, hitzalea.

Isopne. *is. s.* Cevra jakin batzen puzituta bera den gurutak hitzen dituen hitza.

Isopne. *is. s.* Pentakoren isomorfismo, karboho tenetario bat duena.

Isopne. *is. s.* Isot. Oho edo hitza gurutak berdin dituztena. 2. s. eta isot. Melakrokoen salakizko zerbait kuzantze ezberdin da. Geopuz erlatu duen eta berakio hitzengatik arguzten buruari lotuta dute. Bere baitan kuzantze hitzen dituen hitzak onartzen duen.

Isopne. *is. s.* Kautsa adu berotze lotzen den hitzak berbera arguzten $[CH_2=C(CH_3)-CH_2]$ hitzak berbera onartzen duen erlatu da eta puzituztat hitza aintzatik hitzen da.

JARDURAK

- 1) Hizkuntzazko hiztegi bat hartu eta bila itzazu ondorengo zerrenda honetako hitzak. Hartarako, lehenbizi horizontalki joan zaitez, hitz gidariak irakurriz eta behar duzun orrialdera iristen zarenean, orduan hasi goitik behera. Apunta itzazu honako hitz hauek ageri diren orrialdearen goialdeko hitz gidari horiek:

 - ▶ Ilaun
 - ▶ Erro
 - ▶ Ultraismo
 - ▶ Laineza
 - ▶ Aihotz
 - ▶ Ahuku
 - ▶ Arteria

78

– 2) Zerrenda honetako zenbait hitz tokiz kanpo daude, ez bailirateke inoiz itxura horretan agertuko hiztegi batean. Esan zein diren eta idatz ezazu ondoan zer itxura izango luketen hiztegian:

- ▶ Irribarrez Bai Ez
- ▶ Dantza Bai Ez
- ▶ Kasko Bai Ez
- ▶ Mandataria Bai Ez
- ▶ Erokeria Bai Ez
- ▶ Janen du Bai Ez
- ▶ Erbitara Bai Ez
- ▶ Gustu Bai Ez
- ▶ Euritsu Bai Ez
- ▶ Botilatuko Bai Ez
- ▶ Indoeuropar Bai Ez
- ▶ Gazi Bai Ez

– 3) Begiratu hiztegi bateko laburduren zerrenda eta saia zaitzek honako hauek itzultzen:

- ▶ adb.
- ▶ anat.
- ▶ arrt.
- ▶ BN
- ▶ da/du ad.
- ▶ etab.
- ▶ hed.
- ▶ erak.
- ▶ haur.
- ▶ ipar.
- ▶ iz.
- ▶ izond.
- ▶ junt.
- ▶ onom.

– 4) Ondoren hiztegi bateko artikulua baten puska desordenatuak agertuko dira. Oso gauza erraza egin behar duzu: ordenatu eta artikulua berriz osatu, hiztegian zure ustez egongo litzatekeen moduan utzi arte. On izango duzu lehenbizi puska guztiak numeratzea.

- ▶ I. Leku batean, eta bereziki etxean, erabiltzen den objektu higigarria.
- ▶ SIN. moblea
- ▶ **Altxari**
- ▶ lz.
- ▶
- ▶
- ▶

.....

– 5) Honako artikulua hauek zati itzazu proposatzen dizkizugun parteetan:

5.1) Amaitu du ad. **1.** Zerbaitek bere azkena izan. *Amaitu da jaialdia.* **2.** Kopuru batetik dena hartu edo erabili. *Amaitu zaigu olioak.* **3.** Hil. *Adorerik gabe, goseak amaitu beharrean.* SIN. 1. Bukatu. 2. ahitu. 3. Akabatu.

(Euskal hiztegi modernoa. Elhuyar. Moldatua)

- ▶ Hitza (sarrera):
- ▶ Kategoria gramatikala (laburdura).....
- ▶ 1. esangura:
- ▶ Adibidea:
- ▶ 2. esangura:.....
- ▶ Adibidea:
- ▶ Sinonimoak:
- ▶ Antonimoak:.....
- ▶ Hitz familia:

5.2) Bala iz. **1.** Su armetan erabiltzen den jaurtigai trinkoa. *Kargadore honetan hogeita hamar bala sartzen dira.* **2.** uzta-sorta lotua. *Gari bala handiak ageri ziren landan.* Sin **2.** Azaoa.

- ▶ Hitza (sarrera):
- ▶ Kategoria gramatikala (laburdura).....
- ▶ 1. esangura:
- ▶ Adibidea:
- ▶ 2. esangura:.....
- ▶ Adibidea:
- ▶ Sinonimoak:
- ▶ Antonimoak:.....
- ▶ Hitz familia:

5.3) Bakarti izond. **1.** Bakarrik dagoena edo dabilena. *Otso bakartia.* **2.** Bakarrik egoteko joera edo afizioa duena. *Gaztetan, neure buruaren ahalkez, hagitz bakartia nintzen.* SIN. 1. Zurtz. // ANT. 2. Lagunkoia, jendekina.


- ▶ Hitza (sarrera):
- ▶ Kategoria gramatikala (laburdura).....
- ▶ 1. esangura:
- ▶ Adibidea:
- ▶ 2. esangura:.....
- ▶ Adibidea:
- ▶ Sinonimoak:
- ▶ Antonimoak:.....
- ▶ Hitz familia:

2.7 ■ Hiztegi elektronikoak

Gero eta hiztegi elektroniko gehiago daude, dela CD-ROM itxurakoak edo Interneten bidezkoak. Hiztegi horiek hiztegi inprimatuez oso bestelakoak dira. Haiekin ez da sarre-
ra zerrenda bat begiratu behar kontsulta egiteko: aski da bila zabiltzan hitza lauki batean tekleatu, bilatu tekla sakatu, eta berainez aterako zaizu pantailan definizioa.

Hiztegiei buruz lehendik dakizuna oso lagungarria izango duzu hiztegi mota berri hau ulertu eta erabiltzeko, artikuluen egitura hiztegi inprimatuena bera baita.

Hiztegi elektronikoak alderdi ederra dira ordenadorean lanean ari garenerako, kontsul-
tak handik zuzenean egitea baitauekagu eta nahi badugu bai eta definizioak idazten ari
garen testuan kopiatzea ere. Txarra dute ezin direla ordenadorerik gabe erabili.



2.8 ■ Nola hautatu hiztegi bat

Hiztegi guztiek antzeko egitura dute. Hala ere batzuk irakurterrazagoak dira, edo osoagoak edo baliagarriagoak besteak baino. Ondoren hitz beraren hiru sarrera diferente ikusiko dituzu, hiztegi banatatik hartuak:

1.

dohain iz. Dohaina da norbaiti ematen zaion edo norbaitengandik jasotzen den onura, mesedea edo gauza. **2.** Pertsona batek zerbaitetarako dohaina duela esaten denean, berezko gaitasuna duela adierazi nahi da. Batzuek ez daukagu bertsoetarako dohain handirik. *Adb.* **3.** Doan, dohainik. *(Nire Lehenbiziko Hiztegia.)*

2.

dohain iz. Norbaitengandik jasotako nolakotasun ona, onura edo mesedea. *Naturak dohain guztiez hornitua. Espiritu Santuaren dohainak.* **2.** Pertsona baten nolakotasun ona. Dohain berezia du horrek bertsoetarako **3.** Oparia. *Adb.* **4.** Dohainik.

(Euskal Hiztegi modernoa. Elkarlanean)

3.

Dohain iz. (1571). **1.** Emaidza, berezk. Jainkoaganik, izaditik... hartzen dena. ik. **doe;** **mesede.** *Arimako graziaren dohain miragarria. Fedearen dohain baliotsua. Izpiritu Santuaren dohainak. Jainkoaren dohain berezia. Bosgarrena, sendotasunaren dohaina. Urte asko bizitzea berez on da, Jainkoaren dohaina da. Naturak dohain guztiez hornitua. Dohain emana zerbait hoberen eske dago. # (G.g.er.). Oparia. Eskaintzen zituen dohain eta opariak. # Norbaitek duen nolakotasun ona. Ik. **bertute.***

*Hizkuntza askotan hitz egiteko dohaina eman zien. Hitz neurtuak kantuz egoki emateko duten dohain berezkoa. Ugaritasuna, etorria, jario gozoa: eskas zaizkigun dohain horietan apartekoa genuen Xalbador. Dohain berezia du asmatzeko. # (Gauzei buruz). Hizkuntzaren dohainak agerrarazten. Gipuzkoako iturri miraritsuen dohain handiak. **2.** nola adlg. (1666). lpar. (G. er.). Doan, urririk, dohainik. *(Euskal Hiztegia. Ibon Sarasola)**

Ageri denez, hiztegi bakoitzak bere modura aurkezten du informazioa. Batzuek definizio ulerterrazagoak ematen dituzte, beste batzuek osoagoak, beste batzuek aurkezpen irakurterrazagoa dute, eta abar. Faktore horien arabera aukeratuko duzu hiztegi bat ala bestea, zure beharretarako egokiena zein den.

Beste alde batetik, hiztegi inprimatu bat ala elektronikoa bat nahi dugun aukeratzera-koan, kontuan hartu behar dugu zertarako erabiliko dugun. Elektronikoek hitz jakin bat kontsultatu beste ezertarako ez dira, hitz horren definizio hutsa agertuko baita pantailan, jeneralean ilustraziorik gabe. Hitz horrekin lotura duten hitzen artean nabigatzeko bidea ere emanen digu. Hala ere, konplikatua da haietan zer-topako bilaketak egitea, jokoak egitea edo bilatzen ez genituen bidenabarko informazioak aurkitzea. Hori errazagoa da hiztegi inprimatu batean, horietan bi orrialde ikusten baitugu batera, eta gureaz gain sarrera diferente pilo bat, batzuetan irudiz ilustratuak.

JARDUERAK

- 1) Ahal baduzu, hiztegi elektroniko bat begiratu liburutegian, CD-ROM itxurakoa edo Internetekoa. 5. ariketako hitzak bilatu ditzakezu, nahi baduzu, eta hango definizioak testu prozesadore batean kopiatu.
- 2) Irakur itzazu *bakun* hitzaren gaineko artikulua hauek, bi hiztegi elektronikotatik hartuak:

I

bakun. Iz. (1627). I. Osagai bat bakarrak osatua. Ik. **bikun; anizkun.** *Hari bakuna: piru bakarra duena. Hitz, esaldi, perpaus bakuna. Kontsonante bakunak eta bikunak.* 2. (1643) Osagai gutxiz edo kideko gauzak baino gutxiagoz osatua; ulertzeko, erabiltzeko... erraza dena; tolesgabea. *Tresna bakuna. Zure hitz bakunari sineste gehiago eman-go diola. Burutapen garai guztiak bezala, bakuna da, sinplea, zoroak ere igarriko liokeena. Ez gaitezen bakunegiak izan horretan gehiegi sinesteko. Gizon bakuna. Bezela han jaurre-ri bat, ez ordea gezurtientzat, ez harroentzat, ez lapurrentzat; xumeentzat ordea, eta bakunentzat eta negar daginentzat.*

(Euskal Hiztegia, Ibon Sarasola. CD-ROMean.)

2

bakun izond. I. Osagai bakarra duena. *Gure dantza-pauso bikoitz eta bakunak.* 2. Osagai gutxiz edo kideko gauzak baino gutxiagoz osatua. 3. Ulertzeko, erabiltzeko erraza dena. *Burutapen bakuna da, ximplea, zoroak ere igarriko liokeena.* 4. Pertsona tolesgabea. *Horregatik, nik esango nuke bakunak eta inuzentek izaten garena askotan.* 5. HIZKL. Proposizio bakar batez eratua dagoen perpausa, bere osagaien artean beste perpausik ez duena.

Harluxet hiztegi entzikopedikoa (<http://www1.euskadi.net/harluxet/>)

Orain, galdera hauei erantzuna eman:

- ▶ bietatik, zein iruditu zaizu irakurterrazena? 1 2 3
- ▶ Zein iruditu zaizu osoena? 1 2 3
- ▶ Bietako batek *bakun* hitzak zer esan nahi duen argitu al dizu?
Bai Ez Zeinek?
- ▶ Zein hiztegi izango litzateke egokiena zuretzat? 1 2 3

2.9 ■ Hiztegi batekin jostetan aritzea dago?


Hiztegia, itxura batera, liburu aspergarria da, baina gero harritzeko moduko ezagupen pila edukitzen du barnean. Denborapasako joko asko ere hiztegiaren bidez egiten dira: hitz gurutzatuak, kasu. Ondorengo jardueretan hiztegiaren bidezko zenbait joko

.....


irakatsiko dizkizugu. Hori hasiera besterik ez da izango, gero zuk zerorrek asmatzea daukazu jokoak.

JARDUERAK

- 1) Begira ezazu ondoren ematen dizugun adibidea. Bertan lau definizio ageri dira, borobiletan idatzita dauden terminoei dagozkienak. Hiztegia erabiliz, joko beraren beste bertsio bat asma ezazu, F-z hasten diren hitzekin. Bila itzazu beren luzeragatik borobiletan sar daitezkeen hitzak baina ez itzazula idatzi; definizioak idatz itzazu dagokien zenbakiaren ondoan. Gero trukatu jokoak zure lagunekin; horiek zein hitz aukeratu dituzun igarri eta borobiletan idatzi beharko dituzte. Hori lortzeko, definizioak irakurri eta pixka bat pentsatu beharko dute. Ez hitz zailegirik jarri!



1. Gela txikia eta bakartua
2. Aulkia, jarlekua
3. Zerbait edo norbait bere tamainagatik toki batean sartu ahal izan
4. Burdin hariz eginiko soka



Definizioak:

1.
2.
3.
4.

- 2) Hiztegi bat hartu, edozein orritatik ireki eta definizioetako bat irakurri. Harrigarria egin al zaizu definizioen bat? Behin baino gehiagotan egin eta harrigarriena izan zai-zuna apuntatu.

▶

- 3) Orain lau lagunekin jostatu behar duzu. Hizkuntzako hiztegi bat besterik ez duzu behar. Bakoitzak hitz bat bilatu, daitekeen bitxiena, eta besteei hiru definizio irakurriko dizkie, bat egiazkoa eta beste biak orrialde bereko beste bi hitzenak. Lagunek asmatu beharko dute zein definizio den benetakoa. Hartarako, haien ustez hitz horri dagokion definizioaren zenbakia idatzi beharko dute orri batean. Asmatzen duenak hurrengo hitza bilatu beharko du.

3. Nola erabili hiztegia lan bat egiteko

Kontsultako obrak oso lagungarriak dira edozein ikerketa lan hasteko, gaia zentratzen eta ideiak argitzen laguntzen baitigute eta bai ikerbide berriak aurkitzen ere. Gainera, lan askotan hiztegitik hitzez hitz kopiatutako definizioa sartu ahal izango duzu.

Hizkuntzako hiztegiak eta sinonimoen hiztegiak bereziki lagungarriak dira liburutegie-tako katalogoetan bilaketak prestatzeko. Hiztegi horietan gure ikerketako hitz gakoekin lotura duten terminoak aurkituko ditugu (sinonimoak, familia bereko hitzak, gai horrekin lotutako hitzak eta abar). Kontuan harturik gaien araberrako kontsultetan saio bat baino gehiago egin behar izaten direla, kontsultari itxura emateko zenbat eta ideia gehiago izan, orduan eta emaitza hobea izango du bilaketak.

4. Osa ezazu dakizuna internetez

Honako web orrialdeetan kontsulta ditzakezu hiztegiak, euskarazkoak eta erdarazkoak eta bai beste hizkuntza batzuetakoak ere:

http://www.euskadi.net/hiztegiak/indice_e.htm

<http://www.euskaltzaindia.net>

<http://clasico.diccionarios.com>


<http://www.rae.es>

5. Ez ahaztu

- Kontsulta obrak askotarikoak dira.
- Hiztegiak behar-beharrezkoak dira ikasleentzat.
- Hiztegi mota bakoitzak bere egitura du, nahiz eta ezaugarri batzuk denek komun dituzten.
- Hiztegia ongi erabiltzeko ordena alfabetikoa ongi ikasita eduki behar duzu, hiztegiko informazio orokorra irakurri eta laburdurak eta sinboloak jakin.

6. Zer ikasi duzu?

- ▶ Ulertu dut hiztegiak oso lagungarriak direla Bai Ez
- ▶ Ikasi dut hiztegi bateko artikulua nola irakurri eta ulertu. Bai Ez
- ▶ Orain hobeki dakit hiztegiak erabiltzen. Bai Ez



6

NOLA ATERA ENTZIKLOPEDI EI
ETEKIN HANDIENA



1. Ba al zenekien?

Lehenbiziko entziklopediak oso zaharrak dira. Orain dela hiru mila urte txinatarrek orduko ezagupenen laburpen idatzizkoak egin zituzten. Antzinako Erroman eta Erdi Aroko Europan, entziklopedia zoragarriak egin ziren, maiz aski egile bakar batek pazientzia handiarekin osatuak. San Isidoro Sebillakoak, konparazio, bere *Etimologiak* itxuratu zituen. Obra horiek banan bana errepasatzen zituzten jakiunde guztiak: geografia, astronomia, fisika eta abar, baina zaila zen haietan datu konkretuak aurkitzea.


XVIII. mendera arte ez zen hasi ordena alfabetikoa erabiltzen ezagupenak aurkezteko. Adibiderik ezagunena *Entziklopedia Frantsesa* da, 1751 eta 1772 artean ikertzaile eta filosofo talde batek argitaratua. Garai hartan *Encyclopaedia Britannica* ere agertu zen eta XIX. mendean Espainian *Diccionario Enciclopédico Espasa* argitaratu zen.

2. Zer da entziklopedia bat?

Entziklopedia hitza grekeratik heldu da eta "ezagupenen zirkulu osoa hartzen duen hezkuntza"

esan nahi du. Entziklopedia bat kontsultarako obra da, gauza edo kontzeptuei buruzkoa.

Bertan, momentu jakin batean dauden ezagupen guztien panorama bat azaltzen da, edo zientzia jakin baten ezagupena, alfabetoz ordenatutako artikuluetan berezia.



Ezagupen multzo handia eskaintzen du, erraz eta laster kontsultatzeko moduko obra batean, eginahalean termino tekniko gehiegi erabili gabe. Gogora dezagun, hala ere, entziklopedia batek ezin duela gai bakoitzari buruzko liburuen tokia hartu, haren artikulua itxuratzeko erabili direnak.

2.1 ■ Entziklopedia motak


Entziklopedia mota desberdinak bereizteko bi alderdi har ditzakegu kontuan: zer eduki hartzen dituzten eta eduki horiek nola antolatzen dituzten.

Edukiei begiratzen badiegu, bi mota bereiziko ditugu:


- **Entziklopedia orokorrak**, ezagupenen arlo guztiak hartzen dituztenak. Adibidez: *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*.
- Gai bakar batean **espezializatutako entziklopediak**. Adibidez: *Animaliak*. *Gazteentzako entziklopedia ilustratua*.

Aipatu entziklopedia horiek bi forma desberdinetan aurkeztu ditzakete edukiak:

- **Ordena alfabetikoa**: Entziklopedia alfabetikoak edo hiztegi entziklopedikoak. Hiztegiak bezalaxe erabiltzen dira, baina haiek baino jakingai gehiago dituzte. Liburuki bakoitzak bi hitz ageri ditu bizkarrean eta bien arteko termino guztiak dauzka barrenean.



- **Gaien arabera**: entziklopedia tematikoak edo sistematikoak. Liburuki bakoitzak gai desberdin bat jorratzen du. Informazio bat non den antz emateko, liburuki bakoitzeko sumarioa eta aurkibide alfabetikoa erabili behar dira.



.....

JARDUERAK

- 1) Zer entziklopedia daude liburutegian? Bila ezazu 0 zenbakian (Obra Orokorrak) eta entziklopedia titulu batzuk kopiatu. Parentesi artean apunta ezazu zer diren: obra orokorrek ala gai batean espezializatuak, eta alfabetikoak ala tematikoak.
▶
- 2) Bilatu hiztegi batean entziklopediaren definizioa eta kopia ezazu:
▶
- 3) Entziklopedia alfabetiko batean entziklopedien gaineko artikulua bat bilatu eta irakurri. Lehendik ez zenekien ezer ikasi al duzu?
▶
- 4) Entziklopedia bat kontsultatzen duzunean, behar den liburukia hartu behar duzu. Ondoren entziklopedia alfabetiko baten liburukien zerrenda duzu, eta entziklopedia tematiko batenena. Apunta ezazu entziklopedia bakoitzeko zein zenbakitan aurkituko zenukeen ondoren aipatzen dizkizuegun gaien gaineko informazioa:

Entziklopedia alfabetikoa

1. A-BAPTI
2. BAQ-CLIM
3. CLIN-DUBY
4. DUCA-FRAZ
5. FRE-INF
6. ING-MARTH
7. MARTÍ-OZU
8. P-REMA
9. REMB-TALL
10. TAM-ZYW

Entziklopedia tematikoa

- | | |
|---|-------------------------------------|
| 1. Animalien bizitza (Zoologia) | 10. Arte ederrak |
| 2. Astronomia | 11. Medikuntza |
| 3. Filosofia eta erlijioa | 12. Jokoak, dibertsioak eta kirolak |
| 4. Historia unibertsala | |
| 5. Geografia unibertsala | |
| 6. Fisika eta Kimika | |
| 7. Literatura unibertsala | |
| 8. Landareen bizitza (Botanika) | |
| 9. Zenbakiak eta espazioa (Matematikak) | |

Ikergaia	Entziklopedia alfabetiko-aren liburukia	Entziklopedia tematikoaren liburukia
Gaudí eta haren obra		
Zenbaki lehenak		
Feniziarak		
Baobabak		
Konstelazioak		
Islandia		
Xake jokoak		
Antibiotikoak		
Budismoa		

- 5) Egin dezagun joko bat entziklopedia tematikoekin. Launaka jarri, talde bakoitzeko entziklopedia alfabetiko bat hartu eta liburukiak mahaira eraman. Lehenbiziko jokalaria gai bat esaten du eta besteek asmatu behar dute zein liburukitan dagoen gai hori. Asmatzen duen lehenbizikoak hurrengo gaia proposatzen du eta horrela aurrerakoan ere. Ondoren joko bera errepika daiteke entziklopedia tematikoekin.
- 6) Osa ezazu honako esaldia:
 - ▶ Entziklopedia -ek informazioa alfabetoz ordenatuta aurkezten dute eta entziklopedia tematikoek informazioa..... aurkezten dute.

2.2 ■ Nola erabiltzen dira entziklopedia alfabetikoak?

Hiztegi entziklopedikoak edozein hiztegi bezala erabiltzen dira. Edukiak alfabetoz ordenatuta daude, sarrera bakoitzari buruzko artikuluen itxuran. Laburdurak eta sinboloak erabiltzen dituzte, batzuk entziklopedietan baizik erabiltzen ez direnak. Haien esangura ikasteko, sarrera irakurri behar dugu.

.....

Entziklopedia alfabetikoetan zenbait artikuluk bi parte dituzte:

- Lehenbizikoak hiztegi bateko artikuluko batekin antz handia dauka, informazio gramatikala, definizioak eta abar izaten baititu.
- Bigarren partea da berez entziklopedia esaten zaiona eta ENC edo ENTZ laburdura izaten du hasieran. Parte horretan informazio osoagoa ematen da, gaia zein den, hala-ko tankeran emana:

Herri bat bada: kokalekua eta mugak, azalera eta populazioa, hiriburua eta jendegune handiak, erliebea, hidrografia, klima, hizkuntza, erlijioa, gobernuak, historia, bandera, ekonomia, industria eta abar.

Probintzia edo hiria bada: kokalekua eta mugak, azalera eta populazioa, historia eta abar.

Animalia bat bada: klasea, familia, bizilekuak, deskripzio fisikoa, elikadura, arnabidea, ugalketa, ohiturak eta abar.

Pertsona bat bada: Nor zen (kargua, lanbidea) jaioteguna, hil-eguna, biografia. Hiztegi entziklopedikoetan, pertsonen buruzko artikuluek deituraren arabera ordenatuta egoten dira.

Artikulu bakoitzeko testuez gain, entziklopediek makina bat ilustrazio, grafiko, eschema, taula kronologiko, koadro estatistiko eta abar izaten dira. Horiek ere kontsultatu behar dira, oso informazio aberatsa ematen baitute.

Espainiako omeiatarrak


'Abd al-Rahmān I	756-788
Hišām I	788-796
Al-Hakam I	796-822
'Abd al-Rahmān II	822-852
Muḥammad I	852-886
Al-Mundir	886-888
'Abd Allāh	888-912
'Abd al-Rahmān III	912-961
Al-Hakam II	961-976
Hišām II	976-1009
y	1010-1013
Muḥammad II	1009-1010
Sulaymān	1009-1016
'Abd al-Rahmān IV	1017-1019
'Abd al-Rahmān V	1023
Muḥammad III	1023-1025
Hišām III	1027-1031

Iturria: Gran Enciclopedia Larousse

2.3 ■ Entziklopedia elektronikoak

Entziklopedia elektronikoak multimedia dokumentuak dira, hainbat bidez aurkeztutako informazioa izaten baitute: testua, irudi finkoa, irudi mugikorra, soinua eta abar. Entziklopedia elektronikoak CD-ROM itxuran edo Interneten egon daitezke.

Entziklopedia elektroniko bat ez da entziklopedia inprimatuak bezala kontsultatzen. Entziklopedia inprimatuak denak modu bertsuan kontsultatzen dira; entziklopedia elektronikoak, berriz, bakoitzak bere kontsulta-bide desberdinak izaten ditu. Adibidez: Hitzaren araberako bilaketa, gaiaren araberako bilaketa, alfabetoaren araberako bilaketa eta abar.



JARDUERAK

- 1) Irakur ezazu animalia bati buruzko artikulua hau, hiztegi entziklopediko batetik aterakoa, eta urdinez inguratu hiztegiari dagokion zatia eta gorritz zati entziklopedikoari:

- **BASURDE.** Iz. Zool. Suidoan familiako ugaztun artiodaktiloa (*Sus scropha*). *Basurde kumeak. Basurdearen urratsa galdu. Basurdearen gisan hortzak estuturik.*

-ENTZIKL. Urde basatia da; ilea latza eta sarria eta muturra luzea ditu; 90 cm-ko altuera, 1,80 m-ko luzera eta 150etik 300 kilora arteko pisua izaten du. Leku zingiratsuetan bizi da, baina baita baso lehorretan ere. Eurasian eta Afrikan zabalduta dago, baina Europako herrialde askotan desagertu egin da. Taldeetan biltzeko joera du; emeak, ume eta ar ahulenekin ibiltzen dira taldean. Egunez zuloan gordeta egoten dira eta arratsean janari bila irteten. Azaro aldera jartzen da emea irausi eta arrak estali ondoren sei, zazpi edo hamabi umetaraino egin ditzake handik hemezortzi-hogei hilabetera.

(Lur hiztegi entziklopedikoa)

- 2) Honako zerrenda honetan marka ezazu zer datu dituen basurdeari buruzko artikulak eta zein ez.

- | | | | | |
|----------------------|-----|--------------------------|----|--------------------------|
| ▶ Klasea | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Familia | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Bizilekuak | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Deskripzio fisikoa | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Elikabidea | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ugalketa | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ohiturak | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |

- 3) Arretaz irakurri entziklopedia elektroniko bateko artikulua hau, Iruñari buruzkoa:

Iruña

1. Nafarroako Foru Komunitateko hiriburua, izen bereko merindadean, Nafarroako erdialdean; 191.200 bizt. Iruñerria delako eskualdean kokatua. Arga ibaiak E-tik W-ra zeharkatzen du. Klima submediterranearra du, hezearen eta lehorraren artekoa. Industria metalurgikoa, automozioa, kimikoa, zurgintzakoa, ehungintzakoa, arte grafikoetako eta elikadurakoa du. Unibertsitate gune inportantea da.

2. HIST. Ponpeiok fundatu zuen Iruña, K.a.ko 75-74. urteko neguan "Pompaelo" izenarekin, segur aski lehengo hiri edo herri baskoi baten gainean. Hiri erromatarra izan zen, arkeologi indusketetan aurkitu denez. Bisigodoek (VIII. m.ara arte) eta musulmanek (VIII. m.aren bukaera bitartean) beren esku eduki zuten. XI. m.aren amaieran Iruña hiri-itxura hartzen hasia zen; jatorrizko biztanle baskoiak Nabarrerria hiri zaharrean bizi ziren; inmigrante frankoak, berriz, ondoko San Zernin eta San Nikolas burgetan. Karlos III.a Nobleak hiria batzeko pribilegioa sinatu zuen (1423); handik aurrera bi komunitateek bat egin zuten eta hiri bakarra osatu. 1512an Albako dukeak Nafarroa inbaditu eta Iruña hartu zuen. Karlismadetan, Iruña liberalen gune nagusia izan zen. Espainiako Gerra Zibilean, berriz, Iruña, Nafarroa osoa bezala, Frankoren alde azaldu zen.

Gerra zibila (1936-39) bukatu ondoren, Iruñak garapen industrial handia izan zuen

(Enciclopedia Universal. Biblioteca Multimedia Santillana Euskaratua)

- 4) Marka ezazu ondorengo zerrendan zer datu dituen artikulua eta zein ez.

- | | | | | |
|---------------|-----|--------------------------|----|--------------------------|
| ▶ Kokalekua | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Azalera | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Populazioa | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Erliebea | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Klima | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ekonomia | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Industria | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Historia | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
| ▶ Monumentuak | Bai | <input type="checkbox"/> | Ez | <input type="checkbox"/> |
- Zure ustez datu hori eguneratua dago? Bai Ez

- 5) Segur aski, behin baino gehiagotan galdezka egonen zinen zure buruan nondik ote datozen zure institutuko edo zure kaleko izenak. Ez duda horrekin segitu! Entziklopedia bat edo bat baino gehiago begiratu eta apunta itzazu aurkitzen dituzun datuak:
 - ▶
 -
 -
- 6) Begiratu entziklopedia batzuk zure institutuko liburutegian eta bila itzazu ilustrazioen, grafikoen, eskemen eta taula kronologikoen adibideak.
- 7) Begiratu entziklopedia elektronikoren bat institutuko liburutegian.

2.4 ■ Hiztegi entziklopediko bat nola aukeratu

Hiztegi entziklopediko guztiak antzeko egitura badute ere, batzuk irakurterrazagoak izan daitezke guretzat edo osoagoak edo lagungarriagoak, beste batzuk baino. Horregatik, komeni da bat baino gehiago konparatzea, ikusteko haietako zein den lasterren kontsultatzeko modukoa, osoena, ulerterrazena, datu konkretuenak ematen dituen, ilustrazio gehien dituen, informazio jakingarrienak ematen dituen eta abar.

JARDUERAK

- 1) Ondoren bi artikulatu dituzu, basurdeari buruzkoak.
 - ▶ Irakur itzazu eta gorritz azpimarratu bi artikuluetan errepikaturik dauden informazioak.
 - ▶ Lehenbiziko artikuluan berdez azpimarratu bertan bai eta bestean ez dauden informazioak.
 - ▶ Bigarren artikuluan urdinez azpimarratu bertan bai eta bestean ez dauden informazioak.

I

BASURDE. *Iz. Zool.* Suidoen familiako ugaztun artiodaktiloa (*Sus scropha*). *Basurde kumeak. Basurdearen urratsa galdu. Basurdearen gisan hortzak estuturik.*

-ENTZIKL. Urde basatia da; ilea latza eta sarria eta muturra luzea ditu; 90 cm-ko altuera, 1,80 m-ko luzera eta 150etik 300 kilora arteko pisua izaten du. Leku zingiratsuetan bizi da, baina baita baso lehorretan ere. Eurasian eta Afrikan zabalduta dago, baina Europako herrialde askotan desagertu egin da. Taldeetan biltzeko joera du; emeak, ume eta ar ahulenekin ibiltzen dira taldean. Egunez zuloan gordeta egoten dira eta arrats-

.....

an janari bila irteten. Azaro aldera jartzen da emea irausi eta arrak estali ondoren sei, zazpi edo hamabi umetaraino egin ditzake handik hemezortzi-hogei hilabetera.

(Lur hiztegi entziklopedikoa)

2

BASURDE. *Iz. ZOO.* Suidoan familiako ugaztun artiodaktiloa, txerriaren arbasoa dena. Ilaje arrea edo iluna da eta zurdaz osatua dago. Muturra luzea du eta behe-barailan letagin nabarmenak ditu. Omniboroak dira eta sastraka ugari dagoen basoetan bizi dira, Europako erdi eta hegoaldean, eta Asian eta Afrikako iparraldean (*Sus scropha*).

(Elhuyar hiztegi entziklopedikoa)

- 2) Erantzun izaiezu aurreko ariketari buruzko galdera hauei:
 - ▶ Bietatik zein iruditu zaizu irakurterrazena? 1 2
 - ▶ Zein iruditu zaizu osoena? 1 2
 - ▶ Zeinek ditu basurdeari buruzko jakingai xeble gehiago? 1 2
 - ▶ Bietako batek lagundu al dizu basurde bat zer den hobeki ulertzen? Bai Ez
 - Zein?
 - ▶ Zer entziklopedia izango zenuke lagungarriena, zure ustez? 1 2

- 3) Orain badakizu nola bilatzen den informazioa hiztegi edo entziklopedia alfabetiko batean, baina nola bilatu entziklopedia tematiko batean? Pixka bat pentsatu eta mintza zaitetz horretaz zure ikasgelako lagunekin.
 - ▶ Zer pentsatu duzue?
 -
 -
 -

Soluzioa 8. unitatean daukazu.

3. Nola erabili entziklopediak lan bat egiteko

.....

Entziklopediek askotariko gai ei buruzko oinarrizko informazioa ematen dizute. Horregatik, lan bat egin behar duzun aldiro, horrelako obrak kontsultatu behar dituzu gaiaren ikuspegi orokorra emanen baitizute, gero beste liburuekin osatu ahal izango duzuna.

Zure lana pertsonalagoa izan dadin, garrantzi handia du begiratzen dituzun entziklopediatik notak hartzen ikasteak, gauzak hitzez hitz kopiatu gabe. Ondoren zenbait aholku ematen dizkizugu horretarako:

ENTZIKLOPEDIA BATEAN INFORMAZIOA BILATU AURRETIK

- Pentsa ezazu gai horri buruz lehendik zerbait ote dakizun, eta idatzi.
- Idatzi itzazu gaiaren gainean sortzen zaizkizun galdera guztiak, entziklopedian erantzuna bilatu nahi zeniekeneak. Hartarako, honako galdera hauek hartu zenitzake oinarri: Nor? Non? Noiz? Nola? Zergatik?

INFORMAZIOA AURKITU DUZUNEAN

- Apunta ezazu zure galderei dagokien erantzuna. Entziklopedia batean aurkitzen ez baduzu, beste batean begiratu.
- Apunta itzazu, gainera, deigarri izan zaizkizun datuak, nahiz eta zure galderen erantzuna ez diren.
- Idatz ezazu testu bat zure hitzekin, lehendik zenekiena, zenituen dudak, aurkitu dituzun erantzunak eta harritu zaituzten datuak erabiliz.

.....

ENTZIKLOPEDIA BATEAN
INFORMAZIOA BILATU BAINO LEHEN

¿Zer dakit gai
honi buruz?
Zer?, Nor? Noiz?
Non? Zergatik?
...



Pentsatu eta zure buruari galdetu



Idatzi itzazu galderak

INFORMAZIOA AURKITU
DUZUNEAN



**Galderei emandako erantzunak
apuntatu eta bai arreta erakarri
dizuten beste datu batzuk ere.**



Hona, neure
testua!

**Lehendik zenekiena eta orain
ikasitakoa oinarri, idatz ezazu
zeure hitzekin testu bat**

Lana errazteko honelako koadro bat erabil dezakezu:

Zer dakit gaiaren gainean?	Zer jakin nahi dut?	Aurreko zutabeko galderen erantzunak

4. Osa ezazu dakizuna internetez

.....

Interneteko webgune askotan debaldeko informazioa ematen da, baina entziklopedia batzuk kontsultatzeko, berriz, harpideduna izan behar duzu edo aurretik idatzizko bertsioa erosita eduki. Honako helbide hauetan entziklopediak begiratzea daukazu, baina bertan adierazten zaizkizun baldintzekin:

<http://www3.enciclonet.com> Informazio gehiago iristeko bide ematen duen erregistro dohainekoa.

<http://www.laenciclopedia.com>. Zenbait egunez debalde probatzea daukazu..

<http://www.euskadi.net/harluxet/> euskarazko entziklopedia, debalde.

5. Ez ahaztu

.....


- Entziklopedietan ez dago giza jakintza osoa, baina giza jakintzaren ikuspegi orokorra ematen dute obra bakar batean.
- Entziklopedia bakoitza bere modura erabiltzeko pentsatua dago. Entziklopediek ezagupen berriak geureganatzeko bide ematen digute eta gero ezagupen horiek entziklopedian bertan edo liburuetan osatzea daukagu.
- Entziklopediak nola kontsultatu jakitea ez da aski. Garrantzi handia du haien artikuluetatik apunteak hartzen ikasteak, hitzez hitz kopiatu gabe.

6. Zer ikasi duzu?

.....

- Entziklopedia mota bat baino gehiago bereizten ikasi dut. Bai Ez
- Entziklopedia alfabetikoak hobeki erabiltzen ikasi dut. Bai Ez
- Entziklopedia desberdinen artean aukeratzen ikasi dut. Bai Ez
- Zenbait ideia ikasi ditut lan pertsonalak egiteko, entziklopedietako artikulua hitzez hitz kopiatu gabe. Bai Ez

.....



AURKIBIDEAK, SUMARIOAK
ETA BESTE TRESNA LAGUNGARRIAK




1. Ba al zenekien?

Erromatarrek asmatu zuten liburuak orrialdetan antolatzeko sistema. Iraultza handia izan zen, antolamendu horrek abantaila handiak zituelako informazioa bilatzerakoan ordu arteko papiri bilguen aldean. Papiroetan, dokumentua destolestu behar zen zer-bait aurkitzeko; orrialdeak, berriz, numeratu zitezkeen. Erraztasun horri eta, bestetik, ordena alfabetikoari esker, hainbat tresna probetxugarri sortu ziren irakurleari liburuak erabiltzen eta datuak bilatzen laguntzeko.

Unitate honetan tresna lagungarri horien berri ikasiko dugu, eta bai haiek nola erabili ere.

2. Zer tresna lagungarri daude liburu batean?

Denetarikoa gaietan espezializatutako informazio liburuak kontsultatu eta bertan dauden informazioak aurkitzeko, tresna lagungarri horiek guztiak nola erabili ikasi behar dugu. Eskema honetan horrelako tresna nagusiak ikusiko dituzu:



EDUKI ZEHATZAK AURKITZEKO TRESNAK	EDUKIARI ORO HAR ANTZ EMATEKO TRESNAK	EDUKIA OSATZEKO TRESNAK
Aurkibidea eta sumarioa	Sarrera eta bukaera	Glosarioa, bibliografia, orri azpiko oharrak

2.1 ■ Eduki zehatzak aurkitzeko tresnak

SUMARIOA	
	6
Maskorrak, oskolak	
	8
Animalia maskordunak	
	10
Bizimodu espiralizatua	
	12
Munduko karramarroak	
	16
Giltzadura duten etxebizitzak	
	18
Itsas maskor bitxiak	
	20
Itsas trikusak	

Sumarioa (beste izenez **gai taula**, **aurkibide orokorra** edo **edukien aurkibidea**) liburuko kapitulu-izenen zerrenda da; hortaz, jorratzen dituen gaien ikuspegi orokorra ematen du.

Moluskuak, krustazeoak eta beste zenbait animalia korazatu liburuarren **sumarioa**. **Alfaguara, 1991**

Animaliak. Gazteentzako entziklopedia ilustratua liburuarren **aurkibide alfabetikoa**. **Tarttalo argitaletxea, Donostia, 2002**

Aurkibide alfabetikoa (beste izenez **gaien aurkibidea** edo **aurkibide analitikoa**) liburu batean jorratzen diren gaiak xehero adierazten duten deskriptore edo hitz gakoen zerrenda alfabetikoa da. Gai bakoitzaren ondotik, gai hori jorratzen den orrialde-zenbakiak ematen dira. Aurkibide honek alfabetoko ordena erabiltzen du, alfabetoz ordenatuta ez dagoen liburu batean datuak errazago aurkitzeko, eta horrela liburu hori kontsulta-obra bihurtzen da berez ez hiztegia ez entziklopedia ez bada ere.

62 • AURKIBIDEA

<p>AURKIBIDEA</p> <p>Letra lodiz idatzirik orrien zenbakirik adiera nagusiak azaltzen dituzte.</p> <p>A</p> <p>abozetak 25</p> <p>adarrak 59</p> <p><i>Appymia</i> (hegazti elefantea) 27</p> <p>ahateak 25, 28, 31</p> <p>ahuntzak 58-59</p> <p>aitz-aitzak 42</p> <p>ainguru-arraina 15</p> <p>aingira europarra 14</p> <p>aingira 15</p> <p>akuria 35</p> <p>akurak 45</p> <p>albatrosak 25</p> <p>albatrosak 25, 26, 29</p> <p>aligatorkak 18, 23</p> <p>alota handia 25</p> <p>alotak 25, 28</p> <p>alkatrazak 25</p> <p>alpaka 57</p> <p>altea 59</p> <p>amiloza 31</p> <p>amoltsak 25</p> <p>anakonda 18</p> <p><i>Amphiprion</i> 27</p>	<p>armiarma-sareak 10</p> <p>Aro Jurankoa 27</p> <p>Aro Kretanikoa 27</p> <p>Aro Mesolitikoa 19</p> <p>Aro Triasikoa 18</p> <p>arropa</p> <p>apo-arraba 17</p> <p>iget-arraba 17</p> <p>arabio 16</p> <p>arabioak 16-17</p> <p>arabioen defentsak 16</p> <p>arria</p> <p>arria 13</p> <p>arria 13</p> <p>arriak 12-13</p> <p>arriak 12-15</p> <p>argia igotzen duten arriak 15</p> <p>arriaren hegalariek 15</p> <p>arriaren hezurdunak 12, 14-15</p> <p>arriaren forma 12</p> <p>arriaren arnasketak 12</p> <p>arriaren arnasketak 12-13</p> <p>arriaren defentsak 14-15</p> <p>arriaren eboluzioak 12</p> <p>arriaren kumulazioak 15</p> <p>arriaren mugimenduak 12</p> <p>gaur egungo arriak zaharrenak 12</p> <p>koralezko arriak 12</p> <p>ozeanoak 12</p>	<p>bastanga 13</p> <p>basurdea 56</p> <p>begi komposituak 4</p> <p>belatz bikontundun ungulatuak 58-59</p> <p>belatza 32</p> <p>belatzaleak 37</p> <p>belatz handia 29</p> <p>belatzak 25, 29</p> <p>beldarra, Herkules sitaren 5</p> <p>beldarrak 5, 9</p> <p>beleak 25</p> <p>beluga 46</p> <p>benartzak 25</p> <p>berantzia, elur 31</p> <p>berantziak 25</p> <p>bideleak 25</p> <p>bikunak 57</p> <p>bingurroak 25</p> <p>boboiak 58-59</p> <p>bobido etseketuak</p> <p><i>Bos primigenius</i> 32</p> <p><i>Bucosaurus</i> 19</p> <p>bufalo afrikar</p> <p>burduntziak</p> <p>buztinak</p> <p>buztinak</p> <p>buztinak</p>
--	---	--

Liburu batzuetan modu nahasgarrian erabiltzen dute *aurkibide* hitza, bai sumarioa eta bai aurkibide alfabetikoa aipatzeko hitz bera erabiltzen baitute. Beste liburu batzuek, berriz, biak bereizten dituzte baina guk ez bezala: sumarioari aurkibide alfabetikoa deituz eta aurkibide alfabetikoari gaien aurkibidea deituz. Garrantzi handia du biak ongi bereizten jakiteak, izena bata ala bestea izan.

Gaien aurkibide alfabetikoaz gain, liburu batek izen berezien aurkibidea, ilustrazioen aurkibidea, aurkibide kronologikoa eta abar ere izan ditzake.

.....

2.2 ■ Aurkibide alfabetikoa gaikako entziklopedietan

Gaikako entziklopediek ere ordena alfabetikoa erabiltzen dute, nahiz eta edukiak ez dauden horrela ordenatuta. Entziklopedia horien bukaeran aurkibide alfabetiko bat agertzen da, adierazteko zein bolumenetan eta orrialdetan jorratzen den gai bat.

Gaikako entziklopedia askotan aurkibide alfabetikoa azken liburukian egoten da eta beraz hura kontsultatu beharko duzu aurrena, bilatu nahi duzuna aurkitzeko.

JARDUERAK

- 1) Begiratu ezazu hau zure institutuko liburutegian:
 - ▶ Entziklopedia alfabetikoek sumarioa al dute? Bai Ez
 - ▶ Gaikako entziklopediek sumarioa al dute? Bai Ez

- 2) Orain, bila ezazu liburutegian dauden gaikako entziklopedietako batean aurkibide alfabetikoa eta konproba ezazu nola gai bakoitza aurkibidean aipatzen diren orrialdeetan jorratzen den.

- 3) Irakur itzazu honako liburu hauen sumarioak. Imajina ezazu informazioa aurkitu behar duzula Erdi Aroko eguneroko bizitzaren gainean lan bat egiteko (etxebizitza, familia, hezkuntza, lana, elikadura eta abar). Zein liburutan aurkituko duzu, zure ustez, informaziorik gehien? Azpimarra ezazu haren titulua eta baitare bilatu nahi duzunerako egokiak iruditzen zaizkizun kapituluak.

A) Aznar, Fernando. *Erdi Aroko Espainia. Musulmanak, juduak eta kristauak*. Madrid: Anaya, 2000.

Sumarioa

Ekialde eta Mendebalaren bilgune	4
Erresuma bisigodoaren gainbehera.....	6
Islama penintsulara iristen da	10
Hiriak.....	16
Iparraldeko kristauen bizimodua	50
Muga aldeko biztanleak	56
Kulturen batgunea	68
Gerra.....	70
Erromanikoa, botere berri baten adierazle.....	74
Santiago bidea Europa bide.....	80
Glosarioa	92
Aurkibide alfabetikoa	94
Bibliografia.....	96

B) Howarth, Sarah. *Zer dakigu Erdi Aroaren gainean?* Madrid: SM, 1996.

Sumarioa

Erdi Aroa zer urte bitartetan izan zen?	8
Kronologia	10
Nola lortzen zuen jendeak janaria?.....	12
Ba al zen behar adina janari?.....	14
Erdi Aroko familiak gureak bezalakoak al ziren?.....	16
Erdi Aroan etxeetan bizi al zen jendea?.....	18
Nortzuk joaten ziren eskolara?.....	20
Denek lan egiten zuten?	22
Oporrik bazuten?	24
Nola jantzen ziren?	26
Zertan sinesten zuten?.....	28
Erljiioak garrantzia zuen?	30
Medikura joaten al ziren?	32
Nork gobernatzen zuen?	34
Ba al zen artistarik Erdi Aroan?.....	36
Ba al zen zientzilari eta inbentorerik?	38
Bidaiak egiten ziren Erdi Aroan?.....	40
Nola bizi ziren soldadoak?	42
Hiztegia	44
Aurkibide alfabetikoa	45

- 4) Arretaz irakurri ondorengo sumarioa, honako liburu honena: Ventura, Piero. *Komunikazioa. Informazioa denboran barrena trukatzeko baliabideak eta teknikak*. León: Everest, 1994, eta erantzun iezaziezu galderei:

Hieroglifoak	5
Ideogramak eta idazkera alfabetikoak.....	6
Grekoen antzerkia	8
Grekoen eta erromatarren sinboloak eta ikurrak	10
Acta diurna	12
Erromatarren posta zerbitzuak.....	13
Erljio sinboloak	14
Irudikapen sakratuak eta pintura.....	16
Blasioiak, banderak, tronpetak, danborrak eta ezkilak	18
Kodeak eta miniaturak.....	20
Juglareak, pikaroak era erromantze-bildumak.....	23
Kalkografia, xilografia, akuaforteak eta inkunableak.....	24
Tipo mugikorrak.....	26
Tipo mugikorrekiko inprenta	27
Kazetak eta editoreak.....	30
Idazmakina	32

.....

Argazkia.....	33
Gaurko posta zerbitzua.....	35
Telefonoa.....	36
Telegrafoa.....	38
Hari gabeko telegrafia	39
Fonografoa.....	41
Zinematografoa	42
Nola egiten da film bat.....	44
Irratia	46
Nola egiten da egunkari bat.....	48
Nola inprimatzen da egunkari bat.....	50
Telebista estudiotik etxeko aparatua	52
Nola egiten da telebista.....	55
Publizitatea.....	56
Sare informatikoak.....	58
Sateliteak.....	60
Glosarioa.....	62

Zure ustez, zein kapitulutan aurkituko duzu gai hauei buruzko informazioa:

4.1) Pikaroak.

- ▶ Zein da kapituluaren titulua?
- ▶ Zein orrialdetan hasten da?

4.2) Telebistako estudioak

- ▶ Zein da kapituluaren titulua?
- ▶ Zein orrialdetan hasten da?

4.3) Film bat egitea

- ▶ Zein da kapituluaren titulua?
- ▶ Zein orrialdetan hasten da?

4.4) Tronpeten edo kanpaien bidezko komunikazioa

- ▶ Zein da kapituluaren titulua?
- ▶ Zein orrialdetan hasten da?

4.5) Ordenadore sareen bidezko komunikazioa

- ▶ Zein da kapituluaren titulua?
- ▶ Zein orrialdetan hasten da?

- **5) Konpara itzazu bi sumario hauek. Zein gaitan egiten dute bat? Azpimarra itzazu gorritz bi liburuetan errepikatzen diren gaiak, nahiz eta kapituluaren tituluak diferenteak izan.**

5.1) Butterfeld, Moira eta Orr, Richard. *Izadiaren liburu harrigarria*. Madrid: Santillana, 1995.

Kastoreak.....	4
Termitakabia	6
Tropikoetako ibai-hegia.....	8
Amazoniako oihana	10

Basoa	14
Haritza.....	16
Bizitza Antartikan	18
Bizitza Ozeano Artikoan.....	20
Kostaldeko istilak	22
Erlauntza	24
Ipar Amerikako basamortua	26
Ozeanoa.....	28
Aurkibidea	30

5.2) Gallavotti, Bárbara. *Ekologia*. Madrid: Editex, 2000.

Biosfera.....	8
Izadiaren energia.....	10
Elikatzearen piramidea.....	12
Hobi ekologikoa.....	18
Biodibertsitatea	22
Ugaltze estrategiak.....	24
Biosferako zikloak.....	32
Zer da ekosistema bat?.....	34
Izadiko giro handiak	40
Tundra	42
Taiga	46
Baso epelak	50
Giro mediterranearrak.....	54
Oihan tropikalak.....	58
Belardiak	62
Sabana.....	66
Basamortuak	70
Mendiak.....	74
Aintzirak	78
Ibaiak.....	80
Artikoa	82
Antartika.....	86
Gizakiaren eskuhartzea.....	90
Aurkibide analitikoa	92

Orain esan ezazu bi liburu hauetatik (1 eta 2) zein izango zenukeen lagungarri honako gaien gaineko informazioa bilatzeko:

- ▶ Sabana 1 2
- ▶ Erlauntzak 1 2
- ▶ Elikatzearen piramidea 1 2
- ▶ Termitak 1 2
- ▶ Antartika 1 2
- ▶ Gizakiak naturaren gainean duen eragina 1 2

.....

– 6) *Alerta Lurra* (David Burnie, Ediciones SM, 2001) liburuko sumarioaren eta aurkibidearen zati batzuekin lan egingo dugu. Ondorengo galderei erantzun beharko diezu biak kontsultatuz.

Sumarioa

Sarrera	8
1. Planeta bat ederra.....	10
1.1 Klima aldaketak	14
1.2 Aire garbia ... ala zikina.....	18
1.3 Baliabide baliotsua	20
1.4 Ur kutsatua	26
2. Lurra, gure etorkizuna.....	28
2.1 Higadura.....	30
2.2 Habitat mehatxatuak.....	36
2.3 Oihanak krisian	38
2.4 Suteen aurreko alerta.....	40
2.5 Animalia mehatxatuak	42
3. Bizi baldintzak	46
3.1 Gizakiaren presioa.....	48
3.2 Energia zikina.....	54
3.3 Etorkizun garbia	56
3.4 Ekintza plana	58
Aurkibide alfabetikoa	60

Aurkibide alfabetikoa

A

aerosolak	19
aire zikina	18-19
Amazonas ibaia.....	38
animaliak	12, 13
Antartika.....	12

B

bakteriak.....	13
baso jasagarriak.....	39
berokuntza globala	14, 15, 36
berotegi efektua.....	14, 15
biodegradazioa	53
biosfera	12, 13

E

energia.....	54,55,56
energia aurreztu.....	55
erradiazioa	54

E

erreziklajea	50, 51
espezie mehatxatuak	42, 43
hondakinak.....	26, 50-51

K

kasko polarra.....	15, 16, 17, 36
klima aldaketa	15, 22

N

nekazaritza	32-33
-------------------	-------

U

ura	
ur gastua	27
ur geza	20-21
ura aurreztu.....	21
uraren zikloa.....	26

6.a) Sumarioa begiratu, esan zein kapitulutan aurkituko zenukeen honako gai hauen gaineko informazioa:

1) Lurraren kliman gertatzen ari diren aldaketak

Kapitulua: Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori?

2) Uraren kutsadura Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori?

3) Desagertzeko arriskuan dauden animaliak ¿Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori?

4) Sute arriskua Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori?

5) Gizakiak naturaren gainean duen eragina Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori?

6.b)) Orain begiratu aurkibide alfabetikoa eta erantzun ondorengo galderi. Apunta itzazu aurkibidean bilatu dituzun hitzak, galdera bakoitzari erantzuten saiatzeko eta azpimarra ezazu aurkitu duzuna:

1) Liburua erreziklajeaz ari da? Bai Ez

▶ Zein orrialdetan?

▶ Bilatu dituzun hitzak

2) Liburu honek, zure ustez, zaborrari buruzko berriak izango ditu? Bai Ez

▶ Zein orrialdetan?

▶ Bilatu dituzun hitzak

3) Zein orrialdetan aurkituko zenuke Antartikari buruzko informazioa?

▶ Bilatu dituzun hitzak

4) Liburu honek berotegi efektuaren gainean ari al da? Bai Ez

▶ Zein orrialdetan?

▶ Bilatu dituzun hitzak

5) Liburu honek aire kutsatuaren gaineko informazioa du? Bai Ez

▶ Zein orrialdetan?

▶ Bilatu dituzun hitzak

– **7)** Imajina ezazu gehien gustatzen zaizun musikari buruzko lan bat egin berria duzula, eta zenbait kapitulu eskaini dizkiezula zure talde eta kantari gustukoenei. Asma ezazu zein litzatekeen lan horren sumarioa, kapitulu bakoitzerako titulu adierazkorrak erabiliz:

NIRE GUSTUKO MUSIKA

Sumarioa

Sarrera

I. kapitulua

II. kapitulua

III. kapitulua

IV. kapitulua

V. kapitulua

VI. kapitulua

Bukaera

Aurkibide alfabetikoa

.....

- **8)** . Ausartuko zara zure gustuko musikari buruzko lan horren aurkibide alfabetiko zati bat asmatzen?

8.a) Hasteko, lan horretan jorratuko zenituzkeen gai batzuk pentsatu besterik ez duzu egin behar, eta hitz gakoien zerrenda bat egin. Adibidez: rap, flamenkoa, Chenoa, musika zelta, Itoiz, perkusioa, Estopa, Mikel Laboa eta abar.

.....
.....

8.b) Ondoren, egin duzun zerrenda horretako hitzak ordenatu behar dituzu, ordena alfabetikoan, eta gero alfabeto tarteen arabera banatu hitzak, eta asma ezazu zein orrialde zenbakitan agertuko litzatekeen gai bakoitzari buruzko informazioa. Begiratu adibide honetan:

A-C

Chenoa 12

D-L

Estopa 10

Flamenkoa 5

M-Q

Mikel Laboa 1

Musika zelta 3

Perkusioa 4

R-Z

Rap 2

Aurkibide alfabetikoa

A-D

.....
.....
.....
.....
.....

M-Q

.....
.....
.....
.....
.....

E-L

.....
.....
.....
.....
.....

R-Z

.....
.....
.....
.....
.....

2.3 ■ Edukiari oro har antz emateko tresnak

Sarrerak edo hitzaurreak obraren edukia eta helburua laburki iruzkintzen du. Gainera, maiz, nola erabili behar den jakiteko jarraibideak ematen ditu, edo erabili diren zeinu konbentzionalen gaineko esangurari buruzkoak, batez ere kontsulta lanetan. Batzuetan sarrerak kapitulu bakoitzaren irispide eta ikuspuntuaren berri ere ematen dio irakurleari, sumarioak ematen duen informazioaren osagarri.



Sarrera

Espainiarrek XVI. mendeko lehen herenean konkistatu zuten Peruko herria, baina nahiko neke izan zuten handik hegoalderago joaten, Chili izeneko lurraldeetara.

Txileko lurraldea luzetara hiru eremutan banaturik dago: Kostako goi-zelaiak, Andeatoko mendiak, eta pampak* (barnealdeko zelaiak). Lurralde zabal horietan hainbat indigena talde bizitzen ziren: txangoak, diagitak, pulcheak, maputxeak eta abar. Herri horiek ez zuten inoiz batasunik ez estaturik izan. Batasunik ez

horrek eman zion bere eite berezia Txileko konkistari.

Mexiko eta Peruko inperio handiak ez bezala, Txile menderatzea lan nekoso eta luzea izan zen eta hartan espainiarrek ezin konta ahala tribu garaitu behar izan zituzten bata bestearen ondotik. Tribu horietako batzuek, maputxeek edo araukanoek, kasu, arrisku handian jarri zuten konkistaren enpresa.

*Izartxo bat duten hitzak liburuaren bukaerako glosarioan esplikatzen dira.

**González, C.: *En la tierra de las pampas.*
Descubrimiento de Chile y Argentina. Madrid: SM, 1991.
(Euskaratua)**

Bukaerak liburuko testuan emandako funtsezko ideien sintesi edo laburpena ematen du.

Ondorioz

Arrazismoaren kontra egunero egin behar dira eginahalak, beti erne egonaz, behin ere etsi gabe. Lehenbizi, hizkuntzarekin eman behar da exenplua: kontu egin behar da zer hitz erabiltzen ditugun. Hitzak arriskutsuak dira, hitz batzuek zauritu eta iraindu egin dezakete. Mesfiantza eta are gorrotoa piztu. Beste batzuetan, hitzak beren hasierako esan-guratik aldendu eta hierarkia eta bereizkeria markatzeko erabiltzen dira. Beste batzuk, berriz, eder eta egoki dira. Saia zaitez aurre-juzkuei muzin egiten, jeneralizazioa eta beraz arrazismoa dakarten esapide eta esakerak baztertzen. Saia zaitez zure hiztegitik kentzen ideia faltsu eta kaltegarriak kargatuta datozen mintzamoldeak. Arrazismoaren kontrako

7

**Ben Jelloun Tahar: *Papá, ¿qué es el racismo?*
Madrid: Alfaguara, 1998. (Euskaratua)**

Sumarioa, sarrera eta bukaera irakurtzea aski da batzuetan liburu baten edukiari antz emateko, liburu osoa irakurri gabe ere, eta erabakitzekeo liburu gure interesekoa den ala ez. Horrela, halaber, erabaki dezakegu liburuko zein parte irakurriko dugun osorik eta zein ez.

EDUKIA OSATZEKO TRESNAK

Glosarioa edo **hiztegia** lagungarri zaigu hitz berriak edo zailak ulertzeko. Testuko hitz espezializatuen zerrenda da, ondoan definizioak dituztela.

GLOSARIOA

Interneti buruz ari garenean erabili ohi diren hitzen aukera.

Eranskina: Posta elektronikoko mezu baten zati gisa eranstean den fitxategia. Mezuaren ondoko klip batez adierazten da.

Nabigatzailea: Web nabigatzailearen modu laburtua, webean nabigatzeko aukera ematen dizun software programa da. Web nabigatzaile-rik ezagunena Microsoft-en Internet Explorer delakoa da, eta Netscape eta Opera dira maiz erabili ohi diren beste bi nabigatzaile.

Berriketa-gela: Interneteko berriketa-saioak egiteko topaleku birtuala. Gela hauek gaika ordenatzen dira, honela, erabiltzaile bakoitzak antzeko interesak dutenekin berriketan jardun dezake. Berriketa-gela batean zaudenean, gertatzen ari diren elkarrizketa publiko guztiak pantailan berehalaxe ikus ditzakezu.

Kuki (Cookie): Web orrialde batek bere ordenagailuan bezero gisa identifikatzeko jartzen dituen testu-fitxategitxoak dira. Internetetik azkarrago nabigatzeko aukera eskaintzen dute, gogokoenei buruzko informazioa gordetzen baita. Pertsona batzuk pribatasunaz kezkatzen dira, web guneek kukiak bidez zuri buruzko informazio orokorra lor baitezakete. Zure nabigatzailea kukiak onartu baino lehen ohartarazteko edo ez kukiak ez onartzeko konfiguratu dezakezu.

Domeinu-izena: Interneteko helbideen antolaketa-sistemaren zati da. Domeinuak sektoreka banatuta dauden inguru handiak dira (.com mer-

kataritza-sektorearentzat, .ac hezkuntza-sektorearentzat, etab.) eta pAIs. Azpidomeinuak domeinu handi horien barruko inguru txikiagoak dira (bbc.co.uk, esaterako).

Direktorioa: Bilaketa-direktorioa informazioa berreskuratzen laguntzeko, sarearen edukien zati bat mailaka eta gaika antolatzen dituen web gunea da. Yahoo da honen adibiderik onena.

Behera kargatzea: Internetetik zure ordenagailura informazioa eramatean datza. Posta elektronikoen egiaztapenak mezuak behera kargatzea dakar. Zure ordenagailuan edozein fitxategi behera karga daiteke, baina kontuz ibili behar zara ezagutzen ez dituzun guneekin, birus bat behera karga baitenezake.

Posta elektronikoa: Posta elektronikoa Internetetik posta-mezuak bidali zein jasotzeko aukera ematen ditu. Posta elektronikoa bitartez, posta-kontua duen edonori idatz diezaiokazu.

Gogokoak: Bisitatutako web orrialdeen erreferentziak, gero orrialde horietara zuzenean joan ahal izateko gordetzen direnak.

FAQ: Maiz egiten diren galderen laburdura ingelesez (Frequently Asked Questions). Normalean, eztabaida-talde (posta-zerrendak edo berri-taldeak) baten kideek maiz egiten diren galderen zerrenda bat egiten dute.

.....

Bibliografia, gaiaren gaineko informazio osagarria duten dokumentuen zerrenda bat da. Jeneralean egileak liburua idazteko erabili dituenak izaten dira.

Bibliografia



- Anderson, J.C., Leaver, K.D., Rawlings, R.D., Alexander, J.M., *"Ciencia de los materiales"*, 2ª ed., Limusa, Méjico.
- Ashby, M.F. y Jones, D.R.H., *"Engineering Materials 1. An introduction to their Properties and Applications"*. Pergamon Press, Oxford (UK), 1980.
- Ashby, M.F. y Jones, D.R.H., *"Engineering Materials 2. An Introduction to Microstructures, Processing and Design"*. Pergamon Press, Oxford (UK), 1986.
- Gordon, J.E., *"The New Science of Strong Materials, or Why you Don't Fall Through the Floor"*. Penguin Books, London, 1976.
- Rodríguez Ibabe, J.M., *"Hausturaren mekanika (Injinerutzarako materialetan)"*, Ed. Elkar, Donostia, 1990.
- Rodríguez Ibabe, J.M., *"Materialen portaera elastikoa eta plastikoa"* 1. argitalpena, Elhuyar, Donostia, 1988.
- Rodríguez Ibabe, J.M., Urkola Galarza, J.J. *"Altzairuen diseinurako metalurgia fisikoa"* 1ª ed. Ed. Elkar, Donostia, 1993.
- Smith, W. F., *"Fundamentos de la Ciencia e ingeniería de materiales"*, 3ª ed., Mc Graw-Hill, Madrid, 1998.

Oharrek bi parte izaten dituzte: oharraren zenbakia, testuan sartuta egoten dena, eta oharra bera, buruan zenbaki hori izaten duena. Oharrak orrialdearen behealdean egoten dira (oin-oharrak) edo liburuaren bukaeran (bukaerako oharrak).

Oharrak testuaren gaineko argitasunen bat emateko izaten dira eta bai zati bat edo ideia bat kopiatzeko erabili den dokumentu baten datuak emateko ere.

Danann-go Tuatha jendearen historia laburra

Zerbaitengatik aukeratu ditugu gaitzat Tuatha jendea eta haien goraberherak: Tuatharrek, izan ere, ederki ematen dute aditzera nola herri bat osoa, mitoaren eta historiaren labroetan galdurik, lur azpiko jendaki bihurtzen den, gainerako gizakietatik urrundua, eta nola handik aurrera denetarikoa kondairen sorburu egiten diren, espiritu ahaltsu, trikuharri, harpila eta lur-azpiarekin lotuak¹.

Konkisten liburuak (Leabhar Gabala) kontatzen du sei jendakik inbaditu zutela Irlandako uhartea, hura fomoriarrak (edo formorioak) zituenean biztanle. Batzuek (eskoziarrek) Formoriar horiek digante arraza bat zirela kontatzen dute; beste batzuek (irlandesek) demonio arraza bat zirela. Toki bietan, lurreko lehen biztanleak ziren. Eskozian ez ziren Irlandan bezain gerrazaleak eta pixkanaka inbaditzaile haiekin nahasi ziren. Irlandan, berriz, ez. Irlanda inbaditu zuten lehenbizikoak, orain bederatzi mila urte, partoloak izan ziren, fomoriarrak bataila askotan garaituta.

¹ Irlandako tradizio batzuek diote herri hori zerutikakoa dela; Kasiopea konstelazioko Danann izarretik etorria, hain zuzen (Egilearen oharra).

Callejo, Jesús: *Gnomos y otros espíritus masculinos de la naturaleza*. Madrid: EDAF, 1999. (Euskaratua)

JARDUERAK

- 1) Liburutegiko 2, 3, 5, 6, 7 edo 9. apalategietan bila ezazu bai sarrera eta bai bukaera dituen liburu bat. Irakurri sumarioa, irakurri sarrera. Laburki esan ezazu zein den liburu horren edukia:

▶

.....

.....

.....

.....

.....

- 2) . Begiratu liburutegiko informazio liburu batzuk (2, 3, 5, 6, 7 edo 9. apalategiak) eta begiratu horietan non diren glosarioa, oharrak eta bibliografia.
- 3) Liburutegiko 2, 3, 5, 6, 7 edo 9. apalategietan unitate honetan ikasi ditugun tresna lagungarri guztiak dituzten bi liburu bilatu. Tresna horiek zein diren gogoratzeko, hasierako eskema erabiltzea daukazu.
- 4) Osa itzazu ondorengo esaldiak azpian ageri diren hitzekin:
 - ▶ Sumarioa eta aurkibide alfabetikoa lagungarri zaizkigu liburuetako aurkitzeko.
 - ▶ Sumarioa liburu baten gidoia da eta bere-en ordenari jarraitzen dio.
 - ▶ Aurkibidea, liburuan jorratzen diren-en zerrenda alfabetikoa da.
 - ▶ Liburu hiri bat balitz, sumarioa litzateke eta aurkibidea, berriz, lirateke.
 - ▶ Liburu batek aurkibiderik ez duenean oso..... da bila gabiltzan informazioa aurkitzea.
 - ▶ Liburu baten bukaera, liburuko ideia nagusien..... da.
 - ▶ Glosarioa txiki bat bezala da, liburu baten edukia ulertzen laguntzeko egina.

seinaleak	laburpena	planoa	zaila	hiztegi	gai	kapitulu	informazioa
-----------	-----------	--------	-------	---------	-----	----------	-------------

3. Nola erabili tresna lagungarriak lan bat egiteko

.....

Unitate honetan aztertu ditugun tresna lagungarriek zure lanetarako behar dituzun datuak non diren aurkitzeko balioko dizute, eta baita ere liburuak osorik irakurri gabe jakiteko zein diren zuretzat interesgarriak.

Informazio-liburuak kontsultatzeko tresnak erabiltzen jakiteaz gain, garrantzi handia du egiten dituzun lanetan ere tresna horiek sartzeko ohitura hartzeak; gutxienez sumario bat eta bibliografia, lanerako erabili dituzun dokumentuekin, erabili ditugun iturriak aipatzea funtsezkoa baita.

Horrez gain aurkibide alfabetiko bat eta oharrak jartzen badizkiozu lanari, lan ederra egin izango duzu. Testu prozesadoreek tresna horiek automatiko itxuratzen aukerak izaten dituzte, baina komeni da eskuz ere nola egiten diren jakitea.

Inportantea da, halaber, liburuetatik notak hartzen direnean lerroaldeak ez hitzez hitz kopiatzea. Horretarako, egin kasu 6. unitatean horretaz ematen diren aholkuei. Dena den, esaldi bat zehazki aipatu behar dugunean, ohar bat erabil dezakegu esplikatzeko norengandik eta zein liburutatik kopiatu dugun.

.....

4. Ez ahaztu

.....

- Liburuek tresna asko dituzte irakurtzea eta kontsultatzea errazteko.
- Sumarioa eta aurkibide alfabetikoa bi tresna funtsezko dira liburu batean informazioak non diren antz emateko.
- Tituluan, sumarioan, sarreran eta bukaeran ageri den informazioa lagungarri zaigu azkar antz emateko liburu baten edukiari eta guretzat interesgarria den ala ez erabakitzeko.

5. Zer ikasi duzu?

.....

- ▶ Liburuen tresna lagungarriak zer diren ikasi dut. Bai Ez
- ▶ Aurkibideak eta sumarioak erabiltzen ikasi dut. Bai Ez
- ▶ Ikasi dut liburu batetik zein zati irakurri behar ditudan edukiari oro har antz emateko Bai Ez



AZKEN UNITATEA:
LAN BAT EGITEKO JARRAIBIDEAK



Unitate didaktiko hauetan barrena ikerketa lan bat egiteko baliagarri diren estrategiak ikasi eta landu ditugu, herri- nahiz eskola-liburutegietako hainbat dokumentu mota erabiliz.

Unitate honetan, ikasi ditugun estrategia horiek guztiak lotu nahi ditugu lan bat egitean egoten diren aldi desberdinekin, hobeki uler dezazun ezagutza horiek zertan izango zaizkizun lagungarri zure eguneroko bizitzan.

Lan bat bost etapatan egin

■ Gaia hautatu eta mugatu.

Askotan irakasleak emanen dizu gaia baina zuk gai hori ongi mugatu beharko duzu, irakasleari behar den gutzia galdetuz, bai lanaren zabalera eta bai azken buruko aurkezpenaz.

■ Bilatu eta hautatu gai horri buruzko dokumentuak liburutegietan.

Liburutegia ezinbestekoa da dokumentuak bilatzeko etapan. Gogoratu garrantzia handia duela liburutegira aurretik fitxa bat eginda joateak, gauzak antolatzen lagunduko baituzu (irakurri 1. unitatea).

Hasteko, liburutegi horretan dauden hiztegi eta entziklopediak begiratzea daukazu (5. eta 6. unitateak irakurri).

Liburutegiko katalogoak ere begiratzea daukazu, zure lanaren gaia sakonago jorratzen diren dokumentuak aurkitzeko (3 eta 4. unitateak irakurri).

Zein liburu behar dituzun erabakiz gero, tresna lagungarriak erabiliz kontsulta ditzaitezue (irakurri 7. unitatea).

■ Apunta itzazu nahi dituzun informazioak.

Kasu egin liburu eta entziklopedietan idatzita dagoena hitzez hitz kopia gabe notak hartzeko eman dizkizugun kontseiluei (6 eta 7. unitateetan).

Apunta ezazu beti zein dokumentutatik hartu duzun informazio bat, azkenean aipatu ahal izateko.

■ Osa ezazu lan pertsonal bat bildu dituzun informazioekin.

Lana idazterakoan, aurrena gidoi bat egin eta horren inguruan antolatu testua. Gidoia, behar diren ukituak emanda, zure lanaren sumarioa izango da.

Dokumentu batetik kopiatutako zati bat sartzen baduzu, haren iturria aipatu behar duzu ohar batean (irakurri 7. unitatea).

■ Lana besteei aurkezteko prestatu (irakasle, ikaskide eta abarri).

Garbira pasatu beharko duzu eta ilustrazioak, eskemak eta grafikoak sartu, haien iturriak aipatu zerorrek eginak ez badira.

Gogoratu idatzizko lan batean portada sartu behar duzula, eta bertan titulua, egilearen datuak (hots, zureak) edo egileenak (talde lana bada), institutuaren izena, ikasgela, data eta abar.

Aurkezpena askoz hobea izango da tresna lagungarri batzuk sartzen badituzu: sumarioa, sarrera eta bukaera, bibliografia bat eta, ahal baduzu, aurkibide alfabetiko bat (irakurri 7. unitatea).


Gogoratu lana itxuratzeko erabili dituzun dokumentuen datuak aipatu behar dituzula bibliografian (irakurri 2. unitatea).

Ahozko aurkezpena egin behar baduzu, komeniko zaizu eskuen artean ohar batzuk izatea, bertan titulua, sarrera, jorratu behar dituzun atalen gidoia, bakoitzaren ideia nagusiak, aipamenak, dokumentuen erreferentziak eta bukaera. Esplikazioak ilustratzeko, gainera grafikoak, marrazkiak, argazkiak, mapak, transparentziak, grabazioak eta abar erabiltzea daukazu. Horrek argitu eta biziagotuko du zure esplikazioa.

.....



JARDUEREN EBAZBIDEA



1. unitatea

2.1

2.1. jarduera

Lan eremua - Entziklopedia bat kontsultatu
Katalogoen eremua - Liburu bat ba dagoen begiratu
Hemeroteka - Elhuyar aldizkariaren azken alea bilatu
Harrera - Liburutegiaren gaineko informazioa eskatu
Ordenadoreen eremua - CD-ROM bat irakurri
Nobedadeen erakustokia - Ikusi zer liburu ikusgai dauden eta mailegatuta eramatea
Irakurtze eremua - Dokumentu inprimatu bat irakurri

2.2

2.2. jarduera

- 59 **Zoologia**
- 840 **Frantses literatura**
- 60 **Teknika. Medikuntza Zientzia aplikatuak**
- 29 **Erlijio ez kristauak. Mitologia**
- 38 **Pisu-neurriak**
- 77 **Argazkigintza**
- 81 **Medikuntza**
- 79 **Jolasbideak. Ikuskizunak. Jokoak eta kirolak**
- 74 **Arte aplikatuak eta artisautza. Esku lanak**
- 52 **Astronomia**
- 37 **Hezkuntza. Irakaskuntza. Prestakuntza**
- 03 **Entziklopedia orokorrak. Hiztegiak. Manualak**
- 68 **Informatika**
- 15 **Psikologia**

3. jarduera

- Argazkigintzari buruz zerbait ikasi **77**
 - Eskubaloian jokatzeko arauak ikasi **79**
 - Madame Curieren biografia ikasi **92**
 - Orkestra bat nola osatzen den ikasi **78**
 - Txiste liburu bat bilatu **82-35**
 - Xakean ikasi **79**
 - Poesiazko liburu bat irakurri **82-1**
 - Eguraldia nola aurreikusten den ikasi **55**
 - Hegoamerikako historiari buruzko gauzak ikasi **98**
 - Komiki bat irakurri **82-9**
 - Ipar Poloaren esplorazioari buruzko gauzak ikasi **91**
-

2.3

1. jarduera

.....

Gaiak alfabetoz ordenatuta daude eta ez dute inolako hierarkiarik.

3. jarduera

.....

Zer letratan aurkituko dut Bernardo Atxagaren poema liburu bat? **P letran.**

Zer letratan daude Asterixen komikiak? **C letran (erdaraz bada) edo K letran (euskaraz).**

Zer koloretan daude 13 urtekoentzako liburuak? **Berdean.**

Non daude sailkaturik teatro liburuak? **T letran.**

Zer koloretan aurkituko dut 3 urteko ahizparentzako liburua? **Urdinean.**

.....

2. unitatea

2.1

4. jarduera

- 1 B
- 2 C
- 3 A

2.2

5. jarduera

Askotariko proposamenak egon daitezke baina hona hemen ebazbide posible bat:

- **Albiste nazionalak**
- **Nazioarteko albisteak**
- **Herriko eta inguruko albisteak**
- **Umorea**
- **Kirola**
- **Zientzia eta etorkizuna**
- **Natura**
- **Kultura**
- **Zinea eta telebista**
- **Ikastetxeko albisteak (txangoak, jardueretan parte hartzeko aukerak, eta abar. Ikasleek idatzi behar lituzkete).**

2.4

3. jarduera

Irakasleak honako alderdiak konparatzera orienta lezake eztabaida:

Zer da atseginagoa: ukitu daitekeen dokumentu bat ala ukitzen ez dena?

Zer dokumentu dira erakargarrienak beren aurkezpenagatik?

Zer dokumentu dira errazenak erabiltzeko?

Zer dokumentuk behar dituzte baliabide gehiago erabili ahal izateko eta beraz ezin ditu nornahik edo noiznahi erabili?

Zer dokumentu dira garestiagoak?

3. unitatea

2.2

5. jarduera

Bernardo Atxaga - **ATX**

Elvira Lindo - **LIN**

Itxaro Borda - **BOR**

Alejandra Vallejo-Nájera - **VAL**

Joan Manuel Gisbert - **GIS**

Jon Mirande Aipasorho - **MIR**

Astrid Lindgren - **LIN**

6. jarduera

La historia de los grandes inventos - **his**

Euskal Musika - **eus**

Días de Reyes Magos - **dia**

Sukaldaritzako hastapenak - **suk**

El mundo de Sofia - **mun**

Inork ikusi al ditu guraizeak? - **ino**

La tienda de las palabras - **tie**

Al borde del Nilo, los egipcios - **bor**

Morfeo Padilla, soñador de sueños ajenos - **mor**

Zeru horiek - **zer**

7. jarduera

JEN honako egile honen deiturako lehen hiru letrak dira: **Terry Jennings**.

kim honako hitz honen lehen hiru letrak dira: **kimika**, tituluko lehen hitza baita (**Kimika erraza**).

54 zenbakia honako gai honi dagokio: **Kimika**

PEL honako egile honen deiturako lehen hiru letrak dira: **Didier Pélaprat**

hom honako hitz honen lehen hiru letrak dira: hombre, artikulua kontatu gabe tituluko lehen hitza baita (**El hombre y su cuerpo**).

61 zenbakia honako gai honi dagokio: **Medikuntza. Osasuna**.

8. jarduera

1 A 3 D

2 C 4 B

.....

9. jarduera

Gaizki dauden liburuak **50-POL** eta **64-WAL** dira

10. jarduera

Heriotza Mendebaldean eta Euskal Herrian. Murgil taldea - **393-MUR-her**

La conquista del aire. María Martinell - **629-MAR-con**

Akuarioko arrainak. David Ford - **597-FOR-pec**

Balenontziak. Pedro Quesada - **629-QUE-bal**

Animalien kamuflajea. Anita Ganeri - **59-GAN-ani**

El cielo y el espacio. Pierre Kohler - **52-KOH-cie**

Kulturaren enigmak. Marvin Harris - **39-HAR-kul**

Enviado especial al Polo Sur. Luis Pancorbo - **07-PAN-env**

11. jarduera

8 Arrainak. Alwyne Wheeler

4 Arrain harrigarriak. Mary Ling

2 Akuarioko arrainak. David Ford

5 Arrainen mundu liluragarria. Efrén Quintanilla

6 Itsasertzak. Sue Swallow

7 Marrazoak. Jane Walker

1 Arrainen bizitza. Maurice Burton

3 Arraina. Sabine Krawczyck

2.4

1. jarduera

Bila zabiltzan dokumentua	Egilea	Titulua	Gaia
Miguel Delibesen liburu bat	Delibes, Miguel		
Eraztunen jauna filmak oinarri duen liburua		Eraztunen Jauna	
Zakurrei buruzko liburu bat			Zakur, zakurrak
Xabier de Lizardiren poema liburu bat	Lizardi, Xabier		
Mendizaletasunari buruzko liburu bat			Mendi,

Bila zabiltzan dokumentua	Egilea	Titulua	Gaia
Herri musikari buruzko liburu bat			Herri musika
Arturo Pérez-Reverteren <i>Alatriste kapitainaren abenturak</i> saileko liburu bat	Pérez-Reverte, Arturo		
<i>Behi baten memoriak liburu</i>		<i>Behi baten memoriak</i>	

2. jarduera

Bila zabiltzan dokumentua	Egilea	Titulua	Gaia
Estopa-ren kasete bat	Estopa		
<i>Galaxietako Gerra</i> filmaren bideoa		<i>Galaxietako Gerra</i>	
Aldizkari artikulua bat morsen gainean			Morsa, mortsak
Antartikari buruzko bideo bat			Antartika
Matematika CD-ROM bat			Matematika
Mozarten compact-disc bat	Mozart		
<i>Spiderman</i> DVDa		<i>Spiderman</i>	
Basoei buruzko CD-ROM bat			Baso, basoak
Icebergei buruzko aldizkari artikulua bat			Iceberg

3. jarduera

Gaiak - Hitz gakoak

Etxebizitzak historian barrena izan duen bilakaera - Etxebizitza, historia

Edateko uraren eskatea Afrikan - Ura, Afrika

Haurren eritasun kutsakorrak - Eritasunak, haurrak

Elurretan egiten diren kirolak - Kirolak, elurra

Amerika latinoko herri musika - Musika, Amerika latinoa

4. jarduera

¿Martera joaterik ba al da? - **Bidaiak, Marte**

Diruaren jatorria - **Historia, dirua**

Faraonen garaian Egipton bizitzea - **Egipto, faraonak**

Joko Olinpikoen historia - **Historia, olinpiadak**

Nola egiten dira medikamentuak? - **Fabrikazioa, medikamentuak**

Eraikin bat nola altxatu, obra baten etapak - **Eraikuntza, earikina**

Hegazkinak nola asmatu ziren - **Asmakuntzak, hegazkinak**

Europa trenez kurritzea - **Bidaiak, Europa, trenak**

5. jarduera

Enara, txantxangorria, birigarroa, txolarrea, urretxindorra, karnaba: **Txoriak**

Amona, aita, alaba, ama, semea, aitona: **Familia**

Laranja, limoia, pomeloa, lima, mandarina: **Zitrikoak**

Etxea, pisua, apartamentua, estudioa, txaleta: **Etxebizitza**

Dominoa, damak, xakea, kartak, partxisa: **Mahaiko jokoak**

Ikusmena, entzumena, ukimena, gustua, usna: **Zentzumenak**

6. jarduera

Elikagaiak: **Esnekiak, proteinak, karbono hidratoak, fruta, berdura, heltzariak, eta abar**

Kirolak: **Saskibaloia, ziklismoa, futbola, eskubaloia, tenisa, atletismoa eta abar**

Erlijioak: **Hinduismoa, budismoa, katolizismoa, protestantismoa, islama, eta abar**

Intsektuak: **Euliak, eltxoak, inurriak, erleak, liztorrak eta abar**

Komunikabideak: **Telebista, prentsa, irratia, internet eta abar**

4. unitatea

2.2

2. jarduera

Zer ikusi duzu? **Emaitzak, eremu jakin batean bilatuz gero zehatzagoak dira. Eremu jakin batean bilatzearen emaitza txikiagoa izaten da kopuruz edozein eremutako bilaketa eginda baino.**

OHARRA: Jarduera honen emaitzak ikastetxeko katalogoan dauden liburuen arabera izan daitezke. Interesgarria izan daiteke irakasleak berak egitea jarduera lehenbizi, eta ikusten badu emaitza eskasa dela, proposatu diren egileak eta gaiak aldatzea eta probetxu gehiago ateratzeko moduko beste batzuk jartzea.

4. jarduera

Zer bilatu nahi duzun...	Zer hitzen bidez bilatu	Eremua	Dokumentu mota
Ugaztunen gaineko liburu bat	Ugaztuna	Deskriptorea	Liburua
<i>Behi euskaldun baten memoriak</i> liburua	Behi euskaldun baten memoriak	Titulua	Liburua
Ea katalogoan bideorik dagoen			Bideoa
Velázquez-en gaineko CD-ROM bat	Velázquez	Deskriptorea	Artxibo informatikoa
Agruparte argitaletxeko diskoak	Agruparte	Editorial	Soinuzko grabazioa
<i>SM Saber</i> liburu bilduma	SM Saber	Deskriptorea	Liburua
Liburutegian esku-lanei buruz dauden liburuak	Esku-lanak	Deskriptorea	Liburua
Noa-ren disko bat	Noa	Egilea	Soinuzko grabazioa
Patziku Perurenaren poema liburu bat	Perurena, Patziku	Egilea	Liburua
Euskal Herriko antzinako irudiak	Euskal herria, irudiak	Deskriptorea	Denak

2.4

1. jarduera

Pintura, akuarela ezik - **Pintura NO akuarela**

Nerabezaroko adiskidetasuna - **Adiskidetasuna Y nerabezaroa**

Amerikako ibaiak - **Ibaiak Y Amerika**

Magia edo karta jokoak - **Magia O karta jokoak**

Ipuinak, herri ipuina ezik - **Ipuinak NO herri ipuinak**

Europako sumendiak - **Sumendiak Y Europa**

Sukaldaritza frantseseko errezetak - **Errezetak Y Frantses sukaldaritza**

Poesia edo teatro liburuak - **Poesia O teatroa**

Kostan barrenako txangoak - **Txangoak Y Kosta**

3. jarduera

1 **B**

2 **C**

3 **A**

5. unitatea

2.2

4. jarduera

Lan baterako informazioa aurkitu behar - **Hiztegi entziklopedikoa**

Ortografiako dudak argitu - **Hizkuntzazko hiztegia**

Ingeleseko idazki bat ulertu - **Ingeles-euskara edo ingeles-gaztelania hiztegi elebiduna**

Antzeko hitz bat bilatu testuan hitz bera ez errepikatzeko - **Sinonimoen hiztegia**

Gai bati buruzko aipamen literario bat bilatu - **Aipamen literarioen hiztegia**

2.6

2. jarduera

Irribarrez - EZ - **Irribarre**

Dantza - BAI

Kasko - BAI

Mandataria - EZ - **Mandatari**

Erokeria - BAI

Janen du - EZ - **Jan**

Erbitara - EZ - **Erbi**

Gustu - BAI

Euritsu - BAI

Botilatuko - EZ - **Botilatu**

Indoeuropar - BAI

Gazi - BAI

3. jarduera

adb. **Adberbioa**

anat. **Anatomia**

arrt. **Hitz edo adiera arrunta**

BN **Behenafarroa**

da/du ad. **Da/du aditza**

etab. **Eta abar**

hed. **Hedadurazko adiera**

erak. **Erakuslea**

haur. **Haur-hizkerako hitz edo adiera**

ipar. **Ipar Euskal Herriko hitza edo adiera**

iz. **Izena**

izond. **Izenondoa**

junt. **Juntagailua**

onom. **Onomatopeia**

4. jarduera

Altxari iz. 1. Leku batean, eta bereziki etxean, erabiltzen den objektu higigarria. SIN. moblea

5. jarduera

Hitza (sarrera): **Amaitu.**

Kategoria gramatikala (laburdura): *du ad.*

1. esangura: Zerbaitek bere azkena izan.

Adibidea: *Amaitu da jaialdia.*

2. esangura: 2. Kopuru batetik dena hartu edo erabili.

Adibidea: *Amaitu zaigu olioa.*

3. esangura: Hil.

Adibidea: *Adorerik gabe, goseak amaitu beharreatan.*

Sinonimoak: 1. Bukatu. 2. Ahitu.3.Akabatu

Hitza (sarrera): **Bala.**

Kategoria gramatikala (laburdura): *iz.*

1. esangura: Su armetan erabiltzen den jaurtigai trinkoa.

Adibidea: *Kargadore honetan hogeita hamar bala sartzen dira.*

2. esangura: uzta-sorta lotua.

Adibidea: *Gari bala handiak ageri ziren landan.*

Sinonimoak: 2. Azaoa.

Hitza (sarrera): **Bakarti.**

Kategoria gramatikala (laburdura): *izond.*

1. esangura: Bakarrik dagoena edo dabilena.

Adibidea: *Otso bakartia.*

2. esangura: Bakarrik egoteko joera edo afizioa duena.

Adibidea: *Gaztetan, neure buruaren ahalkez, hagitz bakartia nintzen.*

Sinonimoak: 1. Zurtz.

Antonimoak: 2. Lagunkoia, jendekina.

6. unitatea

2.1

4. jarduera

Ikergaia	Entziklopedia alfabetikoaren liburukia	Entziklopedia sistematikoaren liburukia
Gaudí eta haren obra	5	10
Zenbaki lehenak	7	9
Feniziarak	4	4
Baobabak	2	8
Konstelazioak	3	2
Islandia	6	5
Xake jokoa	1	12
Antibiotikoak	1	11
Budismoa	2	3

6. jarduera

Entziklopedia **alfabetikoek** informazioa alfabetoz ordenatuta aurkezten dute; entziklopedia tematikoek, berriz, **gaien arabera ordenatuta**.

2.3

2. jarduera

- Klasea - BAI
- Familia - BAI
- Bizilekuak - BAI
- Deskripzio fisikoa - BAI
- Elikabidea - EZ
- Ugalketa - BAI
- Ohiturak - BAI

4. jarduera

- Kokalekua - BAI
- Azalera - EZ
- Populazioa - BAI. Zure ustez datu hori eguneratua dago? - BAI
- Erliebea - EZ
- Klima - BAI
- Ekonomia - BAI
- Industria - BAI
- Historia - BAI
- Monumentuak - BAI

7. unitatea

2.2

3. jarduera

B)

Howarth, Sarah. *Zer dakigu Erdi Aroaren gainean?*. Madril: SM, 1996.

Sumarioa

Erdi Aroa zer urte bitartean izan zen?.....	8
Kronologia	10
Nola lortzen zuen jendeak janaria?.....	12
Ba al zen behar adina janari?.....	14
Erdi Aroko familiak gureak bezalakoak al ziren?.....	16
Erdi Aroan etxeetan bizi al zen jendea?.....	18
Nortzuk joaten ziren eskolara?.....	20
Denek lan egiten zuten?	22
Oporrik bazuten?	24
Nola janzten ziren?	26
Zertan sinesten zuten?.....	28
Erljiioak garrantzia zuen?	30
Medikura joaten al ziren?	32
Nork gobernatzen zuen?.....	34
Ba al zen artistarik erdi aroan?	36
Ba al zen zientzilari eta inbentorerik?	38
Bidaiak egiten ziren Erdi Aroan?.....	40
Nola bizi ziren soldadoak?	42
Hiztegia	44
Aurkibide alfabetikoa.....	45

4. jarduera

1. Pikaroak

Zer titulu du kapituluak? **Juglareak, pikaroak era erromantze-bildumak**

Zer orrialdetan hasten da? **23**

2. Telebista estudioak

Zer titulu du kapituluak? **Telebista estudiotik etxeko aparatura**

Zer orrialdetan hasten da? **52**

3. Film bat nola egiten da

Zer titulu du kapituluak? **Nola egiten da film bat**

Zer orrialdetan hasten da? **44**

4. Tronpeten edo ezkilen bidezko komunikazioa

Zer titulu du kapituluak? **Blasoiak, banderak, tronpetak, danborrak eta ezkilak**

Zer orrialdetan hasten da? **18**

5. Ordenadore sareen bidezko komunikazioa

Zer titulu du kapituluak? **Sare informatikoak**

Zer orrialdetan hasten da? **58**

5.1. jarduera

.....

Kastoreak.....	4
Termitakabia	6
Tropikoetako ibai-hegia.....	8
<u>Amazoniako oihana</u>	10
<u>Basoa</u>	14
Haritza.....	16
<u>Bizitza Antartikan</u>	18
<u>Bizitza Ozeano Artikoan</u>	20
Kostaldeko istilak.....	22
Erlauntza	24
<u>Ipar Amerikako basamortua</u>	26
Ozeanoa.....	28
Aurkibidea	30

Butterfeld, Moira eta Orr, Richard. *Izadiaren liburu harrigarria*. Madril: Santillana, 1995.

5.2. jarduera

.....

Biosfera	8
Izadiaren energia	10
Elikatzearen piramidea	12
Hobi ekologikoa	18
Biodibertsitatea	22
Ugaltze estrategiak.....	24
Biosferako zikloak.....	32
Zer da ekosistema bat?.....	34
Izadiko giro handiak.....	40
Tundra.....	42
Taiga.....	46
<u>Baso epelak</u>	50
Giro mediterranearrak	54
<u>Oihan tropikalak</u>	58

.....

Berlardiak.....	62
Sabana	66
<u>Basamortuak.....</u>	70
Mendiak	74
Aintzirak.....	78
Ibaiak	80
Artikoa.....	82
<u>Antartika</u>	86
Gizakiaren eskuhartzea.....	90
Aurkibide analitikoa.....	92

Gallavotti, Bárbara. *Ekologia*. Madril: Editex, 2000.

Orain esan bi liburuetatik (1 eta 2) zein izango zenukeen lagungarri honetaz ikertzeko:

- Ekosistemak - 2
- Sabana - 2
- Erlauntzak - 1
- Elikatzearen piramidea - 2
- Termitak - 1
- Antartika - 1 eta 2
- Gizakiak naturaren gainean duen eragina - 2

6. jarduera

a)

- 1) Lurraren kliman gertatzen ari diren aldaketak
Kapitulua - **1.1** Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori? - **14**
- 2) Uraren kutsadura - **1.4** Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori? - **26**
- 3) Desagertzeko arriskuan dauden animaliak - **2.5** Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori? - **42**
- 4) Sute arriskua - **2.4** Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori? - **40**
- 5) Gizakiak naturaren gainean duen eragina - **3.1** Zein orrialdetan hasten da kapitulu hori? - **48**

b)

- 1) Liburua erreziklajeaz ari da? - **BAI**
Zein orrialdetan? - **50, 51**
Bilatu ditudan hitzak - **erreziklajea**
- 2) Liburu honek, zure ustez, zaborrari buruzko berriak izango ditu? - **BAI**
Zein orrialdetan? - **50, 52**
Bilatu ditudan hitzak - **zaborra**
- 3) Zein orrialdetan aurkituko zenuke Antartikari buruzko informazioa? - **12**
Bilatu ditudan hitzak - **Antartika**

.....

4) Liburu honek berotegi efektuaren gainean ari al da? - **BAI**

Zein orrialdetan? - **14, 15**

Bilatu dituzun hitzak - **berotegi efektua**

5) Liburu honek aire kutsatuaren gaineko informazioa du? - **BAI**

Zein orrialdetan? - **18, 19**

Bilatu dituzun hitzak – **aire kutsatua**

2.3

4. jarduera

Sumarioa eta aurkibide alfabetikoa lagungarri zaizkigu liburuetako **informazioa** aurkitzeko.

Sumarioa liburu baten gidoia da eta bere **kapituluen** ordenari jarraitzen dio.

Aurkibidea, liburuan jorratzen diren **gaien** zerrenda alfabetikoa da.

Liburua hiri bat balitz, sumarioa **planoa** litzateke eta aurkibidea, berriz, **seinaleak** lirateke.

Liburu batek aurkibiderik ez duenean oso **zaila** da bila gabiltzan informazioa aurkitzea.

Liburu baten bukaera, liburuko ideia nagusien **laburpena** da.

Glosarioa **hiztegi** txiki bat bezala da, liburu baten edukia ulertzen laguntzeko egina.

BIBLIOGRAFIA

- ABIES versión 2.0. *Manual de usuario*. En: *Abies. Aplicación Bibliotecas Escolares* [CD-ROM]. Madrid: Centro Nacional de Información y Comunicación Educativa, 2002.
- ARELLANO, Villar (koord.). *Formar usuarios en la biblioteca*. Salamanca: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 2001.
- CENTRO de Documentación del Servicio de Renovación Pedagógica. *Sailkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan*. Iruñea: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua, 2001.
- CHEVALIER, Brigitte. *Méthodes pour apprendre à l'école, au collège*. Paris: Nathan, 1993.
- DE TORRES, Isabel; MARTÍNEZ, Isabel. *Información y documentación en Secundaria*. Madrid: Narcea, 1995.
- HUARTE, Fernando. *Uso y disfrute de diccionarios y enciclopedias*. Madrid: CEGAL, 1992.
- ILLESCAS, M.J. *Con ingenio seré un genio* (I). Madrid: Editex, 1999.
- ILLESCAS, M.J. *Con ingenio seré un genio* (II). Madrid: Editex, 2000.
- MADRÈNES, Didier. BCD. *Ce qu'il faut découvrir. Cycle 2*. Paris: Magnard, 1995.
- MADRÈNES, Didier. BCD. *Ce qu'il faut découvrir. Cycle 3, 6è*. Paris: Magnard, 1995.
- MAÑÀ, Teresa. «La formación de usuarios en la biblioteca». In: Osoro Iturbe, K. (koord.) *La biblioteca escolar. Un derecho irrenunciable*. Madrid: Asociación Española de Amigos del Libro Infantil y Juvenil, 1998; 80-98, orr.
- SAJ, Marie-Paule (et al.). *Voyage au centre de la documentation*. Paris: Magnard, 1993.
- WRAY, D; LEWIS, M. *Aprender a leer y escribir textos de información*. Madrid: Morata, 2000.

.....



sorta **Urdina**

Blitz **Hezkuntza** **Departamentua**

1. **Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa**
Hobetzeko gakoak
2. **Eskolako liburutegia nola antolatu**
Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. **Saillapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumean**
Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. **Eskola liburutegiaren informatizazioa.**
ABIES 2.0 programa

sorta **Berdea**

Blitz **Eskolan**

1. **MARIANO CORONAS**
Eskolako liburutegia
Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. **VÍCTOR MORENO**
Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea
Hausnarketak eta proposamenak
3. **VILLAR ARELLANO YANGUAS**
Liburutegia eta ikaskuntza autonomia
Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa
4. **M^a JESÚS ILLESCAS**
Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu
Erabiltzaileak iprestatzen (inprimatzekoa)

sorta **Horia**

Blitz **irakurtzearen alde**

1. **Ulermeneko irakurketa eskola curriculumean**
Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. **JESÚS AMADO MOYA**
Hizkera zientifikoa eta ulermeneko irakurketa zientzien arloan
3. **ÁNGEL SANZ MORENO**
Ulermeneko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak
4. **VÍCTOR MORENO**
Leer para comprender
(ez dago euskarazko bertsiorik)
5. **ÁNGEL SANZ MORENO**
Nola itxuratu ulermeneko irakurketarako jarduerak
6. **Nola prestatu ulermeneko irakurketa plana DBH-ko institutu batean**
Bi adibide praktikoa

BLITZ
Liburutegiko saga